


# I. «GERRIKO» IDAZLAN-SARIKETA

1978ko azararen 16ko Legea (E.L. 1/1978)



EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA  
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO





## **MIKEL SARRIEGI ETXEZARRETA**

1965.eko apirilak 25ean Beasainen jaioa.

1989an Madrilgo Eskola Politeknikoan Mendi Injineru karrera amaitu zuen. Bertan Goleiriko basogintzako terminologia-ri buruzko lan bat egin zuen. Bildutako materialaz, gustoko gaia duela ahaztu gabe, idazlan hau burutzera animatu zen.

Egun mendi injinerutzako profesional bezala, autonomo, lanean dihardu. Ingurugiroaren azterketa lanak dira gehienbat egiten ari dena.






# GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLAREN ARGITARAPENAK

## GERRIKO Liburu-saila

1. *Astez Aste. Alfabetatzeko*  
Egileak: Testua: G.E.E.  
Azala: Joxe Mari Telleria  
Editorial PAX Argitaletxea. Lazkao, 1979.
2. *Ahaide Nagusiak*  
Argazki Hitza. Ikus-entzunekoa  
Testugilea: J. A. Leunda  
Itzulpen eta osagarriak: G.E.E.  
Marrazkigilea: J. M. Telleria  
Eragilea: G.E.E. - Lazkao  
Inprimatzailea: Anaitasuna-Usurbil  
Argitaletxea: PAX - Lazkao
3. *Euskal Kanta Xorta*. 1981
4. *Euskal Aditza. Alfabetatzeko*  
1982 G.E.E.  
Egileak: J. M. Aranburu, D. Amundarain, P. J. Aranburu, M. Bidegain, A. Idiakez,  
M. A. Maiz.  
Gráficas Lizarra, S.A.
5. *Ixtorioa Moldatu-I. Eskolumeak txori-kabia bila*  
G.E.E. 1982
6. *Baserri zaharra*  
Baserri-tresnak. G.E.E.
7. *Goiherrin kalea euskaldundu-I*  
G.E.E. 1984
8. *Aditz Ariketak I. Indikatiboera. Euskalduntzeko*  
G.E.E. 1985  
Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Beneditarrak - Lazkao
9. *Aditz Ariketak II. Baldintzera, ahalmenera, menpekoak, beste batzu*  
G.E.E. 1986  
Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
10. *Esaldi konposatuak. Koordinatuak, menpekoak, beste batzu*  
G.E.E. 1987. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
11. *Deklinabide Ariketak*  
G.E.E. 1988. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
12. *Esamoldeak*  
G.E.E. 1989. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia

## I. «GERRIKO» Idazlan-Sariketa

- I. «Basogintza Goierrin XVIII.-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhaizgabetue-  
tatik Gaurko Pinudietara». Sarriegi Etxezarreta, Mikel  
«Urbia-Oltzeko Artzantza». Aizpuru Mura, Andoni  
«Artzantzaz Artzain Familia Batekin» Galparsoro Sarriegi, Ainhoa  
G.E.E. 1990








NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**I. «GERRIKO»  
IDAZLAN-SARIKETA**  
Goiherriko Euskal Eskola (G.E.E. I)

- Basogintza Goierrin XVIII.-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhaizgabetuetatik Gaurko Pinudietara.  
*Mikel Sarriegi Etxezarreta.*
- Urbia-Oltzeko Artzantza.  
*Andoni Aizpuru Murua.*
- Artzantzaz Artzain Familia Batekin.  
*Ainhoa Galparsoro Sarriegi.*



Gasteiz, 1991

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA  
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO

«GERRIKO» IDAZLAN-SARIKETA

© Sortzailea: Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarte  
Helbidea: Elozegi, 16, 1. ezker  
20210 LAZKAO

Zuzendari Teknikoa: Joxemartin Apalategi Begiristain J.  
E.H.U.ko Antropologi Irakaslea

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
C/ Duque de Wellington, 2 - 01011 Vitoria-Gasteiz

Egileak: Sarriegi Etxezarreta, Mikel  
Aizpuru Murua, Andoni  
Galparsoro Sarriegi, Ainhoa

Azala: Galarraga Urteaga, Amaia

Fotokonposaketa: DIDOT, S.A. BILBO  
C/ Nervión, 3-5.º. 48001 Bilbao

Inprimategia: I. BOAN, S.A. BILBO  
C/ Particular de Costa, 12-14. 48010 Bilbao

I.S.B.N.: 84-7542-962-9  
D.L.: BI-965-91

## JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoa) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituroic*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...





## AURKIBIDE OROKORRA

<b>HITZAURREA.</b> Andoni Sarriegi Eskisabel .....	11
<b>AURKEZPENA.</b> Joxemartin Apalategi Begiristain .....	13
<b>BASOGINTZA GOIERRIN XVIII.-XX. MENDEETAN, HARIZTI-PAGADI ETA SAIL ZUHAIZGABETUETATIK GAURKO PINUDIETARA.</b> Mikel Sarriegi Etxezarreta .....	19
<b>Hitzaurrea</b> .....	23
<b>1. Sarrera</b> .....	25
1.1. Basogintza .....	25
1.2. Goierrri .....	26
1.3. XVIII-XX mendeak .....	26
<b>2. Basoen bilakaera</b> .....	27
2.1. Jatorrizko basoak .....	27
2.2. Gizakiaren lehen eraginak .....	28
2.3. Erdi-Arotik aurrera .....	29
2.4. XVIII.mendean .....	29
2.5. Basoen atzerakada bortitza .....	32
2.6. XX. mendeko baso-iraultza .....	35
2.7. Gaurko egoera .....	35
2.8. 1784 eta 1986.eko egoeren arteko konparaketa .....	38
<b>3. Basogintzaren bilakaera</b> .....	41
3.1. Baso-sartzea eta zainketa .....	41
3.2. Baso-botatzea: egurraren lehen transformazioa .....	45
3.3. Baso-ateratzea .....	52
3.4. Langintza eratorriak .....	60
<b>4. Harizti-pagadi eta sail zuhaizgabetuetatik gaurko pinudietara</b> .....	63
<b>5. Eta pinudietatik, norantz?</b> .....	65

<b>Bibliografia</b> .....	69
<b>Irudi aurkibidea</b> .....	71
<b>URBIA-OLTZEKO ARTZANTZA. Andoni Aizpuru Murua</b> .....	73
<b>Fermin Leizaolaren Aintzinsolasa</b> .....	77
<b>Hitzaurrea</b> .....	79
<b>Metodologia</b> .....	81
<b>1. Urbia-Oltzeren kokapen geografikoa</b> .....	83
1.1. Sarrera .....	83
1.2. Lurraren egitura, landaredia eta basoak .....	86
<b>2. Artzantza</b> .....	93
2.1. Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoa .....	93
2.2. Saroia .....	93
2.2.1. Urbia-Oltzeko saroi desberdinak .....	93
2.2.2. Txabola eta eranskinak .....	110
2.2.3. Txabola-hartzea eta aldaketak .....	120
2.3. Larreak eta larrebideak .....	122
2.4. Artzainen lana .....	126
2.4.1. Ardi-jastea .....	131
2.4.2. Gazta-egitea .....	134
2.4.3. Ardi-moztea .....	142
2.4.4. Buztan-moztea .....	144
2.4.5. Ardi-markatzea eta seinalatzea .....	144
2.5. Negutoki edo barrutiak .....	147
<b>Ondorioak</b> .....	163
<b>Bibliografia</b> .....	165
<b>Hiztegia</b> .....	167
<b>Eranskinak</b> .....	171
<b>ARTZANTZAZ ARTZAIN FAMILIA BATEKIN. Ainhoa Galparsoro Sarriegi</b> .....	191
<b>Hitzaurrea</b> .....	193
<b>Bertsoak</b> .....	194
<b>Sarrera</b> .....	195
<b>Metodologia</b> .....	197
<b>1. Artzantzaren definizioa</b> .....	197
<b>2. Historia pixka bat</b> .....	197

3. Iharduera ekonomikoekiko lotura .....	198
4. Ardiak .....	199
5. Artzaina .....	206
6. Larre-aldaketa .....	208
7. Bizilekua .....	210
8. Tresneria .....	212
9. Eratorria .....	213
10. Ohiturak .....	220
Tesia .....	221
Hitzatzea .....	222
Bibliografia .....	223



## HITZAURREA

1977-VI-30ean Lazkaon GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLAKO ARAUDIA Batzarrean onartu zenean, ordurarteko Goierriko Gauskolen batze eta antolatzea egin zen, euskalduntza-alfabetatze lana antolamendu hobearekin egin eta etekin oparoagoak lortzeko. Helburua, «2000. urterako Goierri euskalduntzea».

1981ean, egoera politikoaren aldaketa zela bide, GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA KULTUR ELKARTEA izango zenaren estatutuak prestatu ziren eta Bazkideek onetsi ondoren, 1982ko otsailaren 26an legezko Kultur Elkarte gisa inskribatu zen Gipuzkoako Gobernu Zibilean.

Geroztik eta 1988ko apirilerarte, maila anitzetako Euskararen irakaskuntza bere ardurapean izan zuen Euskaltegi-Barnetegi garrantzitsu legez jardunez, baina irakaskuntza hori beti ere, kultur gintzako hainbat eta hainbat saioz lagunduta emana izan zen, herriaren hizkuntzak berorren kultur gintzako oinarria izan behar duelako.

1981eko urriko batzarre batean erabaki zenez, 1988ko apirilean, MAIZPIDE Euskaltegia inauguratzean, HABEren babespean ari zen ihardun hori, HABEren Euskaltegi horren ardurapera pasa zen osoro.

Euskararen irakaskuntza formal eta arautua jada bideratuta ikusirik, GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA KULTUR ELKARTEAK, Euskaraz egindako Kultur egintza eta ikerketei buru-belarri heldu nahi izan die, etxean edo eskolan Euskara ikasia duen euskaldun oro Euskara erabiltzera bultzatzeko. Horrela, nola ahozko erabilpena hala idatzizkoa ere, bere jomuga bihurtu dira; beraz, bi ildo nagusi hauetan zehar burutu asmo du etorkizun hurbileko jarduna.

Guzti hori gauzatzeko eta besteren artean, 1989ko irailean egoki eritzi zion JOSE INAZIO GERRIKO Goierriko (Segurako) idazlearen omenez I. GERRIKO IDAZLAN-SARIKETA sortzeari eta sortu ere Goierriko gaiez ikerketa-lanak eskuratu eta argitaratzeko asmoz.

1990eko apirilean, lau idazlan jasota zeuden. Nekazaritza, artzantza eta basogintza-arloko gaiak izan ziren aurkeztuak.

Epaimahai, ondorengo Jaun-Andereok osatu zuten:

— Mari Karmen Garmendia Lasa A.ak (Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia).

— Joxe Mari Zeberio Begiristain J.ak (Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ikerkuntza eta Prestakuntzako Zuzendaria).

— Joxe Ortuzar Tantorkuato J.ak (Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren Aholkularia).

— Joxemartin Apalategi Begiristain J.ak (E.H.U.ko Antropologi Irakaslea). Sari-banaketa, 1990eko ekainaren 8an egin zen Lazkaoko Udaletxean eta era honetan banatu ziren:

1. Saria: Mikel Sarriegi Etxezarretari  
Idazlana: «BASOGINTZA GOIERRIN XVIII-XX MENDEETAN, HARIZTI-PAGADI ETA SAIL ZUHAIZGABETUETATIK GAURKO PINUDIETARA».
2. Saria: Andoni Aizpuru Muruari  
Idazlana: «URBIA-OLTZEKO ARTZANTZA».
3. Saria: Ainhoa Galparsoro Sarriegiri  
Idazlana: «ARTZANTZAZ ARTZAIN FAMILIA BATEKIN».
4. Saria: Aitziber Zurutuza, Koro Urteaga, Eneider Sukia, Larraitz Sukia, Arantza Altuna eta Amaia Etxeberria  
Idazlana: «LANBIDE HISTORIKOAK GOIERRIN».

Epaimahaiako Jaun-Andereek, lehenengo hiru sariez jabetu zirenen idazlanak argitaragarritzat eman zituzten eta Joxemartin Apalategi Begiristain Antropologo eta Irakaslearen gidaritzapean argitaratzeko prestakuntzak egin dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza-Saila argitaratzeko prest azaldu da eta guzti horren fruitu, eskuartean duzun argitarapena da.

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA KULTUR ELKARTEAK, Idazlan-Sariketa hau, ikerlanak herritarrengana iristeko bidea errazteko bitarteko izatea nahi luke, baina aldi berean lehenengo honek urtez urte atzetik beste asko ekartzea, giza nahiz teknika-zientziak euskaraz garatuak izan daitezen. Bide hori egoki asmatzea baino ez genuke nahi.

Bukatzeko, esan baino ez, ohore eta atsegina handiz idatzi ditudala lerro hauek eta sarituak gure hurrengo belaunaldikoak direla ikusteak biziki pozten nauela. Hogeitabost urtetan zehar gutxiasko bide honetatik ibili garenontzat ez da ordain hoberik.

Eskerrik asko Sariketa hau aurrera eramaten lagundu gaituzuen idazle, epaimahaiko eta argitaratzaileoi.

Bedi horrela urte askotan.

Lazkao 1990eko Azaroa

**ANDONI SARRIEGI ESKISABEL**  
*Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarteko Lehendakaria*

# AURKEZPENA

## EUSKAL KULTURGINTZAREN ARDURADUNOI

### 1. LEHIAKETA HAU

Lazkaoko Goiherriko Euskal Eskolak 1989.ean I. «Gerriko» Idazlan-Sariketa antolatu zuen, eskualde horretako bizimodu historikoei buruzko ikerketak bultzatzea helburutzat hartuz. Aurkeztutako ikerlanen epaimahaikideetako bat izateko proposamena erakundeko alma mater Dionisio Amundarain euskaltzale handiak luzatu zidan. Onartu nion eta gaur idazten dudan pentsamenduzko idatzi honekin amaitzen dut erabat nire zeregina, zeinetan, Dionisiorekin batera, erakundeko Andoni Sarriegi lehendakaria eta Marijoxe Madariaga dinamizatzailea eduki ditut lankidetzat hertsian. Hiruei eskertu azaltzen natzaie, hemen ere.

Beraz, epaimahakidez gainera, lehiaketako hiru irabazleen ikerlanen argitalpenaren managerra izan naiz, ikerlari bakoitzari bere idazkia zuzenduz eta erakundeari liburua bilduma bezala antolatuz. Horretara eraman nauten arrazoien artean honako hauek hemen zuzenki aipatzea nahi dut:

#### 1.1. Amaiera, argitalpenarekin bakarrik

Idazki bat zein beste mota batetako lan bat, bere plazaraketarekin bakarrik dago amaitutzat ematea. Hori edozein ahaleginekiko horrela izaten ez denero, amaierarik ez da oraindik ezagutzen.

Kasu honetan, nire eritzia berehalaxe onartua izan zen Lazkaoko Goiherriko Euskal Eskolako hiru arduradun horien aldetik. Gainera, hiru saritutakoen eta Eusko Jaurlaritzako Nekazal eta Arrantza Saileko arduradumen aldetik ere, azken honek bere babespean liburua orain kaleratuz.

Horregatik, aipatu guztiei eta niri esker, I. «Gerriko» Idazlan-Sariketa amaitutzat emanda gelditzen da. Hots, hazia ereinda dago, irakurle, zure eskuetara liburua iritsi delako.

## 1.2. Amaitu ahala bakarrik hobeagotzen da

Lehiaketa honetan nire helburu bakarra izan da euskal ikerkuntz mundua hobeagotzeko lehiaketako ikerlan on guztiak, sarituak ala ez sarituak, plazaratzea.

Ontasunari dagokionez, bi kriteriotan oinarritu naiz, Lehiaketa honetako ikerlanen gainean nire eritzia agertzerakoan: bata, ikerketak pauso askoren eraginez bakarrik aurreratzen dira, eta pausoen artean beti gertatzen dira zurrak eta ez-zurrak, azken hitza garaikideek baino etorkizunekoek gehiagotan ematen dutelarik; biga, euskaldunon ikerketan pauso asko emanez, baita ere, aurrera joango gara. Bi kriterioak euskarazko ikerkuntzagintzan urriki erabiltzen dira, betidanik. Gure esku dago jokabide ezkorra baikor bilakatzea!

## 2. JAKITURIA

Munduko garai guztietako kulturei begira gagozkielarik, esatea badaukagu pertsonen jakituria hiru eratako arrazoizko ezagupenez beti osotua egon dela. Hori, gainera, pertsonaren tasunagatik, zeinari homo sapiens edo homo sapiens sapiens batzuek eta beste batzuok «*Lucy: The beginnings of Humankind*» deitzen diogularik (EDEY Maitland, A. and JOHANSON Donald, C.), hiru horietzez bakarrik beti osotua egongo dela eta egon daitekeela.

Jakituriaren hiru eratako arrazoizko ezagupenak modu ezberdinetara izendatuak izan dira munduko kultura guztietan, Ratio europea-zale askok, sozialki nagusi mundu osoan gaur ere, bakarrik gure historian zehar, eta ez beste inorenean, hiru erak eman direla sostengatzen dugun arren. Claude LEVI-STRAUSSen *La pensée sauvage* dioenak tesia hau sinkronikoki kontrajartzen bazuen, berriki Homo afarensis-ek gauza bera diakronikoki berretsi du. Nola Ratio europea-zale horiek eurentzat eskusibitatea sostengatzen jarrai dezaketen, aurkako froga guztiei muzin eginez, ezin dut ia gehiago ulertu. Arazo hau homo-zaleontzat edo kulturaren historiaren ikerlariontzat aztergai handienetakoen artean ematea geroz eta derrigortuagoak gaudela, nik ezin dut zalantzan ipini hori, inondik inora.

Descartesek, hainbat lan egin ziguna Ratio europea-n jakituriaren hiru eratako arrazoizko ezagupenak bata bestetik bereizten, honela deitu zien: populuzkoa, zeina pertsona bakoitzari dagokio, eta horregatik bizitzan oinarritzkoena dugula baieztatzen dut, pertsonak beren bizitzatik darien esperientzian gorpuzten dutelarik; zientziazkoa, zeina pertsona gutxiengo bati dagokion, buruak froga bidez ulertzen duenean bakarrik gorpuzten duelarik; eta jainkozkoa, zeina pertsonak eurengandik at dagoenak (edo daudenek, frantziarrari gehitzen diot) ezagutzera emandakoari esker gorpuzten dutelarik. Descartesenari nik beste aldaketa bat egitea bidezkotzat ikusten dut: jainkozkoa hitza, kultura konkretuen tradizio batez baldintzatua dagoenez, kultura denetan onartzea dagoen beste hitz bategatik ordezkatzeko dut, traszendentziazkoagatik alegia.

XX. mendean euroamerikar politikazko antolakuntzarako zientziazko arrazoizko ezagupena oro oinarritzale bezala erabili izan da, Comte soziologoak bere *Cours de philosophie positive* delakoan hori ederki eta oihartzun izugarri de-



fendatu zuelarik. Horrela, batzuek horreaz uste izan zuten eta beste batzuk hori egiten jarraitzen dute bizitzako arlo nagusienetakoa den politikazko antolakuntza behin-betirako bide hutsezinezko batetan abierazita zeukatela/daukatela. Guregandik hurbilago, beste batzuek hori uste izaten jarraitu dute. Lekukoen artean, Karl Mannheim (1893-1947) hungariarra gogora ekartzen dut bere 1950.eko *Freedom, Power and democratic Planning* liburuarekin.

Ni neu, zaletasunez, gertueraz eta ogibidez arrazoizko zientziako ezagupenari hertsiki lotua nago aspalditik, eta betirako. Halere, nire buruari, gaurkoan ere, zientziako arrazoizko ezagupen era, jakituriaren hiru eretariko bat dela, eta ez beti era nagusiena bizitzan, irmoki gogoratu nahi diot. Honelaxe pentsatuz, I. «Gerriko» Idazlan-Sariketako hiru irabazleei laguntza eskaini diet, eta, berdin era horretan eurak ere erabat murgiltzera iritsiko balira egunen batetan, gauza bera beti egitea proposatu diet eta proposatzen diet, berriro. Ezagutzea, bizitza bera dela ulertzen datzalako printzipioen printzipioagatik!

### **3. KULTURA-K: EGINEZ, DESEGINEZ, BERREGINEZ, BETIKO SEKULA SEKULATAN**

Kultura, kulturkideen eraginez sortutako ohiturek eta gauzek gorpuzten dute (Ikus: B. Tylor-en *Primitive Culture*, 1. bol., 1871; A. L. Kroeber eta Clyde Kluckhohn-en «Culture, A Critical Review of Concepts and definitions», Papers of the peaboy Museum of American Archaeology and Ethnology, bol. 47, zk. 1, 1952; Joxemiel Barandiaranen *Etnografiazko galdeketa batetarako gidaliburu*. Berriemailearen biografia, 1986).

Munduko pertsona guztiok kultura batetan eta berean gabilta beti, eta, gainera, lekuan lekuko kulturen bidez hori lortzen dugu. Beraz, den-denoï dagokigun kultura bat eta bakarra dago eta taldeei dagokien kultura asko daude, aldi berean.

Denbora guztian, etengabe, kulturak eginez, deseginez eta berreginez doaz; etengabe. Bestalde, Kulturazko osatzaileetatik, lehen mailan bakarrik pertsona azaltzen da hots, bizia, zeinari norjabetasunak eustarazten dion. Hurrena, lehentasunaren arabera, bigarren mailan lurraldetasuna, hizkuntza eta jakituria (hau da berdin, ohiturak gehi kulturazko materiala) daude.

### **4. HIZKUNTZA IDATZIZ KULTURA BERREGIN**

Historian sartu zen-ziren/etik kultura-k, idatziaren erabateko politikazko agintea zenbat eta gure egunetarako hurbildu, hainbat eta sendoago bilakatu da.

Egun, euskaldunok bigarren mailako kulturazko osatzaileetan lana burubelarri egin beharra daukagu, bereziki.

Hizkuntz arloan, ahoz nahiz idatziz, zeregin izugarria egitea tokatzen zaigu euskaldunoi, geure kultura berregingo badugu, eguneratzeko eta etorkizunera begira sendo jartzeko.

Euskal idatziaren zenbait tiporen produkzio gintzan neurri handiz lanegiten dugu, hala nola «Orotarik» (% 26), «Irakaskuntza, Hezkuntza» (% 19), «Literatura» (% 18,5) eta «Hizkuntzalaritza» (% 12,5) Joan Mari Torrealdaik «1987ko liburuak: gai sailkapena» deiturikakoan emandakoaren arabera (1988ko urtarril/martxoko Jakin 46 zk., 124 orr.). Hemen pauso handiak burutu dira orotzalego, hezilego, literaturgilego eta hizkuntzalarigoaren aintzindaritzapean.

Garai berean, euskal ikerlariok ikerkuntzaren edozein mailatan egiteko dugun ahaltsun osoa geure buruei bezala besterenei ere garai berean erakutsi diegu (Ikus: J. M. TORREALDAI, op. cit.). Baina, ikerkuntza idatzia gutxi argitaratzen dugu, defizitario latzak gara.

60, 70 eta 80. hamarkadetan guztia burutu izan dugu. Urrezko garaia, hiru hamarkada hauetakoa euskal kultura idatzian, gero! Amaitugabea, ordea. Oraindik hizkuntzaz idazten dugulako nagusiki. Hori eginez batera hizkuntza horretan portzentaia normalean edozertaz idaztea lortzean, aipatu urrezko garaia erabat eginaz eta berreginez eman ahalko dugu. Egungo apostu handiena da hori euskal kultura idatzian, eta ikerlarion esku dagoena.

## 5. ELEBITASUN ONARGARRIA

Hizkuntzaren mugaketa berau pertsonon eta pertsonarteko taldeen arteko komunikazioak egiten eta berregiten erabiltzen dela azaltzen da. Egungo fonetikalari berritzaileek mugaketa hau ardatz bakartzat hartuta daukate.

Kultura-k erakusten digu-te/na zera da: kultura bereko kideek hizkuntza bakar batetan komunikazioa egiten dutela, eta beste kulturatako kideekin ari direnean komunikatzen bi kulturetako ei ezagunena zaien hizkuntzan, hau hiru tipotakoa izan daitekeelarik beti: norberaren kulturarena, bestearenarena ala hirugarrengo edo bitartekariarena.

Kultur-en historiako azterketak erakusten du kultura batetako kidegoarentzat beti, gehienez jota derrigorrezko komunikaziorako hizkuntzak bi, eta bi besterik, ez daudela. Biei honela deitzea proposatzen dut: «kulturazko nortasuneko hizkuntza», kultura batetako kidegoaren komunikazioaren hizkuntzari zuzen-zuzenean dagokionean; «kultura harremanetarako hizkuntza», kultura bi edo gehiagotako kidegoen komunikapenerako hizkuntzari zuzenean dagokionean. Bi hizkuntza hauek bakarrik osotzen dute elebitasun onuragarria!

Gaur egundik hurbileko biharrerantz begiratuta, Euskal Herriko kulturaren elebitasun onuragarria bi hizkuntza hauetan datzala ikusten dut: bere kulturazko nortasunaren hizkuntzan, euskaraz, eta bere kultur harremanetarako hizkuntzan, ingeleseraz. Bi horietan gure hizkuntz politika itsatsia behar da; oso-osorik.

## 6. EUSKAL IKERKUNTZAREN ARDURADUNEI

Ikerkuntza baten arduradungoa tipo askotako «lariak» osatuta dago: ikerlariak, kulturaltalde kideek, merkatariek, irakurleek eta managerrek.

Horietako bakoitzean jende jabetsua behar da zuzendaritzan, managerra izanik beste lauentzat ikerkuntz politika orokorraren buru. Managerra bera hiru tipotakoa da: erakunde ofizialetakoa, erakunde pribatutakoa eta independentea. Lehenengo biek atzekiak dauden erakundeetatik aurrera joko dute, eta hirugarrenak atxekia dagoen kultura berberetik.

Euskal ikerkuntzaren arduradun garen bakoitzari tokatzen zaio zein «lari» motatakoa den erabakitzea eta hori jakineraztea beste guztiei. Gainera, arduradun bakoitzak managertzaren hiru tipoak izendatu eta horiekin harremanu behar du, euskal ikerkuntzaren politika gaurkotiarra eratzeko eta burutzeko.

Esate batetarako, niri dagokidenez, hauxe jakineraz diezaieket, beste behin euskal ikerkuntzaren egungo beste arduradunei: bata, lehenasunez ikerlari eta irakurle naizela, hurrena kulturaldekide, azkenik zertxobait merkatari; biga, manager independentea naizela, geroz eta gehiago.

## 7. NIRE EGITEKOAREN AZKENEAN

I. «Gerriko» Idazlan-Sariketaren erabateko amaieran liburu hau gorpuztu arte Lazkaoko Goiherriko Euskal Eskola kulturalde pribatuarekin lanean ihardun izan badut, manager independentea naizelako izan da, batipat. Aurrerantzean ere, hori gogotsu egiten jarraituko dut, hala egitea eskatzen didatenekin.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- BARANDIARAN JOXEMIEL. 1985. «Etnografiako galdeketa batetarako gidaliburu». *Berriemailearen biografia*. AEB-Bjm6. Donostian. J Haranburu Editorea.
- DESCARTES. 1973. «Discours de la méthode et essais». *Oeuvres de Descartes*. VI. Paris: Librairie Philosophique J. Vrin.
- KROEBER, A. L. AND KLUCKHOHN, CLYDE. 1952. *Culture, A Critical Review of Concepts and Definitions*. Paper of the Peabody Museum of American Archaeology and Ethnology, vol. 47, number 1.
- EDEY, MAITLAND A. AND JOHANSON, DONALD C. *Lucy: The beginnings of Humankind*.
- MANHEIM, KARL. 1950. *Freedom, Power and Democratic Planning*. New York: Oxford University Press.
- MANHEIM, KARL. 1982. Traducción (1.<sup>a</sup> ed. 1953) 3.<sup>a</sup> reimpresión. *Libertad, poder y planificación democrática*. Mexico: FCE.
- TORREALDAI, JOAN MARI. 1988, 1/3. *1987ko euskal liburugintza*. 113-148. Jakin, 46. Arantzazu (Gipuzkoa).
- TYLOR, B. 1871. *Primitive culture: researches into the development of civilization*. London: Murray.

JOXEMARTIN APALATEGI BEGIRISTAIN  
*Antropologo-irakasle*



**BASOGINTZA GOIERRIN  
XVIII.-XX. MENDEETAN,  
HARIZTI-PAGADI ETA SAIL  
ZUHAIZGABETUETATIK GAURKO  
PINUDIETARA**

*Mikel Sarriegi Etxezarreta*

LABURPENA

Hitzaurrea

1. Sarrera
2. Basoen bilakaera
3. Basogintzaren bilakaera
4. Harizti-pagadi eta sail  
pinudietara zuhaizgabetuetatik gaurko
5. Eta pinudietatik, norantz?

Bibliografia

Irudi aurkibidea



*Nere gurasoei  
eman didaten sustrai  
eta ongarriagatik.*





## HITZAURREA

Nere gaztelaniaz eramandako mendi-injinerutza ikasketak bukatzeko orduan, halako hutsune bat sentitzen nuen nere lanbide-formazioan, ez bait nintzen gauza gure arloko gaiak neure hizkuntza den euskaraz garatzeko.

Kezka hau buruan, saiatu nintzen nolabaiteko bibliografia edo hiztegiren baten bila. Ez zegoen.

Banuen bestalde, gure ingurutako baso-aberastasunaren aurrean, eta nere baserriko osabaren aldetik batipat jasotako ikasgai laburren eskutik, basolanetan eta baso-ihardueran derrigorrez euskararen eremu semantikoak oso ugaria eta aberatsa izan behar zuenaren halako susmo sendoa.

Hiztegigintzan eta etnografian jakitun diren zenbaitekin elkarrizketatu ondoren ez nuen bi aldiz pentsatu eta egin beharreko Karrera Burutze-Lanak eskaintzen zidan aukera aprobetxatu nuen: *Basogintza-Terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri*n izenburupeko lana izan zen emaitza. Noski, lana amaitzearekin nere hasierako susmoak erabat ziurtatu ziren. Izugarrizko materiale etnografiko pila aurkitu nuen, eta honen erakusgarri, jaso nituen baso-hiztegi baten barruan egoteko moduko 700 hitz edo termino baino gehiago horiek izan daitezke. Terminologiaren gain, parada ezinobea gertatu zitzaidan lan honen burutzea gure eskualdean basolanak nola egiten ziren eta diren ezagutu ahal izateko, zerikusia duten beste kontu asko eta askorekin batera.

Izan ere, aurreko mendearen azkenaldean hasi eta mende honetan aurrera, goierritar asko eta asko izan dira basogizon moduan ibili direnak, bai eskualdean bertan eta bai Nafarroako Irati mendira eta inguruetara lanera joan izan direnak, ogibide bila (1).

Langile hauen lan-baldintzak, harremanetan zeuden ingurua basoa bera zenez, beti izan dira gogor eta latzak, mendian bertan bizi beharra, eguraldia, eta antzeko eragileen menpe egoten bait ziren urte osoan, Errege egunean edo etxetik aldegin eta Eguberriak bitartean itzuliko ez zirelarik askotan. Ez zuen arrazoirik falta hau kantatzen zuenak:

---

(1) Ikus ARRIZABALO, J.M.; ZAVALA, A.: *Baso-mutillak*, Auspoa. Tolosa, 1979.

«Irudimena ik bizkorra.  
Ez baitakin ba nolakoa dan  
baso beltzeko listorra:  
Ez baitun inoiz murtxa mendiko  
baba latz, ogi gogorra,  
sardin zarra ta bakallo gazi,  
abarka bezin legorra...» (2)

Aipatu dudan Karrera Burutze-Lan horren ondotik, Gipuzkoako Foru Al-  
dundiko Kultura sailak eskatu zidan beste azterketa lan bat prestatu behar izan  
nuen: *Euskal-Herriko basoa eta untzigintza, Gipuzkoako Itsas-museorako zenbait  
apunte*. Lan honetarako egin behar izan nuen bibliografi-bilketa haundiak, gure  
herriko basoen egoerari buruzko materiale asko inguratu zidan.

Honela bada, Goierriko Euskal Eskolak deitu zuen I. Sariketa honi begira,  
aurreko bi lan horiek eskuratu zidaten dokumentazio guztia Goierri dagokionez  
baliagarri eta interesgarritzat joz, ez nuen askoz ere gehiago behar izan hemen  
daukazuen saio hau zirriboratu eta txukuntzeko.

Ezin esan gabe utzi, sarira aurkeztua izan zen textua zuzendua eta osatua  
izan dela argitalpen honi begira, epaimahaikide guztien eta Joxemartin Apala-  
tegiaren zuzendaritzapeko laguntza estimagarriaz.

Ez dut gelditu nahi, azterlan honetan isuri ditudan jakingai askoren berrie-  
maileak, esker moduan, aipatu gabe: Joxe Agirre (Zegama), Asentxio Aierbe  
(Ataun), Ageda Aranburu (Beasain), Joxe Arin (Ataun), Bixente Begiristain  
(Ataun), Juan Etxezarreta (Matxinbenta), Joxe Manuel Imaz (Beasain), Agustin  
Lasa (Matxinbenta), Inazio Mari Lasa (Matxinbenta) eta Patxi Otaegi (Zegama).  
Bihoakie lantxo hau nere omenaldi apal bezala, bai hauei, eta bai basogintzan  
aritu diren goierritar guztiei.

---

(2) ALUSTIZA, J.: *Euskal baserriaren inguruan*, 186. or., Arantzazu Frantziskotar Argitale-  
txea. Oñati, 1985.

## 1. SARRERA

Lehen lehenik eta beste ezer baino lehen, azter-gai izango dugun lanbidea zehazten saiatuko gara, mugituko garen lekua eta denbora ere finkatuz. Behin hauek ezagutu eta gero, leku eta denbora horretan lanbide hori nolakoa izan den deskribatu nahi dugu, iturri bibliografikoak erabiliz.

Dena dela, lanbidea hobe eta errazago ulertaraztearren, ezinbestekotzat jotzen dugu bere «lantokia» izan den basoari buruz zenbait argibide ematea. Goierriko baso-historiaren gainean egingo den azalpen honek ere jatorri bibliografikoa izango du nagusiki, zenbait datuekin, gero ondorio interesgarriak ezartzen lagunduko dituzten geure kasako lanketa egingo badugu ere.

### 1.1. Basogintza

UZEIko Ekologia Hiztegian begiratzen badugu, Basogintza «basoen lantze, zaintze eta ustiatzearen zientzia eta iharduera» dela jakingo dugu. Lan honetan, iharduera hori nolakoa izan den deskribatu eta arakatu nahi genuke batez ere.

Garbi utzi behar da bestalde, ez dagoela lanbide bat, basogintza kontzeptuarekin bere osotasunean bat egiten duenik. Arlo honetan lan egin dutenen artean, hiru egoera ezberdin bereiz daitezke:

- Beste lanbide bat dutenak, baserritar-mundu ingurukoak gehienetan, eta basoen jabe izateagatik bertan ihardun dutenak, langintza osagarri moduan.
- Basoko gaiekin zerikusia zuten lanbideetako langileak, hala nola, ikazkin, zerrari, arotz, untzigile, etab.
- Basogintzaren iharduerari helduko zion langile espezialduen beharrak eraginda, sortu ziren lanbide berezidunak: basogizon eta itzainak.

Azken egoera honetako lanbideak ikutuko ditugu bada zehazkiago, nahiz eta besteak ere ez bazterrean utzi, basogizon edo basomutilek eta itzainek osatzen bait dute, xuxen-xuxen, basogintzari zegokion langile-multzoa.

## 1.2. Goierri

Goierri, Euskal Instituto Geografikoak (INGEBA) 1979an burutu zuen eskualdekako zatiketaren arabera, 19 udalerrik osatzen dute. Gaur egun, eta Alzagak udalerrri izaera lortu berria duelarik, 20 izango lirateke: Abaltzisketa, Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain, guztira 38.689 ha.-ko azalera hartzen dutelarik.

Honenbestez, lan honen mugaketa geografikoa eginik geratzen da.

## 1.3. XVIII.-XX. mendeak

Dagokigun gaiari buruz lortu ahal izan dugun informazioa, lojikoakenez, zenbait eta denboran urrunago joan, orduan eta urriagoa gertatu da. Bada hala ere, linealtasun erlazio hori nolabait hausten deneko puntu bat XVIII. mendearen bukaera aldean, data horretatik aurrera datu eta jakingai proportzio haundiagoa eskaintzen diguna. 1784ean osatu zen ere, herriz herri Gipuzkoan burutu zen zuhaitzen inbentario moduko dokumentu baliagarri bat.

Bestalde, ez dira bi urte, gure asmoetarako material ugari, interesgarri eta zehatza eskuratuko digun lan bat argitaratu zela: E.H.K.A.ko 1986ko Baso-Inbentarioa.

Ez da izan bada, nola halako aukeraketa lan honen azterketarako garaia XVIII. eta XX. mende hauen artean kokatzea.

## 2. BASOEN BILAKAERA

Suposa daitekenez, Goierriko basoek, beste edonongoek bezalaxe, denboraren poderioz eraldaketa haundi ala txikiagoak jasango zituzten. Aurkitu ahal izan ditugun datuekin, eskualde honetako basoen egoera historian zehar, eta bi azken mende hauetan batez ere, nolakoa izan den aztertzeari ekingo diogu.

### 2.1. Jatorrizko basoak

Badakigu Goierrik, Euskal Herriaren barruan egonik, beti izan duela berezko baso-aberastasun haundia. Besteak beste:

«... zaharrek aitortzen zutenez, Legazpiko Motxorro barrenetik hasi eta Mutiloa mugarainoko gutzia bagoa omen zen, eta adarrik-adar eta lurrik ukitu gabe, pasa omen zitekeen dena.

Gauza bera entzuten da Beasain aldetik ere, alegia, Salbatoretik hasi eta Mandubira bitartekoa, bagorik-bago eta hutsik egin gabe igaro zitekeela dena.» (3)


Zoritxarrez, aberastasun hori zehatz-mehatz zertan zetzan jakiteko baliabide edo bitarteko gutxi, eta hauek eskasak, ditugu oraingoz.

Dena dela, jakin jakin daiteke teorikoki Goierriin baso naturalek berez beteko zituzketen eremuak zeintzu diren, baldin eta gizakiaren eraginik jasan izan ez balute. Hauek dira, ekologian, «aintzin baso-komunitateen nagusigo-eremu potentzialak» deritzaienak. Ildo honetatik, Goierriko maila menditarra (500-600 m. gainetik) pagadien nagusigokoa da, eta maila muinotarra (500- 600 m. azpitik) hariztienekoa. Bada Ataungo mendietan ere, artearen nagusigo-eremu potentzial txiki bat.

Nahiko fidagarritasun haundiz suposa daiteke beraz, orain 4.000 urte inguru, bertako basoen ustiapena hasi aurretik, pagoak eta haritzak genituela gure lurralde honetan jaun eta jabe, lizar, urki, zumar, astigar, haltza eta sahasen laguntzarekin, beti ere.

---

(3) ALUSTIZA, J.: *Euskal baserriaren inguruan*, 171. or. Arantzazu Frantziskotar Argitaletxea. Oñati, 1985.



### 1. irudia. Landaredi potentzialaren estaiak Goierriin:

1. *Lauro-Quercetum ilicis*, Artadiak.
2. *Polysticho setiferi-Fraxinetum excelsioris*, Lizardi eta baso mistoak.
3. *Tamo communis-Quercetum roboris*, Hariztiak.
4. *Melampyro pratensis-Quercetum pyrenaicae*, Ameztiak.
5. *Saxifrago hirsutae-Fagetum sylvaticae*, Pagadi azidofiloak.
6. *Carici sylvaticae-Fagetum sylvaticae*, Pagadi basofiloak.

(Iturria: *El libro rojo de los bosques españoles*, Adena WWF, 1989, 29. or.).

Pentsa daiteke ere, gaztaina, makal eta intxaur, urritz, gerezi, sagar eta antzeko fruitarbolen agerpena, garai berriagoetakoa dugula.

## 2.2. Gizakiaren lehen eraginak

Neolitoan, lehen artzainak izan ziren, suaren bitartez, Aralar eta Urbiako zenbait eremu beren artaldeentzat larre bila gorritzen hasi zirenak, bertako eraikuntza megalitiko ugariak adierazten digutenez.

Mendeetan aurrera, luberriak behar zituzten nekazariak jarraituko zioten basoaren narruketari. Honela, Trikuaitzi (Beasain) eta Bidaarte (Idiazabal- Zegama) tumuluetan aurkitu diren Eneolito eta Brontze-Aroko aizkora sendo eta gogorak:

«Tresna hain sendo eta espezialduak hain maiz aurkitzeak, baso-botatze lana garrantzitsua zela pentsa erazten du, ziurraski soilune edo zuhaitzik gabeko eremu zabalak lortzearen eginak laborantzarako edo aziendak larratzeko.» (4)

(4) MUGICA, J.A.: «Gizakiaren lehen aztarnak Goierriin», in *Beasain, udalerrri baten historia*, 165. or., Beasain, 1987.

### 2.3. Erdi-Arotik aurrera

Feudalismo Garatuaren (1450-1880) garaian, J. Caro Barojak lau eremu bereizten ditu euskal isuralde atlantiarreko egitura produktibo eta bizimoldeari dagokionean: itsasoa, ager, silva eta saltus.

Goierri, gehienbat saltus-era egokitzen zen, hau da, ikazkintza eta untzigintzarako egurdun basoak eta meategiak kokatzen zireneko eremura.

### 2.4. XVIII. mendean

Nola halako lehendabiziko datuak 1784ean Espainiako «Marina Real»ak bultzaturiko baso-inbentariotik lor ditzakegu.

«Marina Real»ak beti izan zuen arreta berezia basoen zainketan jarria, bere untiak egiteko beharrezkoa zen egur-materiale gehiena bertatik eskuratzen bait zuen.

Arreta honen ondorioetako bat, 1748ko Urtarrilaren 31ko mendien Erret Ordenantza Orokorra gauzatzea izan zen. Ordenantza honen LXV. atalaren arabera, hauek lirateke «Marina Real»arentzako interesdun zirelako, bisitaldiak jasoko lituzketen jurisdizio goierritarrak:

«(...) en la Provincia de Guipúzcoa las jurisdicciones de (...) Gaviria, Segura, Zegama, Ydiazabal, Ataun, Legorreta, Ychasondo, Villafranca, (...) Beasain, (...)» (5).

Beraz, aipamen hauek, udalerrri hauetan kontutan hartzeko nolabaiteko baso-aberastasuna bazegoela adierazten digute.

1784ean, «Marina Real»ak Estatuko baso guztien inbentarioa egitea agindu zuen. Gipuzkoari dagokionez, bertako Foru Aldundiak hartu zuen bere gain lan hau, urte hartan bertan burutuz.

Basoen egoerari buruzko txosten hauek balio haundikoak ditugu, ez bait daukagu garai hartako beste inongo daturik.

Aldundiak, udalerrri bakoitzari bere basoei buruzko txostena bidaltzeko agindu zion, kasu honetarako prestatu zen formulario bat jarraituz. Formularioan, udalerrri bakoitzean zeuden zuhaitzen kopurua, hauen ezaugarriak, adina, espeziea, etab. eskatzen ziren.

Inbentarioaren emaitzak (6), zuhaitzen kopuruetan ematen dira, zuhaitz-espeziea eta kalitatea adieraziz. Kalitatea hiru mailatan zatitzen da:

- Gazteak.
- «Sazonados» edo adin erabilgarrian zeudenak.
- Zaharrak.

(5) «Real Ordenanza de 31 de enero de 1748»ren transkripzioa, in MUTILOA POZA, J.M.: *El monte y el viñedo en Vizcaya a mediados del siglo XIX*, Apéndice I, 144. or., Estudios Vizcaínos aldizkaria, 9-10 zk., Bilbo.

(6) Ikus MUTILOA POZA, J.M.: *Guipúzcoa en el siglo XIX*, 48. or. C.A.P., Donostia, 1981.

**ZUHAITZONDOEN KOPURUA GOIERRI ESKUALDEAN 1784EKO  
INBENTARIOAREN ARABERA**

Herria	Haritz kopurua			Pago kopurua		
	Gazteak	Erabilg.	Zaharrak	Gazteak	Erabilg.	Zaharrak
Altzaga	5.574	59	337	3	—	—
Arama	6.727	95	76	1	25	—
Ataun	12.000	12.000	1.600	674.670	341.340	17.600
Beasain	30.593	3.069	44.543	100	1.000	75.530
Enirio-Aralar	24.701	7.520	1.300	1.500.000	1.000.000	500.000
Ezkio-Itsaso	24.701	7.520	1.300	452	352	—
Gaintza	—	1.030	6.035	—	—	—
Gabiria	26.081	19.609	34.214	—	—	3.336
Idiazabal	1.138	21.469	4.284	210	80	124
Itsasondo	26.466	402	10.332	359	—	21.934
Lazkao	39.240	200	3210	500	—	—
Legorreta	25.190	26.299	1.041	32.772	45.635	150
Mutiloa	16.544	7.439	310	—	—	—
Olaberria	36.000	500	8.000	160	24	—
Ordizia	38.005	1.136	40	—	—	—
Ormaiztegi	10.049	14.497	532	—	—	—
Segura	48.567	3.697	65.807	49.488	15.623	4.121
Zaldibia	16.315	17.752	3.710	2.321	1.379	100
Zerain	5.800	28.200	9.100	—	—	—
<b>DENERA</b>	<b>393.691</b>	<b>172.493</b>	<b>195.771</b>	<b>2.261.036</b>	<b>1.405.458</b>	<b>622.895</b>

*It.*: Mutiloa Poza, J.M. (9).

Dirudienez, Abaltzisketa, Zegama eta Urbiako Partzuergoaren txostenak falta dira.

Badira, bestalde, zenbait puntu argitu beharrekoak inbentario honen gainean, bere fidagarritasun eta interpretatzeko moduari dagozkienak:

- a) Orokorki, inbentarioa egiteko metodologia bera fidagarritasun eskasekoa da:
  - Zuhaitzondoak banaka zenbatzerakoan, asko direnean errakuntza haunditu egiten da.
  - Adinaren araberrako zatiketa, erizpide bereberekin burutzea oso zaila gertatuko zen, udalerrri bakoitzak bere txostena egin bait zuen.
- b) Herriaren beharretarako (etxe eta baserrien eraikuntzarako, burdinolen hornikuntzarako, ...) joa zuten materiala ez zen inbentarioan sartu.
- c) Seguruenik, udalerrriek mesfidantzaz jokatu zuten, eta beren errekurtsioak azpitik jo zituzten.

Ondorioz, garai hartako basoen egoera ezagutzeko gutxi gorabeherako bide bat besterik ez dugu izango honako hau.

Zuhaitzondoaren kopurua ez da oso esanguratsua, udalerrriaren azalerarekin parekatua edo nolabait erlazionatua ez baldin badaukagu. Hau lortzeko, eta J. Askasibarrek Gipuzkoa mailan datuak kalkulatzeko erabili zuen metodoaren ara-



## 2. Taula

**ZUHAITZONDOEN KOPURUA GOIERRI ESKUALDEAN 1784EKO  
INBENTARIOAREN ARABERA**

Herria	Gaztainondo kopurua			Besteen kopurua (*)		
	Gazteak	Erabilg.	Zaharrak	Gazteak	Erabilg.	Zaharrak
Altzaga	237	9	4.085	89	43	1.052
Arama	3.965	2	500	906	—	700
Ataun	4.000	50	7.000	809	134	1.200
Beasain	3.354	304	25.277	162	441	92
Enirio-Aralar	—	—	—	—	—	—
Ezkio-Itsaso	6.584	1.926	130	2.295	345	70
Gaintza	—	—	—	287	137	1
Gabiria	5.212	776	12.106	4	1	1.246
Idiazabal	2.050	8.698	4.230	50	77	—
Itsasondo	2.747	—	9.894	1.694	53	1.232
Lazkao	8.448	—	2.600	691	63	153
Legorreta	4.451	24.850	8.831	741	800	—
Mutiloa	1.314	8.679	996	146	—	—
Olaberria	7.000	—	8.000	415	41	420
Ordizia	4.831	2.807	680	504	—	—
Ormaiztegi	2.737	7.591	1.700	79	10	—
Segura	1.700	—	10.400	—	—	—
Zaldibia	7.272	2.630	8.269	767	556	377
Zerain	2.000	3	9.297	412	306	418
<b>DENERA</b>	<b>67.902</b>	<b>58.325</b>	<b>113.995</b>	<b>10.051</b>	<b>3.007</b>	<b>6.961</b>

It.: Mutiloa Poza, J.M. (9).

(\*) Besteak: intxaurreondo, lizar, arte, zumar, gereziondo, lertxun, sagarondo eta pinuak.

bera (7), bi bide jarrai daitezke. Biak dira oso arriskutsuak, baina ez dute beste trataerarik onartzen:

1. bidea: adinaren arabera, ondozko gazteentzat 400 ondozko/ha. dentsitatea suposa daiteke, 325-300 ondozko/ha. helduentzat, eta 100-150 ondozko/ha. zaharrentzat.
2. bidea: aldiz, espeziea hartzen badugu kontutan, honako dentsitate hauek suposa daitezke, batzbeste:
  - 277 ondozko/ha. hariztientzat
  - 200 ondozko/ha. gaztainadientzat
  - 325 ondozko/ha. pagadientzat
  - 250 ondozko/ha. gainontzekoentzat

Bi bide hauetatik lortutako emaitzen batzbestekoa egiten badugu, udalerriz udalerriz zenbaterainoko baso-sailak genituen jakin dezakegu, lehen aipatu ditugun oztopoak oztopo (8).

(7) ASKASIBAR, J.: *Los montes en Guipúzcoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, argitaragabea, 1978.

(8) Ik. SARRIEGI, Mikel: *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*, Gipuzkoako itsas-museorako zenbait apunte, 19. or., Argitaragabea, 1990.

(9) *Guipúzcoa en el siglo XIX*, 48. or., C.A.P., Donostia, 1981.

### 3. Taula

#### GUTXI GORABEHERAKO BASO-AZALERAK GOIERRI ESKUALDEAN 1784EAN

HERRIA	Azalera (ha.)	Basoa (ha.)	Basoa (%)
Altzaga	160	50	31
Arama	136	46	34
Ataun	5.880	3.144	43
Beasain	3.002	868	29
Enirio-Aralar	3.443	3.443	100
Ezkio-Itsaso	2.126	152	7
Gaintza	582	1	0
Gabiria	1.476	437	30
Idiazabal	2.959	167	6
Itsasondo	999	323	32
Lazkao	1.162	189	16
Legorreta	861	577	67
Mutiloa	857	123	14
Olaberría	687	230	33
Ordizia	573	155	27
Ormaiztegi	674	133	20
Segura	923	772	84
Zaldibia	1.679	232	14
Zerain	1.057	225	21
<b>DENERA</b>	<b>29.236</b>	<b>11.267</b>	<b>39</b>

Egileak landutakoak, J. Askasibarren metodoa erabiliz.

Ohartu behar da ere, emaitza hauek lortzeko erabili diren udalerrien azalera gaur egun dituztenak direla. Beraz, 1784etik hona azalera horiek ez direla aldatu suposatuta behar izan dugu.

1., 2. eta 3. taulatan ikus daitezke datu guzti hauek, mapa erakusgarri bat ere egin delarik (Ikus 2. irudia).

Nahiz eta datuoi emandako trataera nahiko arriskutsua izan, lortutako emaitza (% 39) nahiko arrazoizkoa da, garai hartako Gipuzkoako baso-azalera % 25ean kalkulatu bait dago (10). Ez da astakeria, Goierri bezalako eskualde menditsuan azalera hau haundiagoa zela suposatzea.



#### 2.5. Basoen atzerakada bortitza

Ikusten denez, mendien gorriketa erabat aurreratua zegoen dagoeneko XVIII. mende honen azkenaldean. Basoen desagertze-bilakaera honek aurrera jarraituko zuen, nahiz eta egiten ziren haritz eta gaztainondoan landaketek joera hau neurri batean leundu.

Atzerakadaren eragile nagusiak zeintzu diren azter dezakegu jarraian (11):

(10) ASKASIBAR, J.: *Los montes en Guipúzcoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, argitaragabea, 1978.

(11) Ik. ASKASIBAR, J.: «Historia Forestal del País», 60. or., *Mendiak* Saila 1. alea, Etor. Donostia, 1981.



2. irudia. Basoen azalera Goierriin, 1784. (Egileak landutakoa).

#### a) Burdinolak

XVII, XVIII eta XIX. mendeetan garrantzi haundiko bihurtu zen ika-tzegurraren kontsumoa, basoetan sarraski galantak eragin zituena. Goierri era berezian pairatu zituen pago-egurraren (batez ere), gehiegizko ateratzeak. Izan

ere, gure basoetan egur ugari, eta Zerain eta Mutiloako burdin-meategiak genituen. Honek bultzatu zuen Beasaingo Igartza, Olaberriako Iurre eta Lazkaoko Iribe bezalako burdinolen agerpen eta indartzea.

Adibide gisa, Beasaingo Igartzak, urteko 1000-1500 Kintale Metrikoen arteko burdin ekoizpena zuen (12). Datu honetatik atera daiteke, urtero 656 ha.ko baso-azalera moztu behar zela aipatu burdinola hori egurrikatzez hornitu ahal izateko. Goierriko pagadi gehienak, Aralar eta Lizarrusti-Otzaurtekoak ezik, ikazkintzak eragindako pagamotzez osatuak daude.

#### *b) Nekazaritza*

Biztanlegoa haunditzearekin bat, zekale eta larreen beharra areagotu egiten zen. Honela, artoaren iritsierak luberriketa berrietara behartu zuen goierritar nekazaria, basoen kaltetan.

#### *c) Gehiegizko artzantza*

Mendietan kalte larriak sortu ditu gehiegizko larretzeak. Honela, Getariko Batzar Nagusiek, 6. Batzarrean erabaki hau hartu zuten 1776ean: Probintzi barruko edozein tokitan aske larratu zezaketela artaldeek eguzkitik eguzkira. Jokabide honek galera izugarriak ekarri zituen mendientzat, nahiz eta geroago, kalte hauetaz kontu egin eta abereentzat mugak izendatu eta artzantza arautu zuten.

#### *d) Untzigintza*

Betidanik atera izan da egurra Goierritik itsasertzeko untzitegiatarako, «Marina Real»ak bertako basoak aipatzen zituelarik, lehen ikusi dugun bezala.

#### *e) Inaurkinen ateratzea*

Antzinatik atera izan dira bai ganaduaren azpiak egiteko orbel, garo, ote eta bestelako gaiak, bai bere jatenarentzako kimatzen ziren hostoak ere. Ekintza hauek, kaltegarriak gertatzen dira, baso-inguruaren txirotzea bait dakarte.

#### *f) Lege desamortizatzaileak*

Kasu askotan, inbertitutako diruak presaka berreskuratzeko asmoz, desamortizazioak zirela medio jabego pribatura pasa ziren mendiak, denbora laburrean ustiatu eta garbituak izan ziren.

---

(12) Ik. GOZALO, J.J.; LOPEZ, M.A.; URTEAGA, M.: «Burdinoletatik fabriketara», in *Beasain, udalerrri baten historia*, 89. or., Beasain, 1987.

### *g) Haritza eta gaztainaren gaitzak*

1870etik 1920ra baso-aberastasunaren desagitean parte hartu duen beste faktore bat da. Garrantzi haundikoak ziren harizti eta gaztainadiak, bai egurra eta bai ematen zituzten fruituengatik. Baina behar ez bezala inausteak, eraikuntzarako ondozko bikainenak ateratzek, eta ondorioz, mendian kaxkarrenak uzteak, gaitzei ateak ireki zizkien arboladiaren ahultze bat bultzatu zuten. Gaztainaren tinta eta haritzaren hauts zuria edo oidium-ak sekulako sarraskia burutu zuten oso epe motzean.

### *h) Baso erreketak*

Artzantzarekin bat egiten duen aktibitatea da hau, abeltaldeentzat larre berri eta xamurraren atzetik egiten zena. Honela, 1907an, Gipuzkoako «Comision Provincial» zelakoak, baso-jaztea ziurtatu bitartean, erretako mendietan larreketa debekatu behar izan zuen.

## **2.6. XX. mendeko baso-iraultza**

XX. mendean nolabaiteko «baso-iraultza» gertatzen da, bai Goierri eta bai Gipuzkoa osoan. Iraultza honen ezaugarri nagusia mende hasieratik 50.eko hamarkadararte eman zen baso-sartzeen ugalketa izango da. Garapen hau, bat egiten duten bi gertaeren emaitza izango da:

- Foru Aldundiak mende hastapenean martxan jarri zuen baso-sartze politika, Gerraondoan «Distrito Forestal» eta «Patrimonio Forestal» delakoek jarraipena eman ziotelarik politika honi. Hostozabaldun basoen atzerakada larriak eta alferrik zeuden otalur-sail zabalen esistentziak kezkatuta, espezie kanpotarren (koniferoak gehienak) erabilera bultzatu zuten zuhaitz-aldaketetan.
- Probintziaren industrialitze eta urbanizatze aurrerakorra, zeinak basoaren eginkizunaren aldaketa bat ekarriko duen landa-espazioaren barruan. Nekazaritzaren espezialtzeak eta modernizatzeak, nekazal eremuaren gutxitzea, eta ondorioz, baso-sailen zabaltzea onartuko du. Bestalde, industrialtzeak baso-gaien eskaera haundituko du eta intsinis pinuaren aldaketak inbertsio erakargarri bihurtuko dira baso-jabeentzat.

60.eko hamarkadako industri-eztandak abiadura haundituko dio garapen honi, eta noranahi hedatzen diren pinu-aldaketa hauek, Goierriko paisajea sakonki itxuraldatzeraino iristen dira.

## **2.7. Gaurko egoera**

Aurreko eragile eta gorabehera guztien ondorio da gaurko gure basoen egoera. Gaurko egoera honen berri izateko, iturri ezinobea dugu 1986ko E.H.K.A. 20

Baso-inbentarioa (13), hurrengo datu guztiak inbentario honetatik atereak direlarik.

### 2.7.1. Lur-azalaren erabilera

Goierriko azalaren 38.689 ha.k honela banatzen dira erabileraren aldetik:

Erabilitako Nekazal Azalera .....	7.112 ha.	% 18,38
Sastrakadia .....	1.987 ha.	% 5,13
Lur alferra .....	831 ha.	% 2,15
Erabilera mistoa .....	2.131 ha.	% 5,51
Baso zuhaiztua .....	26.627 ha.	% 68,82

Ikusten denez, basoen azalera oso garrantzitsua dugu gaur egun, orain 200 urtekoaren ondoan behintzat. Hau, basogintzak gure eskualdean duen ala izan behar lukeen pisuaren adierazgarria da.

Bere aldetik, «Baso zuhaiztua»ren egoera erakusten digun taula hau daukagu:

Sabia .....	963 ha.	% 3,62
Landarea .....	1.611 ha.	% 6,05
Txaraka .....	4.077 ha.	% 15,31
Tantaia .....	18.600 ha.	% 69,85
Soildua .....	1.105 ha.	% 4,15
Zaparrak .....	47 ha.	% 0,17
Urbazterrekoak .....	224 ha.	% 0,84

Esan daiteke, beraz, basoa balio onekoa dela, gehienbat tantaiez osatua baitago.

### 2.7.2. Jabegoa

Jabegoari begira, gehiengoa partikularrei dagokie, basoen antolaketa eta kudeaketan honek duen eragina kontutan hartzekoa delarik:

Aldundiarenak .....	132 ha.	% 0,34
Herribaso kontsorzio-gabeak .....	5.899 ha.	% 15,85
Herribaso kontsorziodunak .....	511 ha.	% 1,32
Partikularrak .....	31.913 ha.	% 82,49

(13) EUSKO JAURLARITZA: E.H.K.A.ko 1986ko Baso-inbentarioa, Gasteiz, 1988.

Badira Goierriin jabegoari dagokionez izaera bereziko bi Mankomunitate erako mendisail: Enirio-Aralarkoa eta Urbiako edo Gipuzkoa-Arabako bi Partzuergoak. Mendi-sail hauetan, Goierriko lurralde altuenak direlarik (1.000 mtik gora orokorrean), basoa eta artzantzarako larrelekuak elkar harremanetan bizi izan dira mendeetan zehar, bereiztasun oso interesgarriak dituztenak eta gaur egun ere gatazkak sortzen jarraitzen dutenak.

### 2.7.3. Espeziekako banaketa

Espezien banaketa aztertzen badugu, koniferoen nagusitasuna nabarmena da, eta hauen artean intsinis pinuarena. Hostozabalen artean pagoa da ugariena; haritzaren eskasia, berari zegozkion sailak pinudiek, nekazaritzak eta eremu hiritarrek hartu izanari zor zaio:

Intsinis pinua .....	13.234 ha.	% 49,7
Alertzea .....	1.882 ha.	% 7,1
Larizio pinua .....	1.641 ha.	% 6,2
Douglas izeia .....	554 ha.	% 2,1
Pinu gorria .....	139 ha.	% 0,5
Beste koniferoak .....	298 ha.	% 1,1
<b>DENERA KONIFEROAK .....</b>	<b>17.757 ha.</b>	<b>% 66,7</b>
Pagoa .....	6.057 ha.	% 22,7
Haritza + Pagoa .....	847 ha.	% 3,2
Haritza .....	629 ha.	% 2,4
Haritza + Hostozabalak .....	290 ha.	% 1,1
Gaztaina .....	152 ha.	% 0,6
Artea .....	124 ha.	% 0,5
Haritz amerikarra .....	118 ha.	% 0,4
Beste hostozabalak .....	469 ha.	% 1,7
<b>DENERA HOSTOZABALAK .....</b>	<b>8.686 ha.</b>	<b>% 32,6</b>
<b>BASO MISTOA .....</b>	<b>184 ha.</b>	<b>% 0,7</b>
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>26.627 ha.</b>	<b>% 100,0</b>


Bada beste inbentario bat, ICONAk Gipuzkoari dagokionean 1971an burutua, baina ez dakar Goierri mailako daturik. Dena dela, ikus daiteke 1971tik 1986ra Gipuzkoan ez dela espezien arteko azaleren diferentziarik eman apenas, gorabehera txiki batzu besterik.

## 2.8. 1784 eta 1986ko egoeren arteko konparaketa

1784ko inbentarioaren nola halako datuei egin diegun interpretapenari esker, hauek 1986ko inbentarioaren emaitzei parekatzeko aukera interesgarria daukagu, baldin eta zenbait puntu gogoan hartzen baditugu:


- a) Bata, 1784ko datu haiek, beste zehatzago batzuren faltan, gutxi gorabeherako informazioa eskaintzen digutela, eta ezin har ditzakegula modu zorrotzean. Honela, «besteak» zatia bereziki azpibalaratua dago inbentarioan.
- b) Beste bat, Abaltzisketa, Urbia eta Zegamako datuak falta ditugula 1784erako. Beraz, konparaketa zuzen bat egin ahal izateko, hiru gune hauetako basoen egoera beste guztien arteko batzabestearen berbera zela pentsatu beharko dugu. Hau dela eta, datu guztiak portzentaietara pasako ditugu.
- c) Azkenik, espeziekako sailkapena ez da berdina bi inbentarioetan. 1986ko sailkapena 1784kora egokitze-bidean, zera egin dugu:
  - Haritzari, «Haritza + Pagoa» eta «Haritza + Hostozabalak» multzoen erdia gehitu.
  - Pagoari, «Haritza + Pagoa» multzoaren beste erdia gehitu.
  - Koniferoak, denak bat egin.
  - Gaztaina, bere hartan utzi.
  - Gainerantzeko guztiak, «besteak» multzoan sartu.

Honenbestez, datuak irudikatzen dituzten bi grafiko eraiki dira, garbiago azter ahal ditzagun (1. eta 2. grafikoak).



1. grafikoa. Goierriko lur-azaleraren erabilera 1784ean. (Egilearena, 1784ko inbentarioan oinarrituz).





2. grafikoa. Goierriko lur-azaleraren erabilera 1986ean. (Iturria: E.H.K.A.ko 1986ko Baso-Inbentarioa).

Argitu behar da, «zuhaiztu gabea» atalaren barruan sartzen direla, bai nekazal lurrak, bai sastrakadiak, lur alferrak eta erabilera mistokoak ere.

Badira, konparaketa honek isur ditzakeen ondorioen artean, aipatzea merezi duten hainbat puntu:

- A) Lehenik eta behin, azken 200 urte hauetan, basoen azalera ia *bikoiztu* egin dela ikus dezakegu, % 31tik % 61era pasa bait da. Gehikuntza hau, noski, zuhaiztu gabeko azalaren bizkarretik egin da, hau da, basoek nekazal lurrari eta sastrakadiari jan dizkiete lurrak.
- B) Basoen azalera bikoizketa hau, *kanpotar* koniferoen erabilerearen bitartez lortu da, bertako zuhaitzez osatutako sailek atzeraka egin duten bitartean. Gaur egun, Goierriko basoen % 66 inguru dira konifero-sailak.
- C) Hostozabalen artean jetsiera erlatibo haundiena jasan duen espeziea, inongo zalantzarik gabe, *gaztainondoa* izan da, berrehun urte hauetan % 87an gutxitu baita estaltzen duen azalera.
- D) Bi hostozabal nagusiei dagokienez, hau da, pagoa eta haritza, bien artean % 34a inguru suposatetik, % 20ra pasa dira, *beherakada* nabarmenena haritzarena izanik (% 9tik % 3ra).



### 3. BASOGINTZAREN BILAKAERA

Goierriko basoen egoerari buruzko ikustaldia egin ondoren, zera esan dezakegu, alegia, basogintzak izan zuela eraginik baso-egoera horretan; eta ordainez, baso-egoerak ere bazuela, eta duela, zerikusirik egiten den basogintzan.

Ez dira inondik ere berdinak, gaur egun pinudietan egiten diren baso-lanak eta orain mende batzuk pagadietan egiten zirenak.

Orain arte, basogintza kontzeptuak izaera ekoizlea bakarrik zuen kontutan. Basoen helburu ia bakarra gizakia zenbait gaiz hornitzea zen; hala nola, zura, suegurra, fruituak (gaztainak, ezkurak, ...), ganaduaren azpitarakoak, ganajatenak, ikatzegurra, etab.

Baserritar orok egin du beti nolabaiteko basogintza, bere bizimodua superbizitzarena zen neurrian askoz gehiago egin ere.

Dena dela, azken mendeetan, eta gauden honetan batez ere, aipatu dugun baso-iraultza dela bitarte, basogintzarekin zerikusirik zuten lanbideak espezialdu egin ziren. Honela sortu ziren basomutilak edo basogizonak (baso-botatzearen eginkizuna zutenak), itzainak (baso-ateratzea lanbidetzat zeukatenak), zerrariak (basoko egurra tabloi eta antzeko gai transformatuetan eraldatzen zutenak), ikazkinak (egurrikatz egileak), zestagileak (otargintzan zihardutenak), untzigileak (untzigintzarako lan egiten zutenak), ...

Jarraian, silbikultura edo oihanlantza ohizkoaren (hau da, basoa ekoizle hustzat hartuz) barruan lekua izan duten lanbideak aztertuko ditugu.

#### 3.1. Baso-sartzea eta zainketa

Ikusi dugu, urte eta mendeetan zehar, hasi burdinoletarako ikatzegurraren beharrak eta gero untzigintzarako zuhaitz-botatzeak eraginik, Euskal Herriko basoek sekulako gorritzea jasan zutela. Honen aurrean, hariztiak bere onean eta behar zen ugaritasunean mantenduko zituen neurriak hartzea premiazkoa eta ezinbestekoa suertatu zen. Neurri hauen artean, baso-sartzeak eta baso-zainketa ulertzen dira.

Lan hauek ez dira langile espezialduen eskutan egon, baizik eta tokian tokiko lur-jabeen ardurapean.

Dena dela, untzigintzarako ustiatzen ziren hariztiei dagokienez, eta espainiar erregeek alor horretan zituzten interesak direla medio, jakin badakigu, 1547. urtean Doña Juana eta Don Carlos erregeek agindu zutena:

«...el que en Guipúzcoa y Vizcaya corte un árbol, ponga o plante dos previamente...». (14)

Ez dakigu agindu honi jaramonik egin ote zitzaion ala ez, baina 1548an, Gipuzkoako Batzar Orokorrek erabaki hauek hartu zituzten (15):

- Botatzen zen zuhaitz bakoitzeko bi edo gehiago aldatu behar zirela.
- Egurrikatzetarako ezin zen zuhaitzik bota, burumoztu baizik.
- Kontzeju bakoitzak 500 haritz eta gaztainondo aldatu behar zituela urtero, harik eta probetxugarri ziren lur-sail guztiak basotu arte.

1563ko maiatzean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Cuatro Villas-eko Korrejidoreek, untzigintzarako ziren hariztien aldaketa-lanetarako arreta haundiagoa eskatzen zien erret dekretu bat jaso zuten. Dekretu honen arabera, zuhaitz-aldaketa eta hariztien zainketan eman zen ezaxolagabekeriagatik egin zuen behera untzigintzak, eta itsasertzetik edo ibai nabigagarrietatik bi legoatara zeuden herri eta jurisdikzio guztietan zuhaitz-kopuru bat aldatzeaz arduratu behar zuten.

Ez deritzogu bide okerrekoa, gorabehera eta zertzelada hauek Goierrri eskualdean bere zerikusia eta eragina ere izan zutela suposatzeari.

1748ko urtarrilaren 31an, D. Zenón Somodevilla y Bengoechea, Ensenadako Markesak, Fernando VI.aren Ministrari zelarik, Mendi eta Mintegien Ordenantza Orokorra bultzatu zuen. Ordenantza hau balio haundikoa zaigu garaiko basogintza, teorikoa besterik ez bada ere, ezagutu eta aztertzeke. Hara zer dioen Erich Bauer-ek honen gainean:

«Cada lugar tenía la obligación de cuidar sus montes con esmero. (...) Los fueros se derogaron y quedaron sustituidos por esta ley de 1748, con la excepción de Guipúzcoa y Navarra, para cuyas provincias se dictaron en los siguientes años leyes especiales, basándose en los viejos fueros, tan acreditados, sobre todo en la Ordenanza de la Hermandad de Guipúzcoa de 17 de setiembre de 1457, una de las primeras y mejores de su género en Europa.» (16)

Baso-sailen jabe zirenen artean, ohizko langintza izan zen *mintegiak* edo *muttegiak* (Goierrin esaten zaien bezala) egitea. Gehienbat, haritz eta gaztainondo mintegiak egiten ziren, haren materiala eta honen fruitu joriagatik batez ere. Honetarako, lur oneko eta babesean zegoen gunea bat aukeratzen zen. Zenbait kasutan, iparraldeko haizeetatik gordetzearren harresi bat egiten zitzaion mintegiaren alde horri. Itxura honeko zuhaitzen ezkur edo gaztaina-ale sendo eta

(14) BAUER, E.: *Los montes de España en la Historia*, 54. or., Ministerio de Agricultura, Madrid, 1980.

(15) Ik. BARKHAM, M.: «La construcción naval en Zumaya, 1560-1600», in *ITSASOA* bilduma, 3. liburukia, 234-274. or., Etor. Donostia, 1984.

(16) BAUER, E.: *Los montes de España en la Historia*, 59. or., M. de Agricultura. Madrid, 1980.

osasuntsuak aukeratu, eta udazkenean ondeatutako lurlean ereiten ziren negu inguruan.

Mintegiak zaindu egin behar ziren, ongarrria emanaz, belarrak eta sasiak garbituz, bakanduz, etab.


Landareak birraldatu ondoren, ala ez, luzera eta lodiera jakin bat hartzen zutenean, mendian nahi zen tokian aldatzeko prest zeuden.

Aralar inguruko eta Lizarrusti-Otzaurteko pagadiak baso garai edo tantaiddi moduan tajutu eta ustiatu izan dira, hau da, egurra atera behar zen bakoitzean zuhaitza ipurditik bota, eta bere lekua, bertan etorritako ala mintegitik ekarritako landareek betetzen zuten. Baso hauek pagolizarrez osatuak dira.

Goierriko gainontzeko basoetan ordea, euskal isurialde atlantiar guztian bezala, modu edo trataera nahiko berezia erabili izan da: *burumotz-basobera*, hain zuzen ere («monte bajo tratado por trasmochos», «taillis sur têtards»). Basoaren eraketa hau, bertako baserritarrek zituzten behar guztiak asebetetze nahiri zor zaio, basoak ganaduarentzat elikagaiak, suegurra, egurrikatza, zura eta beste gai batzuk eman behar bait zituen.

Eraketa honetan, zuhaitzak tarte haundiaz aldatzen ziren eta 2,5 ala 3 metrotan burumozten ziren. Mozketaren ondorioz, zuhaitzari osatzen zitzaion *buru*, *moskor* edo *enborretik* gero *buruadarrak* bihurtuko ziren altzuma ugari sortzen zitzaizkion (ikus 3. ird.). Buruadar hauek dira aldika aldika moztu eta ustiatzen zirenak.

Era honetara, zuhaitz burumotza zuhaitz mistotzat har dezakegu: alde batetik tantaiaren ezaugarriak ditu, gerria hazitik sortutakoa eta materialetarako bait zen; eta bestetik, txara izaera dauka, buruadarrak basoberaren moduan eta epetan mozten bait zaizkio, zepako adarrak bailiran. Gainera, zuhaitza luzera horretan burumoztean, adar-kimu berriak ganaduaren aho menetik urruntzen ziren.



3. irudia. Zuhaitz burumotza. (Iturria: Sarrigi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, 1989).

Burumotz-basobera trataera honetan, mozketak bi erataraz egin zitezkeen: aldiko, buruadar erdiak moztuz, ala aldiko, bueltan 25 zm baino gehiago zirenak bakarrik moztuz, gainerantzekoak bertan utziz. Mozketa-aldiak bederatzi, hamar ala hamabost urtero egiten ziren.

Pagoak, haritzak eta gaztainondoak ziren gehienbat trataera hau jasaten zutenak. Baserri, borda eta sarobe inguruetako lizarrak ere ikus daitezke burumoztuta, ganaduari hostoak jaten emateko kimatzen bait ziren.

Hemen azaldu ditugun basoaren bi trataera hauek, badute bere islada lexicografikoa ere. Beste hizkuntzetako (espainiera eta frantsesak behinik behin) baso-terminologiek ez bezala, Goierriko euskarak trataera bakoitzari zegozkion zuhaitz-erak bereizten ditu, ohizkoenak ziren espeziatan. Honela, *pagomotza* eta *pagolizarra* dauzkagu, *gaztainondoa* eta *gaztain-txertaka*, *haritza* eta *haritz-tan-taia* (17).

Goierri aldean ere oso zabalduak izan dira otargintzarako materiala emateko xedea zuten txara-sailak, edota txarakak. Eskuarki gaztainarenak izaten dira, eta 5-7 urtez behin (Matxinbentan) jo edo moztzen ziren zepatik. Askotan, hauetako sail bat bota ondoren ermetzen ziren altzuma berriei ganaduak kalterik egin ez ziezaien, *unantzi* (18) izeneko mutil gazteak jartzen ziren ganadu-zainketa lanetan.

Aurretik esan dugun bezala, mende honetan kanpoko koniferoen sartzekak hasi eta ugaltu ziren gure eskualdean. 1953an dagoeneko, Zegamak 511 ha. eta Gabiriak 421 ha. zituzten koniferoez jantzita (19). Goierri mailan, 4.284 ha., hau da, lurraldearen % 12,6a zen koniferoei zegokiona.

Pinu-sartzeek, basoaren ustiapen-modu berri bat suposatzen dute, nekazal-espazioaren menpean egoteari uzten bait dio, eta adiera berri bat hartzen. Lehen lehenik, basoaren ohizko ustiapen-moldeekin batere zerikusirik ez duten berarizko teknikak eskatzen dituelako. Eta bigarrenik, pinu eta beste koniferoen aldaketak, jabeari etxeko ustiapenean lortutako baliabideak indartzen dituen diru-sarrera bat eta aurrezteko bide bat suposatzen duen epe luzeko inbertsio interesgarria direlako. Honenbestez, baserriar munduaren lorpen garrantzitsutzat har daitezke, industri-hiritar munduak ezarritako bizitza-baldintza berriei aurre egin ahal izateko.

Zuhaitz espezie exotiko hauekin egin diren baso-sartzeak, zorrozki begiraturaz gero, nolabaiteko monokultibotzat har daitezke, beste labore bat gehiago bait dira, noski, mendian egiten den labore berezia.


Bada, azken urteotan Goierriin, eta Zegama inguruan batez ere, asko zabaldu den baso-ustiapen mota berri bat, basogintza eta nekazalgintzaren artean kokatu daitekeena, eta errentagarritasun handia eskaintzen duena: gabon-zuhaitzen

---

(17) Matxinbentako Oto-barrena baserriko Juan Etxezarretarengandik jaso dugu, ondoren berriemaile gehiagok baieztatua. Ik. SARRIEGI, Mikel: *Basogintza-Terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, argitaragabea, Madril, 1989.

(18) Agustín Lasa (78 urte), Matxinbentako Zuñeta baserrikoak jakinarazitakoa (89-1-5). Ik. SARRIEGI, Mikel: *Basogintza-Terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, argitaragabea, Madril, 1989.

(19) GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: 1953ko Katastroaren Laburpena.



4. irudia. Pinu-aldaketa. (Iturria: Sarrigi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, 1989).

ekoizpena (20). Mintegiko landare gazteak (lau urtekoak) kanpotik ekartzen dira, soro eta zelaietan aldatu, eta bost urteren buruan salmentarako prest egoten dira. Gehien erabiltzen den zuhaitz-mota izei gorria (*Picea abies*) da.

Bukatzeko, ezin utz daiteke aipatu gabe, mende honetako basogintzaren arrakastaz aritzean, Goierriko baserri eta basozale askoren etxeetan aurki daitezkeen liburu bitxi bezain interesgarri bat, Aita Inozentzio Munita, Aramako Erretorearen *Gure Mendi ta Oianak*. Zuaizti berriak antolatu ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek.

Liburu hau, 1952. urtean Tolosan argitaratua da, eta euskaraz egoteaz gain, zeharo argigarria eta adierazpen dotorez jantzia dago. Mendi soilduak basotu eta zuhaitzez estali behar direla dio, behin eta berriz; eta era garbi, zuzen eta ulertterrezean ematen ditu hori gauzatzeko argibideak, bai eta gero sail zuhaiztu horiek zaintzeko araubideak. Zalantzarik gabe, basogintzazko eskuliburu erabatekoa, bikain eta ederra dugu bere garairako Aita Munitaren lana.

### 3.2. Baso-botatzea: egurraren lehen transformazioa

Basogintzan, lehen transformaziotzat hartzen da, zutik dagoen zuhaitz-egurretik hasita, botatzen den lekuan eragiten zaizkion lan guztiek osatzen duten prozesua. Beraz, botaketa, soilketa eta mozketa, zenbaitetan zuriketa ere egiten zelarik.

Lan horiek, Goierri nola egiten ziren azaltzea da atal honen helburua.

Baso-sartzea eta zaintzea mendien jabe zen edonork egin ohi zuen bezala, baso-botatzea ere baserriar orok egin izan du Goierri n, baina egon izan dira ordea, lanbidetzat hartu zutenak, edo zenbaitek oraindik esaten digunez, hartu beharrean aurkitu zirenak. Hauei esaten zaie *basomutil* edo *basogizon*.

(20) Ik. OTAZUA, F.: «Zegama y los árboles de Navidad», in *Euskadi Forestal/Euskadi Basogintza* aldizkaria, 21. zk., 4. or., Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederakundea, 1989.

INOZENZIO MUNITA  
ARAMAKO ERRETOREA



GURE MENDI TA OIANAK  
(NUESTROS MONTES Y BOSQUES)

*Zuzizti berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko*  
———— zuzenbide batzuek. ————



1952'garren URTEAN

---

TOLOSA'N • MUGERZA'REN MOLDIZTEGIAN




Bada beste langintza bat ere, basoa bota aurretik bete beharrekoa, eta *egurzale* deiturikoek egiten zutena, hau da, egurrak kubikatu edo neurtu, eta askotan ere, zein bota eta zein ez erabakitzen zutenak. Hauek, basoaren gorabeheren jakitunak izaten ziren. Badugu, Zumaian baldin bada ere, lanbide honen XVI. mendeko aipamenik (21): «bosquero» izeneko egurzaleek, unzigintzarako egokienak ziren egurrak aukeratu eta neurtzen zituzten mendian bertan.

Azertu dezagun bada, jarraian, basogizonek egiten zuten lana. Azalduko ditugun lan-moduak, hortan ihardun duten pertsonengandik jasoak izan dira zuzenean, Goierri esparruaren barruan. Kontutan izan behar da, arlo honetan ere, lan-teknikak aldatuz joan direla, eta hemen azalduko ditugunak, gehienik ere orain mende bat erabilitakoak direla. Ezin izan dugu atzerago egin, baina suposatuta daiteke aintzinagokoak ere ez zirela lan-modu hauetatik asko urrunduko.

### 3.2.1. Botaketa

Zuhaitzak botatzeko hasiera bateko erraminta aizkora izan zen inongo zalantzarik gabe. Hala erakusten digute Trikuaitzi (Beasain) eta Bidaarten (Idiazabal-Zegama) aurkitutako Eneolito eta Brontze-Aroko aizkora haundiek. Baina gero, zehazterik ez daukagun uneren batean, *trontza* edo *trontzerra* nagusitu zitzaion langintza honetan, harik eta motozerrak agertu ziren arte.



5. irudia. Aizkora eta bere zatiak. (Iturria: Sarricgi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, 1989).

Baliteke, trontzaren erabilera XIX. mendearen hasieran zabaltzea, 1803ko «Marinaren jurisdiziopeko Mendi eta Zuhaitzien gobernurako Erret Ordenantza»k egurra erreminta honen bidez botatzeko esaten baitu:

(21) Ik. BARKHAM, M.: «La construcción naval en Zumaia, 1560-1600», in *ITSASOA* bilduma, 3. liburukia, 234-274. or., Etor, Donostia, 1984.

«Significa un notable adelanto [ordenantzak] con sus ideas de (...) talar con sierra ...». (22)

Noiznahi ekarria izanda ere, ia gaurdaino erabili izan dute gure basogizonek.

### 3.2.1.1. Lan-sistema


Lan egiteko era honako hau izaten zen: aurretik *ondojoztailea* ibiltzen zen, hau da, zuhaitzen ipurdialdeak garbitu eta atzetik zetozen trontzalariak eragozpenik gabe zerran egin zezaten prestatzen. Langile hauek *ondojozteko aizkora* erabiltzen zuten, lehenago botatzeko erabiltzen zen aizkoraren berdina edo taina berekoa behintzat. Honen atzetik joan ohi ziren bi trontzalariak beren trontzerra hartuta.

Lan sistema hau bera da Iratiko basogizonek mende honen hasieran erabiltzen zutena ere, J.M. Arrizabalok kontatzen digun bezala:

«Gehienetan iru lagunka ibiltzen ginan. Arbola botatzen asterako, lenengo lana arbolari ipurdi-aldea garbitu edo txukundu piska bat bueltan. Gero trontzarekin bota, batean zerrera ta besteetan bera, lekuak nola zeuden. Trontzarekin rist-rast rist-rast bi lagun, alde bakoitzetik bana, aritzen ziran bitartean, irugarrenak beste arbola bati ipurdi-aldea txukundu;...». (23)

### 3.2.1.2. Botatze-sistema

Behin ondojota gero, hauek ziren botatzeko jarraitzen ziren pausoak (ikus 6. ird.):




6. irudia. Zuhaitz botaketa. (Iturria: Sarriegi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierrri eskualdean*, 1989).


(22) BAUER, E.: *Los montes de España en la Historia*. 66. or., Ministerio de Agricultura, Madrid, 1980.

(23) ARRIZABALO, J.M.; ZAVALA, A.: *Baso-mutillak*. 101. or., Auspoa. Tolosa, 1979.

- *Ezpal-sartua* edo *botatze-epaia* atera. Zuhaitza eraitsi nahi dugun norabidea emateko eta gerria ez pitzatzeko ipurdian egiten den koska sakon bat da. Lehendabizi korte bat ematen da azpitik eta gero zertzenean beste bat gainkaldetik.
- *Kortea*: ezpal-sartua egin zaion kontrako aldetik, hau da, bota nahi den beste aldetik zerra-epaia sartzen da ezpal-sartuaren ertza baina pixkat goraxeagotik. Honela erortzen zen zuhaitza.
- Askotan, zerra-epaiak trontza estutzen zuen, eta lasaitzeko, *ziria*, *burniziria* edo *porraziria* sartzen zen kortean, *borra* edo *porraz* buruan joz. Burniziri hau, beste zenbait kasutan, zuhaitza nahi zen aldera eraisten laguntzeko erabiltzen zen.




7. irudia. Burniziria. (Iturria: Sarriegi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 63.or.).



8. irudia. Burniziriaren erabilera zuhaitz botaketan. (Iturria: Sarriegi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 63.or.).

Trontzei buruz, esan behar da, denek hortz berdinak zituztela hasiera batean, hortz guztiak ziren triangeluarrak. Baina geroago (gerraondoan Goierrira), amerikar trontzak iritsi ziren, *bisardeko trontzak* deritzaienak, tarteka hortzen artean bi sarde edo «garlopa» izaten bait zituzten (ikus 10. ird.). Azken hauek errendimendu hobekoak ziren eta laster baztertu zituzten besteak.



9.irudia. Trontza edo trontzerra. (Iturria: Sarriegi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 63.or.).




(a)



(b)

10. irudia. Hortz triangeluarrak (a) eta bisardedunak (b). (Iturria: Sarriegi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 63.or.).

Bitxikeria gisan, aipatu ditzagun botaketa-lanetan gerta daitezkeen bi egoera: batetik, zuhaitza erorbidean dagoela beste baten kontra kateaturik edo katramilaturik geratzen baldin bada, *kuku eginda* gelditu dela esaten zaio, eta kontu haundiz ibili behar da askatzerakoan, arriskutsuak izaten dira eta. Bestetik, *bakailau-buztana* edo *bakailaua* daukagu, hala deitzen bait diote arbola bota eta gero ipurdian gera daitezkeen ezpalari (ikus 11. ird.).



11. irudia. Bakailau-buztana. (Egilearena, *Dictionnaire forestier multilingue*, 415. or. ko irudi batean oinarritua).

### 3.2.2. Soilketa


Behin botata gero, lehenik egiten zen lana soiltzea izaten zen. Honetarako aizkora erabiltzen zen, *aizkolbitartea* esaten zaion erdi-tamainako aizkora bat, ez zuhaitzak botatzeko izaten zen aizkora haundi edo ondojotzekoa, ez eta aizkora txikiegia.

### 3.2.3. Mozketa

Zuhaitz-gerria, bere luzaroan behar zen neurrian mozten zen trontzaren bidez. Modu honetara lortzen ziren trunkoak, eramateko moduan geratzen ziren, zenbait kasutan bertan ala inguruan leundu eta zerratzen baziren ere.

Zein luzarotan moztu behar zen jakiteko, *neurria* izeneko makila erabiltzen zen.

Gaur egun, motozerrak ganbara-zulora baztertu ditu ia erabat aizkora, eta trontzerra batez ere.



12. irudia. Motozerra eta bere zatiak. (Egilearena, Sachs-Dolmar motozerra-etxearen katalogoko irudian oinarriturik).

### 3.2.4. Ilargiaren eragina

Zerikusi handia izan du ilargiak lehenagoko euskaldunen bizimoduetan. Eta Goierriko basogintzan, gelditzen dira horren aztarnak oraindik ere, nekazalgintzan bezalaxe.

Uste zabaldua da, egurra botatzerakoan dagoen ilargialdiak garrantzi handia duela. Batez ere, materiala, kalitate aldetik hobea, usteltzen ez dena eta pipiak jotzen ez duena izaten delako.

Jaso ahal izan ditugun arau batzuk azalduko ditugu.

Pentsakera baten arabera (24), *hosto haundia* duten zuhaitzak *ilberan* bota behar dira, hau da, urkia, astigarra, gaztaina, gerezia, lizarra, sagarra, intxaurra, zumarra, plátanoa, haritza eta ezkia. Eta *hosto txikidunak ilberrian*, hala nola, arkazia, haltza, hurritza eta pagoa.

Beste teoria batek (25), zatiketa beste erizpide batekin egiten du: *hosto koskadunak* dituztenak *ilberan*, eta *hosto biribildunak ilberrian*. Honen ondorioz, pagoa eta haltza ilberrikoak lirateke, eta haritza eta gaztaina ilberakoak, gainontzekoekin nahasketa haundia dagoelarik berriemaile batetik bestera.

Ahozko tradizioan iturburua duten ideia hauek, badute haatik, aurreko urru-nekorik ere: 1748ko Menditako Erret Ordenantzak, bere XVI. atalean, zuhaitzen inausketak azaro, abendu, urtarril eta otsaileko ilberatan egin behar direla esaten du. Landare-aldaketak ere ba zuen bere garai egokia, ilargiari dagokionez:

«(...) y quando tengan el grueso de tres pulgadas y media o cuatro de circunferencia y de tres varas y media o cuatro de alto, se transplantarán a los sitiös más abrigados de los montes, desde mediado diciembre, hasta mediado febrero, en luna creciente;» (26)

«[Felipe IV.aren agindua 1656an] (...) y hágase esto desde diciembre a febrero y en luna creciente.» (27)

Esan dezagun, gai hau uzteko, Alemaniako baso-teknikariek eginak omen dituztela arazo honi buruzko zenbait ikerketa, eta dirudienez, ba omen du ilargiak zuretan aurkitzen den almidoi kopuruan eraginik. Eta almidoia pipiaren gustokoa omen...

### 3.3. Baso-ateratzea

Egurra moztu ondoren, hurrengo lana jasan behar zuen lekuraino ala bildu behar zen tokiraino eraman behar izaten zen. Honetarako, abereen indarra erabiltzen zen, idiak eta mandoak gehienbat. Behar honetatik sortu zen itzainaren lanbidea. Baso-ateratzea, beraz, abere-karreetaz edo garraiaketaz egiten zen gehienbat.

Basoaren ezaugarriek (aldapatasunak, lur-motak, bideak...) eta egurrarenak (sendoak ala bigunak) erabakitzen zuten zein sistema erabili karreetan.

#### 3.3.1. Egurra erabat arrastatuz

Sistema hau, aldapa haundiegiak edota gurdibiderik ez zegoen lekuetan erabiltzen zen, hau da, gurdia sartzerik ez zegoen lekuetan.

(24) ZUFIAURRE, J.: «La luna y sus influencias», in *Beasain Jaietan* aldizkaria, 15. or., 1987.

(25) Zenbait berriemailek zuzenean neri azaldutakoaren arabera.


(26) »Real Ordenanza de 31 de enero de 1748»ren transkripzioa, in MUTILOA POZA, J.M.: *El monte y el viñedo en Vizcaya a mediados del siglo XIX*, Apéndice I, 140. or., Estudios Vizcaínos aldizkaria, 9-10 zk., Bilbo.

(27) BAUER, E.: *Los montes de España en la Historia*, 56. or., Ministerio de Agricultura. Madrid, 1980.


Karreaketa sistema hau, egurra bere luze guztian lurraren gainean arrastaka eramatean datza. Arrastan eramaten zen egur honek izen berezi bat hartzen du: *lorra*.

Lan hau, izen ezberdinak hartzen dituen lanabes batez baliatuz egiten zen:


*Nardaia*, *nardagaia*, *lardai* (Beasain, Matxinbenta), *dornqilua* (Ataun), edo *lor-udia* (Zegama) egur luze bat da (13. ird.), aurrekaldetik idien *uztarrira* lotzen dena, *kabila* eta *gurteraren* bidez, eta atzetik burnizko mekanismo simple bat duena. Mekanismo hori, egurrean josi ala atornilatzen den burniak, eta honi biratzaile batez lotzen zaion burni-uztai edo eraztun batek osatzen dute.



13. irudia. Nardai, lardai, nardagai, dornailu edo lor-udia (a), uztarrria (b) eta gurtera (c). (Iturria: Sarriegi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierrri eskualdean*, 1989).




14. irudia. Borra edo porra. (Iturria: Sarriegi, M.; Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierrri eskualdean, 1989).



15. irudia. Txinga edo tiraferra (a) eta lorkate edo katemotza (b). (Iturria: Sarriegi, M.; Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierrri eskualdean, 1989).






16. irudia. Lorra eta nardaiaren arteko eransketa. (Iturria: Sarrigi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 67.or.).

Lorrari, bere buruan, beste burni-eraztundun txinga edo tiraferra (Ataun) sartzen zitzaion borrharekin joz (14. ird.).


Lorra nardaiari eransteko (16. ird.), lorkate edo katemotz izeneko katea bat erabiltzen zen (15. ird.), mutur bakoitzean miztodun burni-eraztun bana zuena.

Askotan, lorra egur bigunagokoa zelako (pagoa, haltza eta horrelakoak), pitzatu eta txinga irten egiten zen. Horrelakoetan, txinga ordezkaturko zuen beste baliabide bat erabili behar zen:

— *Perra* (17. eta 18. ird.k): txingaren lekuan sartzen zen zorrozitutako mando-perra moduko bat izaten zen. Txingak baino gehiago eusten zion.




17. irudia. Perra. (Iturria: Sarrigi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierrri eskualdean*, 1989).




18. irudia. Perraren erabilera. (Iturria: Sarrigi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 67.or.).

— *Lorkate* edo *katemotza* bera ere erabil zitekeen horrelakoetan, zuzenean lorraren buruari inguruan lotuz (19. ird.).




19. irudia. *Lorkatea* edo *katemotza* zuzenean lorrari erantsita. (*Iturria*: Sarrigi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 67.or.).

— Beste erans-bide guztiek balio ez zutenean, taratuluaz (20. eta 21. ird.k) zulatzen zen lorraren muturra, gero handik katea pasatzeko. Baliabide honen eragozpen edo galera bakarra, zuloa egitean galtzen zen muturreko egur-puska hori zen. Honexegatik saiatu behar zen zuloa mutur-muturrean egiten.




20. irudia. *Taratulua*. (*Iturria*: Sarrigi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, 1989).




21. irudia. *Taratulu zuloaz egindako eransketa*. (*Iturria*: Sarrigi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 67.or.).

Nardaiaren sistema honekin, lor bat baino gehiago arrasta zitezkeen, lehenengo lorrari bi txingen bidez atzekaldetik beste bat erants bait ziezaiokeen (22. irudia). Eta modu berean nahi ziren guztiak, ala askatu gabe eraman zitezkeen guztiak (23. ird.).




22. irudia. Bi lorren arteko eransketa. (Iturria: Sarriegi, M.; Euskal Herriko basoa eta untzigintza; 1990; 67.or.).



23. irudia. Karreaketa, egurra erabat arrastatuz. (Iturria: Sarriegi, M.; Euskal Herriko basoa eta untzigintza; 1990; 67.or.).

Arrastaka eramaten zen lorrari bere bidean (*lorbidea* izaten zena) laguntzeko, *eskuhaga* izeneko haga bat erabiltzen zen.

Sarritan, lorraren burua *kopatu* egiten zen, zera esan nahi da, buruko ertzak aizkoraz jan eta leundu, bidean kateatu ez zedin (24. ird.).



24. irudia. Burua kopatutako lorra. (Egilearena).

### 3.3.2. Egurra erdi-arrastatuz

Toki erosoagoetan abantaila haundiagoak zituen sistema honek. Ohizkoa zen erabat arrastatua zihoan kasuetan lorraren ertzak harriren bat ala beste edozein

oztoporekin talka egin eta txinga libratzea. Horregatik, beste sistema honetan, aurreko muturra altxaturik zihoanez itzuri egiten zitzaion arazo horri.

Baina bazuen beste abantaila bat ere: lurraren kontrako marruskadura txikiagotu egiten zen ikaragarri, eta honek egur haundiagoak eramateko modua eskaintzen zuen.


Bi dira sistema hau ahalbidetzen zuten lanabesak:

— *Leramoza* (25. ird.).

Bi patinen gainean arrastatuz eramaten den trineo moduko bat zen. Egur luzeak eramateko erabiltzen zena, besteak baino motzagoa (metro bat inguru) eta sendoagoa.

Egurraren muturra lera gainean jarri eta lotzen zen, tira eta arrastaka eramateko.

Lurzoruaren ezaugarrien arabera, patinazpietan burdinezko txapa bat jositik eraman zezaketen, desgastea txikiagoa izan zedin.




25. irudia. *Leramoza* egurra karreatzen. (Iturria: Sarriegi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 70. or.).


— *Gurdimotz*, *gurzaldi*, *saltogurdi* edo *tronkogurdi* (26. eta 27. ird.k).

Egurraren aurreko muturra gainean jarri eta atzekoa arrastaka eramateko gurdi motz bat izaten zen. Gainaldean *almoada* izeneko egur-trokote bat zeraman, biratzailea, eta honen gainean lotzen zen egurra katea batez. Almoada biratzaile honek asko laguntzen zuen errebueltak ematerakoan. Lanabes hau Gerraondoan etorria izan daiteke, beraz, nahiko berria dugu gure artean.

Hasiera batean gurpilak burdinezkoak eta meheak izaten zituzten, haiek *gurdi-zorrotzak* izaten ziren eta piska bat kargatutakoan lurrean behera sartzen ziren. Gurpil neumatikoak ekarri zituztenean, mesede handia egin zioten lanabes honen erabilerari.



26. irudia. *Gurdimotza* egurra karreatzen. (Iturria: Sarriegi, M.; *Euskal Herriko basoa eta untzigintza*; 1990; 70. or. Egilearena).



27. irudia. Gurdimotza, gurzaldia, saltogurdia edo tronkogurdia. (Iturria: Sarrigi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, 1989; Zegamako Asemendi-barrrena baserrikoan oinarriturik marraztua; gurpilik gabe zegoen; 1989-X-12).

### 3.3.3. Egurra airean

Karreaketa ordezkazakeen sistema bat, egurrak kablez ateratzea zen. Sistema hau asko erabili izan da Goierriin, Ataungo mendietan batez ere, oraindik ere belarra jeisteko erabiltzen delarik.


Egurra ateratzeko bideak egitea zaila eta garestia zenean jotzen zen kableak jartzera. Noski, kable-sistema bat aurrera eramateak oso langile espezialduak eskatzen zituen, *kablista* deiturikoak. Ez dira gutxi izan Irati aldean kable jartzen ibili diren goierritarrak.

Bi sistema bereiz daitezke kable kontuan:

- *Kablelokoa*: Kablea fijoak izaten da eta haren gainean doan *txirrikatik* zintzilikatzen da karga, grabitatearen indarrez jaitzi dadin.
- *Jiratorioa*: Kablea mugikorra da eta joanetorria egiten du. Beherakoan kargaturik eta gorakoan hutsik, karga bat baino gehiago eraman dezake aldiko.

\* \* \*

Gaur egungo basogizonek, dagoeneko baliabide tekniko aurreratuek dituzte baso-ateratzea erraztasun haundiagoz egiteko, gure eskualdearen menditasun baldintzetara egokitzen den traktore moduko ibilgailu bat erabiltzen dutelarik.



28. irudia. Skidder edo herrestailea egurra karreatzen. (Egilearena, FMG Eixearen katalogo bateko irudian oinarriturik).

Skidder edo traktore herrestaile honek (28. ird.) idi-pareari lekua kendu dio, baina funtsean, lana egiteko sistemak berdintsua izaten jarraitzen du. Dena dela, oraindik ere, zenbait baserritan idiak erabiltzen dituzte makinatzar horiek sartzeko gauza ez diren mendi zokoetan.

### 3.4. Langintza eratorriak

Eratorriak deitu diegu, basogintzaren inguruan aurki daitezkeen zenbait langintzei, askotan elkar-nahasteraino hurbiltzen direnak, bestalde. Hau dela eta, aipamen xume bat besterik ez diegu egingo.

#### 3.4.1. Zerragintza

Materialetarako egurraren zerraketan datza. Lan hau tabloiak lortzeko zerrategietan egiten zena da.

Aurretik, leunketa egin behar zen, aizkora aho-zabal batez baliatuz egiten zena. Aizkora hori berezia izaten zen, eta *arotzaizkora* edo *labraizkora* izenaz ezagutzen da Goierrin.


Zerraketan aritzen zirenak *zerrariak* izan ohi ziren, lan espezialdua hau ere.

*Zerratokia*, basoan bertan ala beste leku egokiago batean egon zitekeen, eta ekarritako egurrak zerratzeko eraikitzen zen zurezko egitura batek osatzen zuen.

Egurrak zeharretara egitura horren gainean jarri eta *arpana* edo *arpoi* izeneko zerra batez zerratzen ziren (29. ird.), goitik beherako mugimendu bat eraginez. Mugimendu hori bi ala hiru zerrarik ematen zioten: bat egurraren gainean (*goilaria*) arpanari gora eginez, eta beste biak (ala bat) azpian. Azpikoak ziren, goitik beherako mugimenduan ebakia egiteko indarra erasten ziotenak.

Egurra nondik zerratu behar zen jakiteko, *zurari* izeneko soka-moduko batez markatzen zen bere luzaro guztian, zuzen-zuzen.

Tabloiak, etxagintzarako, trenbideko trabiesatarako, ... eta izan ohi ziren.



29. irudia. Arpana edo arpoia. (Iturria: Sarriegi, M.; *Basogintza-terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, 1989; Matxinbentan Oto-barrena baserriko ereduak erabiliz, 1989-X-26).


### 3.4.2. Ikazkintza

Ikazkinen lanbidea aski aztertua eta ezagutua da gure artean. Eta aipatu beharrekoa da, ikazkinek ere basogintza egiten zutelako, hain zuzen ere, basosartzea eta zainketa atalean ikusi dugun bezala.

Ikazkintzak Euskal Herriko industrigintzan garrantzizko papera jokatu du, burdinolak zirelarik aktibitate honen bultzatzaile nagusienak. Goierriko industrigunean baziren eske haundiko burdinolak, eta ia uneoroko kontua izaten ziren garai batean, alde batetik zeuden olajabe eta olagizonen, eta bestetik zebiltzan udalerrri eta nekazarien arteko borroka eta istiluak, basoaren gehiegizko ustiapena zela eztabaidagai (28).

30. ird.n ikus dezakegu ikazkintzak gure eskualdean izan zuen eragina.

(28) Ik. GOZALO, J.J.; LOPEZ, M.A.; URTEAGA, M.: «Burdinoletatik fabriketara», in *Beasain, udalerrri baten historia*, 71. or., Beasain, 1987.



- Ekoizpen gune nagusiak
- Erosketa gune nagusiak
- ← Salmenta korrante nagusiak

30. irudia. Ikazkintzaren mugimendua Goierri aldean 1930 inguruan. (Iturria: H. Lefebvre, 1933: «La fabrication du charbon de bois vers 1930 dans les Pyrénées atlantiques orientales»)(29).

### 3.4.3. Untzigintza

Untzitegiek beren kontura egiten zuten askotan baso-ustiapena. Untzigile gehienak, untzia egiteko teknikak ezagutzeaz gain, egurraren prestaketari buruzko ezagupen onen jabe ziren, eta beroiek aukeratzen eta neurtzen zituzten basoan bota beharreko zuhaitzondoak.

Goierritik egur asko eraman izan da kostaldeko untzitegietara (30). Egurzale izandako gure zaharregandik jaso daiteke honen berri:

«...barkuk azpin eamaten zona: brankagaia. Haitz luzie izaten zan, hamasei metro luzeko materiala. Banako izatezan, barku bakoitzeko bat eamaten zon. Eta hemendikan eamaten zien. Ondotik loriok izaten zien baino puntan uno diez ber izaten zon zirkunferentzin...».

«... haitz suakerrak Zumain esaten zien barkutako arbola okerrai. Guk eaman ginutzen, barkuk eiteko. Zerra jotzen zan okerra. Zemaite eta okerrao hue ta nahio, harako propio...». (31)

Eta ez alferrik, hor daukagu Kizkitzako Amaren baseliza, arrantzale eta itsasgizonen zaindari, esaten denez, arraunak egiteko materiala bertako basoetatik eramaten zelako.

(29) Irudia, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Mendi Zuzendaritzan dagoen Monte y organización del espacio en Tolosaldea izenburuko egile ezezagundun tesi-zirriborroaren 78. or. ko iruditik moldatua dago. Tesi-zirriborroa din-A4 neurriko 159 or. dun «canutillo» erako enkoaderazio bat da.

(30) Ataungo Kamiño Etxeko Asentxio Aierbek dioenez, sekulako haritz-tantaiak eraman zituzten Ataundik, itsasuntziak egiteko, orain urte asko ez dela.

(31) Agustín Lasa (78 urte), Matxinbentako Zuaneta baserrikoak jakinarazitakoak (89-1-5). Ik. SARRIEGI, M.: *Basogintza-Terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri eskualdean*, argitaragabea, Madril, 1989.



#### 4. HARIZTI-PAGADI ETA SAIL ZUHAIZGABETUETATIK GAURKO PINUDIETARA

Goierriko basoen bilakaeraren azterketan argitara eman zaizkigun ondorioen aurrean, eta azken 200 urte hauetan bertako basoen egoerari buruz azaldu ditugun guztiak hausnartuz, zenbait gogoeta bururatzen zaizkigu, jarraian agertuko ditugunak.

1. Aurreko datu haien arabera (ik. 2.8. puntua), pinudiek bertako hostozabaldun basoek ordezkatu dituztenaren pentsakera zabaldua *okerra* dela garbi gelditzen da, Goierri dagokionean behintzat. Gehienera azaleraren % 18an gertatuko bait zen horrelakorik. Gainerantzeko % 28an nekazal lur, sastrakadi eta horrelakoetan sartua izan dela suposatzea delarik zilegiena. Pentsatu behar da gainera, 1784tik XX. mendeko lehen koniferoen landaketak egin bitartean, zuhaiztutako azalerak behera egiten jarraituko zuela, 2.5. puntuan ikusi dugunaren arabera.
2. Gaztainadien dagokienez, ezagutu duten *gainbeherakada*, seko jo dituzten gaitzen erasoari zor zaio gehienbat. Garai bateko oinarritzko dietan puntako papera jokatzen zuen gaztainak, bere lekua beste elikagai batzuk, patatak batez ere, nola hartzen zuten ikusi zuen arte. Elikaketa ohitura aldaketa honek, gaztainadien gainbeherakadan aurki zezakeen bere arrazoi nagusia, baina baliteke ere, ohitura aldaketa berori patataren agerpenak bultzatua izatea, eta honek, gaztainadien galeran bere «erru» txikia ere izatea. Gaztainak ez liriteke premiazko gai, eta ondorioz, berorren ganako zainketa lanak nolabait deskuidatuak izango liriteke baserritarren aldetik, utzikieriaz. Gaztainondoak zahartu, onenak eraikuntzarako bota, suegurretarako moztu, landare berririk ez aldatu... azken batean, gaitzaren sarrera eta indartzeari ateak zabaldu.
3. XX. mendean zehar ematen den *baso-iraultzak*, baserriaren, erakunde sozial eta ekonomikoa den neurrian, kinkalarrialdiarekin bete betean bat egiten du. Gure herriak bere bizimodua aldatzen du, bai sozial eta bai ekonomikoki, eta bi mundu ezberdinen arteko banaketa agertzen da: sortuberria den industri-hiritar mundua alde batetik, eta abel-nekazal eta baserritarra bestetik.

Administrazioko baso-erakundeak Gipuzkoa mailan sail zuhaitzuen urritasunaz eta basoen egoera negargarriaz jabetu eta kezkatu bultzatu zuten baso-sartze politikari, pentsakera industrial horren eta baserritar munduaren hiritar munduak inposaturiko eskakizunei aurre egiteko saia-kerak eragindako koniferoen baso-sartze ekimenak jarraituko dio, gaur ezagutzen dugun egoera honetara iritsi arte.

## 5. ETA PINUDIETATIK, NORANTZ?

Gaur arteko basogintza Goierrin zernolakoa izan den ikusi ondoren, eta hemendik aurrerako jomugak nondik norakoak izango diren azpimarratu baino lehen, bada ezin ahaz dezakegun eta orain arte aipatu ez dugun arren, berebiziko eragina eta garrantzia izaten ari den eta izango duen beste joera bat. Izan ere, basogintzaren sektorea, beste zenbait alor bezalaxe edo gehiago, kontserbazioaren aldeko kontzientzi publiko baten izugarritzko gorakadaren aurrean aurkitzen da.

Garai batean, inguru baserritarretik industri-hiritarrerako eman zen aldaketa gelditu ondoren, baso-baliabideek eskaintzen dituzten serbitzu eta ondasunak gero eta eragin sozial haundiagoa hartzen ari dira berriz ere. Hortik dator, orain arte ekoizle hustzat genituen mendí eta baso sailei, lurzorua eta ibai-arroen babesle bezala eta hiritar biztanlearentzat atsedan-leku bezala gero eta balio haundiagoa ezagutu eta ematea. Hala, Enirio-Aralarko Mankomunitateak burutu duen antolaketa eta basotze plana, edo Udalerriek beren sailetan Aldundiaren laguntzaz egiten dituztenak (Zaldibia kasu); hala, Mendi Publikoetan ezarri diren Atsedan-Eremu egokituak: *Oiangu* Ordizian; *Elorri-txiki*, *Alzania ibaia* eta *Beunda Zegaman*; *Astigarraga* eta *Intxusti* Ataunen (32).

Beraz, gaurko egoera hau abiapuntu dugula, honako joera eta jomuga hauek proposa eta azpimarra daitezke:

1. Baso-zoru, larretoki eta atsedenguneen ganean dauden eskakizunak kontutan izanik, ez dirudi erretxindunek osatutako basoen azalera haundituko denik.

Basogintzaren zenbait alorretatik (33) aldarrikatzen den modura, pinudiek estaltzen duten azalera birplanteatu beharko litzateke. Lurralde-antolaketa egoki batez sail bakoitzak izan behar lukeen erabilera finkatuz, besteak beste, lurraren egitura, altuera, aldapa, etab. aldagaiak kontutan harturik.

---

(32) Ik. Gipuzkoako Foru Aldundiak zabaldutako *Gipuzkoako Mendi Publikoetako Atsedan Lekuak* foiletoa.

(33) Esate baterako: ASKASIBAR, J., «Evolución y perspectivas del sector forestal vasco a la luz de los inventarios forestales», in *Aurkezpena-E.A.E. Baso inbentarioa*, 75. or., Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 1989; eta ARANZADI, *Estudio ecológico y económico de las repoblaciones de coníferas exóticas en el País Vasco*, Azken azalpena, XII. or., Lan Kide Aurrezkoa, 1981.

Antolaketa honi dagokionez, orain arte baino kontu haundiagoa egin beharko litzaioke basogintzaren programaketa eta abelazkuntza extentsiboaren arteko koordinaketari. Puri purian ditugu Goierrin maila honetan gertatzen ari diren gatazkak.

Inguruarekiko basogintza babestailea eta etorkizun oneko artzantzaren arteko elkarbizitza lor daiteke, eta lortu behar da.

2. Baso-botatzean, eta Arantzadiren azterketan proposatzen den ekin-tzabidearen haritik (34), egiten diren matarrasa edo erabateko botatzeak ahal den neurrian baztertu beharko lirateke, lurraren emankortasuna eta kontserbazioa galbidean jartzen bait dute.

Gure eskualdea bereziki aldapatsua denez, larriagoa gerta dakiguke aholku hauei muzin egiteak. Ildo honetatik, interesgarria gerta liteke, gure honetan ohizkoak izan diren eta azaldu ditugun kablezko aterabide-sistemen ezartze-possibilitateak zehazki aztertzea. Teknika hau nahiko garatua dago Alemaniako Oihan Beltzean egiten den basogintzan, eta garestiagoa izan arren, bertako baldintza fisiografikoei nahiko ondo egoki daiteke, eta beharbada zenbait kasutan pista eta aterabideak direla medio sortzen diren hainbat sarraski galeraziko genuke.

3. Baso-lanak eta egurraren lanketa era egokiagoan egingo dituzten basomutil eta botatzaileak trebatzeko plangintza bat ere osatu beharko litzateke, batipat gaurko kontserbazio beharrizanei egokituko dena, eta basogaien errentabilitatea haunditzen lagunduko duena.

4. Basoek duten ahalmen ekoizleari dagokion garrantzia eman behar genioke, oinarrizko arau ekolojikoaren barruan eta aipatu dugun lurralde-antolaketa egokiarekin bat, baserritar eta basojabeen artean interes galketarik sor ez dadin.

Izan ere, baso-ingurua gehien hondatu duena gizakia izan den bezalaxe, berak bakarrik babes eta zain dezake. Eta zein hobe, inguru horretan aritu eta horrekin bat egin duen baserritarra bera baino.

Ezin dugu ahaztu, basogintzak eskaintzen dituen zuzeneko dirusarrerez gain, sortzen dituela merkaturatu eta dirutan neur ezin daitezken hainbat balio, bizitzaren oinarri diren elementuak: ura, airea, lurra, ... eta guztion mesederako direnak.

5. Bertako zuhaitz-mota eta beren habitatak babestu eta zabaltzeko neurriak hartu eta hartzen jarraitzea espero dugu, dagokien erakunden aldetik. Interes haundikoa litzateke, esate baterako, gaztainondoaren berreskurapen moduko plangintza bat bultzatzea. Ez bakarrik gaitzek kaltetuko ez dituzten bariatateak lortzeko, baizik eta gaztainondo eta bere fruituaren inguruan mendeetan zehar eraiki den kultura guztia, une honetan galbidean dagoena, bildu eta gorde ahal izateko, ondare garrantzitsutzat jotzen bait dugu.

---

(34) Ik. ARANZADI, *Estudio ecológico y económico de las repoblaciones de coníferas exóticas en el País Vasco*, Azken azalpena, XIII. or.

Azken batean, zalantzarik ez dago iraganean gertatutakoen berri izatea baliagarri eta lagungarria gerta dakigukela, oraina ulertu eta etorkizuna zuzen antolatzeko orduan. Urteen poderioz pilatu den jakitura, nahiz herritarra izan ala ez, ez dezagun alferrik galtzen utz.



## BIBLIOGRAFIA

- ALUSTIZA, JULIAN (Aztiri). 1985. *Euskal baserriaren inguruan*, Oñati: Arantzazu Frantziakotik Argitaletxea.
- ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA. 1981. *Estudio ecológico y económico de las repoblaciones de coníferas exóticas en el País Vasco*, Arrasate: Lan Kide Aurrezkia.
- ARRIZABALO, JOSE MANUEL; ZAVALA, ANTONIO. 1979. *Baso-mutillak*, Tolosa: Auspoa.
- ASKASIBAR, JORGE. 1978. *Los montes en Guipúzcoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia: Argitaragabea.
- ASKASIBAR, JORGE. 1981. «Historia Forestal del País», 60. or., *Mendiak Saila* I. alea, Donostia: Etor.
- ASKASIBAR, JORGE. 1989. «Evolución y perspectivas del sector forestal vasco a la luz de los inventarios forestales», 75. or., *Aurkezpena-E.A.E. Baso inbentarioa*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza eta Arrantzu Saila.
- ASKOREN ARTEAN. 1984. *Congreso Internacional sobre el Castaño, Comunicaciones*, Pontevedra: Departamento de Investigación Forestal de Lourizan.
- BARKHAM, M. 1984. «La construcción naval en Zumaia, 1560-1600», 234. or., *Itsasoa* bilduma, 3. alea, Donostia: Etor.
- BAUER, ERICH. 1980. *Los montes de España en la Historia*, Madrid: Ministerio de Agricultura.
- EUSKO JAURLARITZA. 1988. *E.H.K.A.ko 1986ko Baso-inbentarioa*, Gasteiz.
- GOZALO, JUANJO; MUGICA, JOSEAN; LOPEZ, MIGUEL ANGEL; URTEAGA, MERTXE; ZUFIURRE, JOSETXO. 1987. *Beasain, udalerrri gipuzkoar baten historia*, Beasain.
- GONZALEZ, EDUARDO 1985. «Ekosistema historikoak», 95. or., *EUSKAL HERRIA I*, Arrasate: Lan Kide Aurrezkia.
- METRO, A. 1975. *Dictionnaire forestier multilingue*: Conseil International de la langue française, C.I.L.F.
- MUTILOA POZA, J.M. 1974. *El monte y el viñedo en Vizcaya a mediados del siglo XIX*, 97-176 or., *Estudios Vizcaínos* aldizkaria, 9-10 zk., Bilbo.
- MUTILOA POZA, J.M. 1981. *Guipúzcoa en el siglo XIX*, Donostia: C.A.P.
- OTAZUA, FERNANDO. 1989. «Zegama y los árboles de Navidad», 4. or., *Euskadi Forestal/Euskadi Basogintza* aldizkaria, 21. zk.: Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederakundea.
- PEREZ ENCISO, M. 1951. «Trasmochos en Guipúzcoa», 114. or., *Montes* aldizkaria, VII. alea, Madrid.
- SARRIEGI ETXEZARRETA, MIKEL. 1989. *Basogintza-Terminologiaren bilketa eta azterketa Goierri Eskualdean*, Karrera Burutze-Lana, Madrid: E.T.S.I. de Montes, Universidad Politécnica de Madrid.

- SARRIEGI ETXEZARRETA, MIKEL. 1990. *Euskal Herriko basoa eta Untzigintza, Gipuzkoako itsas-museorako zenbait apunte*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Saila, Donostia: argitaragabea.
- URZAINKI MIKELEIZ, ASUNCION. 1987. «Los montes públicos guipuzcoanos», 175. or., *LURRALDE*, 10. alea, Donostia: «Andrés de Urdaneta» Euskal Instituto Geografikoa.
- U.Z.E.I. 1987. *BIOLOGIA/3, Ekologia Hiztegia*, Donostia: Elkar.
- ZUFIAURRE, JOSE. 1987. «La luna y sus influencias», 15. or., *Beasain Jaietan aldizkaria*, Beasain.



## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Landaredi potentzialaren estaiak Goierriin .....	28
2. irudia. Basoen azalera Goierriin, 1784 .....	33
3. irudia. Zuhaitz burumotza .....	43
4. irudia. Pinu-aldaketa .....	45
5. irudia. Aizkora eta bere zatiak .....	47
6. irudia. Zuhaitz botaketa .....	48
7. irudia. Burniziria .....	49
8. irudia. Burniziriaren erabilera zuhaitz botaketan .....	49
9. irudia. Trontza edo trontzerra .....	50
10. irudia. Hortz triangeluarrak eta bisardedunak .....	50
11. irudia. Bakailau-butzana .....	50
12. irudia. Motozerra eta bere zatiak .....	51
13. irudia. Nardai, lardai, nardagai, dornailu edo lor-udia, uztarria eta gurtera ...	53
14. irudia. Borra edo porra .....	54
15. irudia. Txinga edo tiraferra eta lorkate edo katemotza .....	54
16. irudia. lorra eta nardaiaren arteko eransketa .....	55
17. irudia. Perra .....	55
18. irudia. Perraren erabilera .....	55
19. irudia. Lorkatea edo katemotza zuzenean lorrari erantsita .....	56
20. irudia. Taratulua .....	56
21. irudia. Taratulu zuloaz egindako eransketa .....	56
22. irudia. Bi lorren arteko eransketa .....	57
23. irudia. Karreaketa, egurra erabat arrastatuz .....	57
24. irudia. Burua kopatutako lorra .....	57
25. irudia. Leramotza egurra karreatzen .....	58
26. irudia. Gurdimotza egurra karreatzen .....	58
27. irudia. Gurdimotza, gurzaldia, saltogurdia edo tronkogurdia .....	59
28. irudia. Skidder edo herrestailea egurra karreatzen .....	60
29. irudia. Arpana edo arpoia .....	61
30. irudia. Ikazkintzaren mugimendua Goierri aldean 1930 inguruan .....	62
1. taula. Zuhaitzondoaren kopurua Goierri eskualdean 1784eko inbentarioaren araber	30
2. taula. Zuhaitzondoaren kopurua Goierri eskualdean 1784eko inbentarioaren araber	31
3. taula. Gutxi gorabeherako baso-azalerak Goierri eskualdean 1784ean .....	32
1. grafikoa. Goierriko lur-azalaren erabilera 1784ean .....	38
2. grafikoa. Goierriko lur-azalaren erabilera 1986ean .....	39



# URBIA-OLTZEKO ARTZANTZA

*Andoni Aizpuru Murua*

## LABURPENA

Fermin Leizaolaren aintzinsolasa

Hitzaurrea

Metodologia

1. Urbia-Oltzeren kokapen geografikoa

2. Artzantza

Ondorioak

Bibliografia

Hiztegia

Eranskinak



*ESKEINTZA*

*Nere lagun, Fondako Mieli*

*Artzaina, artzaina!  
Zer ote lirateke  
gure baso  
soro eta  
zelaiak  
zure artaldearen  
zintzarri hotsik gabe!*



## FERMIN LEIZAOLAREN AITZINSOLASA

1984. urtean, lan honen egilea Magisteritza ikasketen bukaeran eskatzen zen azterlana zuzentzeko eskatuz hurbildu zitzaidanean, ezin nezakeen pentsa gerora orrialde haiek 1990. urtean GERRIKO idazlan lehiaketan 2. saria irabaziko zutenik.

Hau, besterik gabe, urte batzuk lehenago Euskal Etnografiari buruzko eskolak eman zizkion irakasle batentzat pozgarria da, baina orain gutxi egileak sarrera gisa zenbait ohar egiteko eskatu zidan eta horretantxe ari naiz orain.

Gaur egun, antzinako bizimodua ardatz duten lanak nahiko maiz egiten dira. Hau, ezpairik gabe, Nekazaritza eta Abelkuntzan erabiltzen diren zenbait lan-erageroz eta urriagoak direlako gertatuko da, baina hala eta guztiz ere, mundu aldakor honetan bizirik dirauenik badela azaldu nahi dugu.

Andoni Aizpururen lana, Araba eta Gipuzkoako Partzuergo Orokorren zati bati buruzko monografia laburra da. Zehazkiago, Altzaniako lurralde horietatik, Aizkorri mendikateko Urbia eta Oltzen dauden goilarreetan ematen den artzantza du aztergai.

Azterlana, ikerketa zuzenean eginez osatu da, artzainak zuzen-zuzenean elkarrizketatuz, bai mendiko sarrietan, baita beheko baserrietako belardietan ere. Ondorioz, artaldearen eta artzainaren jarraipena goiko txaboletan hasi eta, udazkenetik udaberria bitarte 6 hilabete igarotzeko erabiltzen dituzten baserrietaraino zabaltzen da.

Etnografia alorreko ikerketan zenbait urte eman dugunok ez gaitu harritzen urtero mendira joaten den artzain kopuruaren murrizketa bizkorrak, baina horretan ari ez denarentzat nahiko adierazgarria izan daiteke 40 urtetan artzain kopurua heren batera jaitsi izana, jaisten jarraitzeko joera duela gainera. Artzain bakoitzak daukan eta zaintzen duen ardi kopuruak, ordea, nabarmenki gora egin du antzinakoekin alderatuz gero.

Azterlanak, ingurua geografikoki azaldu ondoren (kokapena, landaredia, basoak, iturriak, e.a.), Partzuergoari buruzko zenbait historia-ohar ematen dizkigu. Lan honen zati interesgarri bat, Laskolatza, Arbelar eta Oltzeko sarrietan dauden artzainen biografia laburrek osatzen dute; baita txabolaren deskribaketak, bere zatiak, eraikuntza ezaugarriak eta betetzen duen lanak ere.

Ondoren, artzainak egunero eta urte-sasoiaren arabera burutzen dituen lanik garrantzitsuenak aipatzen ditu (gazta-egitea, ardi-moztea, buztan-moztea, jabego marka eta seinaleak, e.a.).

Negu-larreak aztertzen dituen atalean, Aitzgorrin oraindik ere Bizkaiko Mungia, Durangoaldea eta Asua araneko lurretako belardietara joateari eusten dioten artzainak badirela ikus genezake. Atzekaldeko eranskinean, berriz, Partzuergoaren Aginduak dakartzan 1901.eko Urriko agiria nabarmentzen da, mendizaleentzako aterpearen eraikuntzaren berriekin batera.

Gorputz honi, beste atal grafiko garrantzitsua erantsi dio; hauen artean artzainen lana jasotzen duten argazkiak azpimarratu behar dira, mapa, saroi eta tresnen marrazkiekin batera.


Azken ikutua, irakurketa erraztu eta zehazten laguntzen digun hiztegiak eta bibliografia laburrak ematen dio.

Monografia honen laguntzaz, gai hauetan zaletuak garenok, zertxobait gehiago jakin dezakegu bizimodu zoragarri honi buruz; guregana aldaketa sakonik gabe iritsi den bizimodua eta gaur egun, ia aztertzeko astirik utzi gabe gure artetik ihesi doana.

Agur eta eskerrik asko, Andoni

Donostian, 1991.eko martxoaren 8an

**FERMIN LEIZAOLA**

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'F. Leizaola', written over a horizontal line.

*Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografia Saileko Lehendakaria*



## HITZAURREA

Goierriko Euskal Eskolak 1989an «Gerriko» idazlan-sariketa antolatu zue-  
nean eta berau Goierriko lanbide historiko nahiz egungoei buruzkoa zela ohar-  
tzean, nere magisteritza ikasketen bukaerako tesinarako bildutako materiala ba-  
liagarria izan zitekeela konturatu nintzen.

Lan hark «Urbiako artzantza» zuen izenburutzat eta nere eritziz, epaimahaiak  
ezarritako bi baldintzak ederki betetzen zituen. Alde batetik, gure artean lanbide  
historikorik baldin badago, artzantza da hori, gaur egun ere bizi-bizirik dirauena  
gainera. Bestetik, berriz, Goierrikoa izan behar zuenez, «Goiko Herri» horretan  
ba ote Urbia-Oltze baino gorago jendea bizi den lekurik? Nahiko lan!

Halaxe, bada, 1985.ean burutu nuen lan hura, neurriak eta datuak zertxobait  
eguneratuz eta egokituz, aurkeztu nuen 1990.eko udaberrian «Gerriko» idazlan-  
sariketan, bigarren saria lortuz. Geroztik ere izan ditu makinatxo zuzenketa eta  
ikutu lan hark, Joxe Martin Apalategiren laguntzaz liburu bihurtu den arte.

Dena den, ez nuke atal hau, lan hura egitera bultzatu ninduten arrazoiak  
azaldu gabe itxi nahi. Gabiria bezalako mendi-herri batean jaioa izanik, maiz  
asko ikusi izan ditut artzainak nere herrian; bai bertakoak, artalde txikiekin ge-  
hienetan, baita Aizkorri edo Aralar mendietatik gure herria zeharkatu edo negua  
igarotzen bertan geratzen zirenak ere. Hala eta guztiz ere, ez nuen aparteko  
jakinminik izan, 1985ean, Magisteritza ikasten ari nintzela Fermin Leizaolak  
—«Mintxo» ezagunontzat—, nere barruko har hori mugiarazi zuen arte. Artzainen  
munduaz ez ezik, Euskal Herriko beste lanbide eta ohitura zahar askoren garran-  
tziaz ere ohar nendin lortu zuen maixu honek, tesina egiterakoan gaia aukeratzen  
eta burutzen laguntza ederra eskainiz. Horrexegatik, lan hau egiten lagundu di-  
daten beste artzain, senitarteko eta lagun guztiei bezalaxe, eskerrak eman nahi  
nizkioke berari bereziki lerroon bitartez.



## METODOLOGIA

Aurreko atalean aipatu bezala, artzantza aztertzeke erabakia hartu nuen nere tesina burutzeko. Baina azterketa hau Euskalerra osora zabaltzea ezinezkoa zitzaidanez —denborak eta bitartekoez mugatzen baininduten—, lurralde zehatz bat hartu eta honen azterketa sakona egiteari egokiago eritzi nion, horretarako gertuen eta hobekien ezagutzen nuen lurraldea aukeratuz, hots, Urbia. Orduko lan hark «Urbiako artzantza» zuen izenburu. Hala ere, geroko azterketen ondorioz, Urbia-Oltzeko artzantza ipintzea osoagoa iruditu zait. Dena den, lanean zehar goilur horiek aipatzerakoan beti Urbia-Oltze jartzeak asko luzatuko lukeenez, Urbia besterik ez dut jarri askotan. Oltze, lur jakin horretaz ari naizenean erabiliko dut.

Goierriko zenbait herrik eta Arabako beste zenbaitek 1430.eko Azaroaren 16an Sandrateiko kobazuloan izenpeturiko hitzarmenaren bidez sortutako *Partzuergoaren* barruan dago lekutua Urbia-Oltze. Bertan izaten dira artzainak udaberrietik udazkena bitarte, neguan beren baserri edo negutokietara jaisten direlarik.

Lanari ekiterakoan, lehenengo hurbiltze batean, Euskalerriko artzantzaz zegoen bibliografia aztertzen hasi nintzen. Honek, ugaria ez izan arren, bigarren pausoa errazago ematen lagundu ninduen. Izan ere, txabolaz txabola eta artzainez artzain aurrez prestaturiko galderak eginez eta informazioa jasoz osatua baitago gehienbat lan hau; inongo liburutan azaltzen ez diren datu mordoa jaso ahal izan dut artzainen ahotik. Honek, aztertze-lan aldetik bere meritua izan arren, baditu bere arriskuak zeren horrelakoetan maiz asko gertatzen baita batak emandako informazioa besteak ez onartzea edota beste era batera azaltzea.

Konparaziotarako, artzainei artaldean zenbat buru dituzten galdetu besterik ez dago, zenbait datu lortzearen zailtasunaz jabetzeko: «*Aurtengo negue pasatzeko geiei*»; «*100 baño geio bai beintzat*», (itsua ere 400 buru pasa daudela konturatuko zatekeen artaldean); «*Pentsutan gure iraaizik eamateko aña*», etab.

Bestalde, urtez urte aldaketak ematen direnez, lana 1985.ean burutua izan arren, 1990.eko udazkenean zenbait ikutu eman behar izan dizkiot, datuak zuzenduz eta eguneratuz. Hala ere, gai honetan zaletua den lagun baten lana besterik ez denez, inola ere ez profesional batena, beharbada ez dira faltako liburuan zehar oker lekututako izenak, gaizki zenbatutako artaldeak edota egunez aldatutako

lanak. Lanaren zailtasunaz ohartuko zaretelakoan, hemen ere, horrelakoetan esaten dena aurreratu behar: «Ongi idatzitakoak eskertu eta gaizki daudenak barkatu». Argazkiarena izango da agian profesionaltasunik eza agirian gehien utziko duen arloa. Ia denak neronek ateratakoak direla esan beharra dago eta jakina, kalitatea ez da nahi bezain ona. Jendeak utzitako zenbait argazki ere azalduko da liburuan zehar; horrelakoetan, oinean doan ohartxoan azalduko da egilearen izena, atera zeneko datarekin batera.

Azkenik, idazkerari dagokion ohartxoan egin nahi nuke. Lana Goierriko zati batean lekutua izan eta liburua euskara batuaz idatzia dagoenez, batzutan zenbait izen eta esakerek bizitasuna gal lezaketela eta, grafia bereziz idatzita jarri ditudala azaltzen dizuet, hitz egiten duenaren hizkera errespetatuz. Liburuaren atzekaldean 167 orrialdeko hiztegiak datoz hitz hauek batuaz idatzita, zenbait argibiderekin batera. Horiez gain, hiztegi labur horretan, ezezagun gerta litezkeen beste zenbait hitzen esanahia ere azaltzen dizuet.

## 1. URBIA-OLTZEREN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

### 1.1. Sarrera

Urbia (Urbia-Oltze) Gipuzkoako hegoaldean kokaturik dagoen lurraldea dugu. Sandrateiko kobazuloan hasi eta Artzanburuko gainean bukatzen dira Urbiko larre eta basoak. Hegoaldetik iparmendebaleruntzkoa du bere norabidea eta lau aldetatik ondo mugatua dago:

- Iparraldetik Aizkorri mendikateak ixten du. Honek ere norabidea haren berdina du: HE-IM. Bere tontor nagusienak Haitxuri (1.551 m.), Aketegi (1.549 m.), Aizkorri (1.528 m.) eta Arbelaitz (1.513 m.) ditugu. Hauekin batera Andraitzeko lepoa eta Artzanburuko gaina ere aipatzekoak dira kareaitzeko mendikate honetan.
- Hegoaldetik, berriz, lehenengo Urkilla mendikateak eta gero Zabalaiz, Enaitz eta Iferrutz mendiek mugatzen dute. Urkillako tontor nagusienak Pin-Pill (1.279 m.) eta Malkorra (1.246 m.) dira.

Urbiara oinez joateko hiru sarrera nagusi erabiltzen dituzte artzain nahiz mendizaleek: (ikus I mapa).


- Arantzazutik abiatuz, Amabirjin-iturritik gora, Elolako lepora (Elorrola) (1.163 m.) igotzen dena.
- Altzania nahiz Santispiritu aldetik etorrira, Sandrateiko kobazuloa (1.005-1.028 m.) zeharkatuz erabiltzen dena.
- Araba aldetik igotzeko, Askiolako iturri ondora (1188 m.) datorren bidea jarraituz dagoena.

Hiru hauez gain, nahiz eta aldapatsuagoak eta ondorioz, neketsuagoak izan, maiz erabili izan dituzte Andraitzeko lepoa (1.380 m.) deritzana Zegama aldetik etortzeko eta Artzanburu aldetik, Iferrutzeko lepoa (1.249 m.) zeharkatuz datorrena Arantzazu, Udana eta Brinkolatik hurbiltzeko.





1 argazkia. Elolako lepoa laino artean (84-3-15).



2 argazkia. Garai bateko Mikelete-etxea, gaur mendi-aterpe. Teiltuaren pare-parean dago Sandrateiko kobazuloa (84-4-23).



Gaur egun, ordea, artzain gehienak mendi-ibilgailuren baten jabe dira eta eguraldiak laguntzen duenean behinik behin, mendi-bideak erabiltzen dituzte Urbiaratzeko. Horretarako bi bide nagusi dituzte: Arantzazuko praileen granja ondotik, Artzanburu eta fonda ondora datorrena lehenengoa; arestian aipatu dudana Araba aldekoa bestea.

Urbia erdia, erreka ezkututzen den lekua, 1097 metrora dago eta Oltzeko zelaia 1.096 metrora. Goiera hau dela eta, Azaro eta Apirila bitartean elurra noiznahi ager liteke, azken urteotako eguraldiak beste traza batzu hartu baditu ere. Nolanahi ere, beranduenera Azaroaren bukaeran bertatik alde egin beharrean izaten dira artzainak.

Hegaztiak bezala, goitik begiratuta gaztain-hosto itxura dauka Urbiak (Ikus 1 mapa), hau da, hegoekialdean eta ifarmendebalean zeharo estutzen da, erdialdean zabalduz. Bestalde, geografikoki, Aizkorri da Urbia gehien mugatzen duen mendikatea. Oso garaia da eta horren ondorioz, itsasaldetik datozen laino eta eurijasek oztopo haundia aurkitzen dute hau gaingitzaerakoan. Pasatu ahal izateko, iparraldean hustu behar izaten dute euria ondoren Urbian hondarrak utzi eta Arabako lautadara ia erabat lehorturik iritsiz. Hau dela eta, Urbian iparraldean (Oñati, Legazpi, Zerain, Zegama) baino euri gutxiago egiten du. Hala ere, itsas aldeko klima bezala har genezake; honen barruan, mendiko erakoa litzateke.

## 1.2. Lurraren egitura, landaredia eta basoak

Urbiako lurraren egitura aztertzerakoan gauza bat aipatu behar da nagusiki, hots, kareraitzezko lurraldea dugula. Karst-ak eta erreka-zuloak ugariak dira.



3 argazkia. Aizkorri Miralekuko larreetatik ikusita (84-4-23).



Nonnahitik ateratzen da ura iturri garbi eta freskoak sortuz: Belar-iturri, Alda-iturri, Pagokoaitzekoa, Arkaitzekoa, Laskolatzakoa, Astonzulokoa, etab.

Artzanburu gainean jaio eta Mandabidetatik behera datorren erreka, Urbiako zelaiaaren ekialdean guztiz ezkututzen da, Pagokoaitzeko iturria baino berrehun bat metro aurrerago.

Alde guztietatik itxita dagoen «kubeta karstikoa» dugu; denok uler dezagun, enbutu baten antzekoa. Lainoek botatako ura edo elurra, enbutu horren zulotik joango litzateke, hau da, lurralde osoan zehar dauden dolina edo elur-zulo horietatik barrena. Hauetako zulo batzutan denbora luzez mantentzen da elurra; bertan elurra pilatuz, janariak kontserbatzeko ere erabili izan zituzten artzainek.

Lurraren egiturari begiratuz gero, San Adriandik hasi eta Artzanbururaino bi zati bereiz genitzake (Ikus 2 mapa):




- Laskolatza eta Arbelargo saroietaraino iristen dena bata.
- Saroi hauetatik Artzanburuko gaineraino doana bestea.



Lehenengoan haitza eta basoa dira nagusi Oltzeko zelaia eta inguruko larre batzu izan ezik (Pin-Pill, Askiola, Sutoki, Zulonpo, etab.). Euriak, elurrak eta izotzak haitzak desegin egin ditu eta tartetan pagoak jaio dira. Basapagoak dira, ia denak enborrak okertuta dauzkate bai haizearen eraginagatik, baita haitzak berak egiten duen indarragatik ere. Tarteka otsalizar eta elorrantza banaka batzu ere azaltzen dira baina pagoa da nagusi. Garai batean *agiñe* ugari omen zen, Araba basoan batez ere, baina orain ale bakar batzu besterik ezin litezke ikus. Izan ere, zuhaitz honen egurrak izugarritzko eskea izaten zuen artzainen artean.




4 argazkia. Haitz tartean jaiotzen dira pagoak (84-4-23).

2 MAPA

	Larreak.
	Haitza.
	Easoa.

 Larrebideak.  
 Saroiak.



2 MAPA: Urbia-Oltzeko landaredia eta basoak.





5 argazkia. Kalparmuino gaineko hagina. Atzean Andres Atagoitti eta Iñaki Arana (90-9-13).

Bere biguntasuna dela eta, tresna mordo egiteko erabiltzen zuten, hala nola, *uztaiak*, teilatuetako *burruntziak*, etab. Garoa, berriz, Oltzipurdiko tarte batzutan eta Araba baso aldean besterik ez da ageri; lehen artzainek Arantzazuko basotik ekartzen omen zuten ardiei eta txerriei *azpiak egiteko*. Orbelak ere lan bera betetzen du. Azkenik, ezin ahaztu artzainarentzat hain garrantzitsuak diren lizar eta asunak. Lizar hostoak ahariei eta gaisorik dauden ardiei ematen zaizkie; lizar egurrez hesiak egiten dituzte eta bere itzalak abaroleku paregabea eskeintzen die ardiei udako beroaldietan. Asunak, aldiz, *illakazkian* sarturik jaisterakoan esnetara eroritako zikinkeriak kentzeko erabiltzen zituzten. Gaur egun, ordea, oihal estu batek betetzen du lan hori, burdinezko pasadore baten gainean jartzen dena hain zuzen.

Bigarrean larreak dira nagusi. Belar txiki eta zorrotza baina, artzainek diotenez, indar haundikoa. Larreetan geroz eta *txillar* mordo gehiago ari da azaltzen, ardiek kimu berriak jan ondoren borobildurik agertzen diren txilar mordoak. *Otak* ere azaltzen dira tarteka. Larreak izorratzen ari omen dira, artzaintza behar baino haundiagoa baita. Zenbaiten ustez, *hazienda* haundiegia dago Urbian eta hori nolabait mugatu egin beharko litzateke baldin eta janaririk gabe geratu nahi ez badute. Aralar aldean ere beste horrenbeste gertatzen ari zen baina han ongarria bota zieten larreei helikopteroz; hemen ez da ezertxo ere egin. Hori, gainera, ez dago artzainen esku.

Azken zati honetan ere badago haitza baina neurri txikiagoan eta gehienbat aldameneko mendi eta muino gainetan.



**6 argazkia. Urbian larreak dira nagusi (90-9-14).**




**7 argazkia. Martin Etxezarreta eta Andres Atagoitti fonda ondoan su-egurra prestatzen. Egilea: ? (1990-8).**

Arestian aipaturiko baso haietatik ateratzen du artzainak behar duen egurra, baina behar beharrezkoa duena bakarrik, gehiegikeriarik egin gabe. Lege hau bete dadin Partzuergoaren basazainek, artzainen batek egurra behar duenean, zuhaitz egokia aukeratu eta markatu egiten du, ondoren artzainak joan eta bota dezan. Eroritako edo igartutako zuhaitzak su-egurretarako erabiltzeko, aldiz, ez dute inolako eragozpenik artzainek.

Garai batean, ia mende honen erdira arte, ikazkintza oso garrantzitsua omen zen baso hauetan. Oraindik ere sarri ikus daitezke *ikatz-txondorren* aztarnak pagadi barnean sartuz gero. Egur-ikatz hau burniola zaharretan sua egiteko erabiltzen omen zen. Hau zela eta, Legazpiko herriak lur batzu erosi omen zizkion Partzuergoari baina berezitasun batekin: Legazpi egurraren jabe zen bakar-bakarrik, ura eta larreak Partzuergoarenak zirelarik. Gaur egun oraindik indarrean dirau orduko hitzarmen hark.

Urbia-Oltzen zehar zuhaitzak edozein tokitan hazten dira, larreetan izan ezik. Artzainek bota egin omen zituzten larrea ugariagoa izan zedin. Aizkorri mendian 1.400 metrotik gora ez dago bat ere; Pago-bakar izenekoa da azkenekoa. Hemendik gora gehiena haitza dugu, tarteka belar motz eta gogorra hazten bada ere. Arbelargo ardiak maiz asko ikus daitezke goilarre hauetaraino janari bila igota.





## 2. ARTZANTZA

### 2.1. Gipuzkoako eta Arabako partzuergoa

Urbia eta Oltzeko larre eta basoak «Parzoneria General de Alava y Guipúzcoa» delakoaren barnean daude sartuta. Hauez gain Aizkorri, San Adrian, Altzania eta Goiburuko lurraldeek osatzen dute elkarte hau.

Bere sorrera ezagutzeko XV. mendera jo behar dugu, 1401 urtera hain zuten. Urte honetan Gaztelako erregeak, Enrique III.ak, Gipuzkoako «Corregidore» zen Fernando Perez de Ayalari lurralde hauek eman omen zizkion eta honek handik urte batzutara Segurako herriari saldu. Arabako zenbait herri, ordea, (Agurain, Zaldueño, Egiluz, etab.) ez omen ziren tratu honekin gustora geratu; ondorioz eztabaidak eta istiluak sortu omen ziren herri hauen eta Gipuzkoako artean, 1430.eko Azaroaren 16an, San Adriango kobazuloan bildurik, lurralde guzti hauekin Partzuergoa osatzea erabaki zuten arte. Hauek erabiltzeko baimena ondoko herri hauekiko biztanleek dute: Segura, Zegama, Idiazabal eta Zeraingoez Gipuzkoa aldetik; Donemiliaga eta Asparrena ibarretako herriek Araba aldetik. Hala ere, gaur egun Oñatiko biztanleek badute Urbia eta Oltzeko larreak erabiltzeko eskubidea eta baita Partzuergoeko Oñatiko zenbait larre erabiltzekoa ere.

Elkarte honek 560 urte daramatza bizi-bizirik, aldaketa sakon haundirik izan gabe gainera. Partzuergo burua Segura dugu eta bertako udaletxean dago honen artxibo nagusia, Agurainen ere agiri asko egon arren. Azken bilera berezia Sandrateiko kobazuloan egin zen, 1981.eko Martxoaren 28an. (Ikus I Eranskina).


### 2.2. Saroia

#### 2.2.1. Urbia-Oltzeko saroiak

Saroi, artzainen txabolak eta eranskinak dauden lekuari deritzo. Hauek beti haize eta euri-erasotik babesturik egoten dira; horregatik izaten dute beti txabolek atea hegoekialdera begira. Gainera haitz tartean edo ondoan eraikitzen zituzten beti larreei lekuri ez jateko. Modu honetara txabolak eta hesiak egiteko ere ez zuten harri faltarik izaten.



**8 argazkia.** Sandrateira doan galtzada, Eskaratzeko zelai ondoan. (91-2-9).



**9 argazkia.** Sandrateiko kobazuloko irteerako arku. Hementxe egin zen 1981.eko bilera. (91-2-9).




Urbia-Oltzeko lurraldean zehar hiru saroi bereiz ditzakegu: Laskolatza, Arbelar eta Oltze. Laskolatza eta Arbelar bata bestearen parean daude; lehenengoa hegoaldean, Araba aldera; bigarrena iparraldean, Aizkorri mendikatearen mendean, Arbelaiz tontorraren pare-parean hain zuzen. Oltze, berriz, hauetatik eskubitara dago, Aizkorriko gurutzearen pare-parean, behean. (Ikus 1 mapa)

Garai batean 30 artzain baino gehiago ibiltzen baziren ere, 1931 urtean 27 ziren esate baterako, gaur egun 9 artalde besterik ez dago lurralde hauetan. Arana anaiak izan dira hemendik alde egiten azkenak, 1987. urtean. Saroiz saroi, bost daude Laskolatzan, hiru Arbelarren eta bakarra Oltzen. Hala eta guztiz ere, artzain bakoitzeko ardi kopurua haunditu egin denez, orain lehen baino ardi gehiago dago. Izan ere, mende hasieran artzain bakoitzak 100en bat ardi edukitzen omen zituen gehienera jota. Orain badira 600 eta 700 buruko artaldeak. Guztira 1990. urtean 3.800en bat ardi omen dabilta larre hauetan, zenbaiten ustez gehiegi.

Ondoren, artzainei buruzko xehetasunak azalduko ditut, saroiak kontuan izanik:

## A) LASKOLATZA

Saroi honetan sei artalde zeuden nik lan hau burutu nuenean 1985. urtean. Dena den, lehen aipatu bezala, orain hiru urte Arana anaiek utzi egin zioten Urbiara igotzeari artaldea saldua. Ondorengo hauek dituzue bertako artzainak:



10 argazkia. Joxe Goibururen saroiak, Laskolatza haitzartean. (90-9-14).

Lanondria de Etna y Norbia				
<u>Indies</u>	<u>Apellidos</u>	<u>numero</u>	<u>puerto</u>	<u>o paraje</u>
José Domingo	Merica Irua	ocupan nº 18	<u>en Urdihar</u>	
Dionisio	Merica Irua	id. nº 19	id.	id.
Juanisec Antonio	Jabalón Aracama	id. nº 20	id.	id.
José Ignacio	Mericañabal Merica	id. nº 21	id.	id.
Juanisec M <sup>o</sup>	Alistera	id. nº 22	id.	id.
Enas	Lecuerriaga Erroada <sup>1a</sup>	id. nº 23	id.	id.
José Antonio	Orregui	id. nº 24	id.	id.
José M <sup>o</sup>	Estegui Aguirre	id. nº 25	id.	id.
José M <sup>o</sup>	Mericañabal Lanca	id. nº 26	id.	id.
Ignacio	Mericañabal Sparraquiere	id. nº 27	<u>en Escociana</u>	
Leocadio	Sparraquiere Merica	id. nº 28	id.	id.
José M <sup>o</sup>	Mericañabal Merica	id. nº 29	id.	id.
Miguel	Mericañabal Merica	id. nº 30	id.	id.
Juanisec M <sup>o</sup>	Mericañabal Merica	id. nº 31	id.	id.
Santiago	Mericañabal Sparraquiere	id. nº 32	id.	id.
Juanisec Antonio	Sparraquiere Merica	id. nº 33	id.	id.
José M <sup>o</sup>	Esraola Mericañabal Merica	id. nº 34	id.	id.
Antonio	Sparraquiere Merica	id. nº 35	id.	id.
Pedro	Echevarreta Merica	id. nº 36	id.	id.
Augusta	Goiburu	id. nº 37	id.	id.
Flora Tico	Goiburu	id. nº 38	id.	id.
Domingo	Goiburu	id. nº 39	id.	id.
José	Sparraquiere	id. nº 40	id.	id.
Martín	Mericañabal Merica	id. nº 41	<u>en Oltzen</u>	
José	Opasido	id. nº 42	id.	id.
Julian	Aguirre y Aguirre	id. nº 43	id.	id.
Agapito	Opasido y Opasido	id. nº 44	id.	id.
Agencia nº 49 de Agosto de 1931				
<u>Comisión de Inspección</u>				

1 Agiria: 1931. urtean Urbia-Oltzen zeuden 27 artzainak. Segurako artxibategitik jasoa.

## 1) ARANA ANAIAK

Joxe Martin eta Atanasio Arana Aranburu anaiak Beasaingo Errezkarate baserrian jaiok dira; 1920an lehena eta sei urte geroago, 1926an bigarrena. Beren gurasoak ere, Joxe Arana eta Maria Aranburu, Beasaingoak ziren. Hala ere, Atanasiok 6 urte zituela, jaiotetxea utzi eta Ormaiztegiko Ojarbira joan ziren bizitzera. Gerra piztu zen urtean erosi omen zituzten lehen ardiak, 27ren bat; hauekin Idiazabalgo mendietan, Garagarzan eta Apotab ibili omen ziren Urbiara 1944an joan aurretik. Honetarako Idiazabalen enpadronatu behar izan zuten, bestela ez bait zeukaten Partzuergoko lurak erabiltzeko eskubiderik.

43 urte egin dituzte beraz bi artzain hauek Urbian beti Laskolatzako txabolaren batean egon direlarik. Orain Urrietako Armotza (Almorza) baserrian bizi dira, lehen negupartea igarotzeko erabiltzen zuten baserrian alegia. Atanasio ezkongabea da; Joxe Martin, berriz, Oltzen hazitako emakume batekin ezkondu zen, Pilar Oiarbiderekin. Bi seme izan dituzte, Joxe Mari eta Iñaki, baina hauek



II argazkia. Joxe Martin Arana eta Pilar Oiarbide Armotza baserriko atarian. (88-4-25).





12 argazkia. Atanasio ardiak Armotzako artegitik ateratzen. (90-12-3).

ez dira artzain lanetan ari. 300en bat buruko artaldea izaten zuten bi anaien artean. Orain dozenatxo bat besterik ez dute: «*Denboapasako, bestela aspertu eitten gattuk eta!*» zioen Atanasiok.

## 2) JOANITO ETXEZARRETA

Joanito Etxezarreta Muñoa Zegamako Padrene baserrian jaioa da, 1925. urtean. Hala ere, gurasoak Urbiako artzainak zituenez, ez zen denbora luzez izan kalean. Laister zen Urbiako lurretan eta hantxe izan da 65 urte hauetan zehar. Aita, Pedro Etxezarreta, Idiazabalgo Zelaundieta baserrikoa zen; ama berriz, Hilaria Muñoa, Zeraingo Sagastibilakoa.

Txokoko Joanito, Urbian artzain ohitura haundia duen familiakoa dugu. Izan ere, Fondako Martin Etxezarretaren anaia eta Arbelargo Emiliano eta Jesus Etxezarreta anaien osaba baita (Orain zazpi urte hil zen hauen aitaren, Domingo Etxezarretaren, anaia).



13 argazkia. Joanito Etxezarreta txabola ondoko baratzean patata ateratzen. (90-9-13).

Joanito ere Urbian bertan hazitako emakume batekin dago ezkondua, Segurako Korrale baserriko Kontxita Goibururekin. Sei seme-alaba dituzte: Kontxi, Felix, Isabel, Xanti, Miel eta Arantxa. Aipatu beharra dago, hiru semeek eusten diotela artzain ohiturari. Zaharrenak, Felixek, Opakuan dauka txabola; beste biek, berriz, Xanti eta Mielek, aitarekin batera zaintzen dute Urbiako artaldea, orain 600 buru pasatxo dituena. Duela 32 urte erosi zuten Gordoan etxea eta bertan ematen dituzte udazkena eta udaberriko egun batzu.

### 3) ANDRES «ATAGOITTI»

Andres Zufiria Audela, Gabiriko Atagoitti baserrian jaio zen 1941eko udazkenean. Aita, Franzisko Zufiria Goiburu baserri berekoa da; ama, berriz, Maria Dolores Audela Altza Irungo Bentetatik ezkondu zen Gabirira. Arana anaien kasuan bezalaxe, Idiazabalen enpadronatu zen Andres, Urbiara joateko eskubidea lortzearren. Hara orain dela 24 urte joan zen, 1966an hain zuzen, Florentino Goibururi artaldea erosi zion eta honekin batera baita bere txabola hartu ere; aurretik etxe inguruko larre eta basoetan ibiltzen zen artzain, Aizeleku mendian gehienbat. Ondoren antzutu eta gero Andraitz aldean izaten zuen artaldea, Urbiara joan zen arte.

49 urte dituen artzain gogor honek jaiosz geroztiko elbarritasuna du hanketan. Hala ere, eta bere lagun eta lankide paregabe horri esker, Urbian hain ezaguna den Joxantonio astoari esker alegia, ederki asko burutzen ditu egin beharreko lan



14 argazkia. Andres Zufiria eta Joxantonio bere astoa Gabiriko Atagoitti baserrian. (84-4-15).



guztiak. Bera izaten da gainera udazkenean Urbiatik aldegiten azkena, elur artean gehienetan. Ezkongabea da eta 200 buru inguruko artaldea dauka.

#### 4) JOXE LUIS «IRAZOLA»

Joxe Luis Uribetxeberria Zabaleta ere Gabirian jaioa dugu, Irazola izeneko baserrian, 1949. urtean zehazki esateko. Aita Damaso Uribetxeberria du, Eskoriatzan jaioa baina gaztetan sendiarekin Gabirira bizitzera etorria; ama, berriz, Bizenta Zabaleta Gabiriako Jauregi baserrikoa. Artzain honek ere, Partzuergoa osatzen zuten herri batekoa ez zenez, Idiazabalen enpadronatu behar izan zuen eta 1975ean joan zen lehen aldiz Urbiara. Aurretik ere ibiltzen zen artzain herribasoetan eta etxe inguruan lehenik, gero Katabera inguruan. Urbiara joateko Legazpiko Lakiolari hartu zion txabola; bere artaldea 160ren bat buruk osatzen dute.



15 argazkia. Joxe Luis Uribetxeberriaren txabola eta eranskinak neguan. (84-4-23).

## 5) JOXE GOIBURU

Joxe Goiburu Goiburu 1930. urtean sortu zen mundura, Idiazabalgo Arteaga baserrian, baina honek ere laister eman zituen lehen pausoak Urbia aldean, izan ere, bere gurasoak han egoten bait ziren artzain, baita aiton-amonak ere. Aita Domingo Goiburu zuen, «Domingo Haundi», Segurakoa. Ama, berriz, Antonia Goiburu Idiazabalgoa.




16 argazkia. Joxe Goiburu Arabako eguzkitan artzain. (91-2-24).

Zegamako Dinti baserriko Arantxa Lapitzondorekin ezkondua dago, lau seme-alaba dituela: Domingo, Juan Joxe, Elena eta Maria Dolores. Seme zaharrenak, Domingok, aitaren urratsak jarraitzen ditu artzain lanetan. 330en bat ardi eskas ditu beren artaldeak. Hauek ere, Araba aldean erosi zuten baserria orain 30 urte, Galarretan hain zuzen, eta bertan igarotzen dute negupartea.



**17 argazkia. Domingo eta Juan Joxe Goiburu txabola ondoko eskortan arkazteak banatzen. (90-9-12).**



#### 6) IXIDRO ETA PEDRO «ZELANDITA»

Ixidro eta Pedro Legorburu Arana Idiazabalgo Zelaundieta baserrian jaio ziren 1936.ean lehena eta 1944.ean bigarrena. Gurasoei dagokionean, aita, Joxe Mari Legorburu, Idiazabalgo baserri berekoa zen; ama, Engrazia Arana, aldiz, Beasaingo Errezkaratekoa.

Betidanik ibili izan dira artzain, Idiazabalgo herri-basoan gehienbat, eta orain dela 22 urte joan ziren Urbiara. Orain dauden txabolan, erdiko saroikoan, 14 urte egin dituzte, aurreko zortziak Juan Muñoarenean egin zituztelarik. 310en bat buruko artaldea dute.

Pedro ezkongabea da; Ixidro, berriz, Zegamako Eguzkitze baserriko Arantxa Zabaletarekin dago ezkondua. Hiru seme eta alaba bat dituzte: Gorka, Lierni, Iosu eta Andoni. Oraindik lanean hasteko gazte samarrak badira ere, gogoia izanez gero ez zaie hauei ere lan honetan jarraitzeko aukerarik faltako.



**18 argazkia. Pedro Legorburu Erdiko-saroiaren aurrean. (90-9-12).**



Joanito Etxezarretak «Txoko» taberna dauka bertara hurbiltzen diren mendizaleei hamaiketako eta bazkari ederrak eskeintzeko; lehen, Arana anaien txabolan ere, Pilar Oiarbidek eman ohi zigun salda eta txoriso-mutur ederrik. Laskolatzan, Urbia osoan bezalaxe, txabola asko dago hutsik. Florentino, Felix eta Euxebio Goiburu anaiak, Joxe Mari Alzarte, Joan Otatza,... dira besteak beste saroi honetan izandako zenbait artzainen izenak.

## B) ARBELAR

Lekuaren ezaugarrietatik datorkio saroi honi izena, arbel-harria ugari baita leku honetan. Hiru artzain besterik ez daude saroi honetan:

### 1) FERMIN ARRIETA


Fermin Arrieta Otaegi Zegaman jaio zen 1932. urtean. Kale-etxean jaiotako artzaina dugu hau. Bere aita, Anjel Arrieta ere kalean jaioa zen, Zegaman. Ama, Josefa Otaegi, berriz, herri bereko Zuloaga baserriko 18. senidea omen zen. Ferminen aitona erosi omen zuen artaldea Bizkaia aldean; harrez gero beti izan dira Urbian. Lanbitako sarioia esaten diote bere txabolari, baina Arbelargo artzain izenez da ezaguna.

Lorentxa Etxezarretarekin dago ezkontuta eta bi seme ditu, Anjel eta Domingo. Bigarrenak artzain lanari jarraitzen dio; ia 700 buru dituen artaldea zaintzeko norbait behar!



19 argazkia. Fermin Arrieta eta Lorentxa Etxezarreta txabolako behekosuaren aurrean. (90-9-13).

- 1. Eskorta-jaistokia.
- 2. Baratzea.
- 3. Ur-depositua.
- 4. Txabola.
- 5. Horrak.
- 6. Txakurtokiak.
- 7. Gaztandegia.
- 8. Lizarrak.
- 9. Pagoak.



2 Agiria: Fermin Arrietaren saroiaren planoa.



3 Agiria: Lanbitako saroia. Egilea: Xabier Odriozola (1984).

## 2) EMILIANO ETXEZARRETA

Emiliano Etxezarreta Oiarbide Segurako Madalena baserrian jaio zen 1957.urtean. Aita, Domingo Etxezarreta Zegaman jaioa zen; ama, Anttoni Oiarbide, berriz, Segurako baserri berekoa da eta oraindik ere Urbian egoten da bere beste semearen, Jexuxen txabolan.



20 argazkia. Emiliano Etxezarretaren txabola, Arbelarren (90-8-19).





**21 argazkia. Emiliano Etxezarreta bere emazte eta seme-alabekin Zeraingo Telletxea baserriaren ikuilu ondoan. (91-2-2).**

Jaio eta handik egun gutxitara joan zen Urbiara artzain hau, bere anai-arrebak bezala eta orokorrean, gurasoak Urbiako artzainak zituzten ume guztiak bezalaxe. Hernaniko Ereñozu auzokoa den Milagros Oiartzabalekin dago ezkondua eta 5 seme-alaba ditu: Garbiñe, Txomin, Joxe, Iosu eta jaio berria den Mirari. Ardiak, berriz, 540 inguru ditu bere artaldean.

### 3) JEXUX ETXEZARRETA

Aurrekoaren, Emilianoren anaia dugu 1953. urtean jaiotako artzain hau. Segurako Madalena baserrian jaioa hau ere, besteak baino gorago dauka txabola, Aizkorriko bide-bidean. Bertan taberna ere badaukate.

Lourdes Errazkinekin dago ezkondua eta ez daukate seme-alabarik. 420ren bat buruko artaldearen jabea da.



**22 argazkia. Anttoni Oiarbide bere seme Jexux —artilea kardatzen—, eta Emilianorekin eta beronen seme Joxerekin Arbelargo txabolan. (90-9-13).**



23 argazkia. Arbelargo txabolak leiho eta ateaq parez-pare itxita neguan. (84-3-15).

Garai batean saroi honetan ere artzain gehiago izaten omen zen: Santiago Goiburu —«Korraleko Xanti»—, Joan Zabalo, Joxe Mari Oiarantzo,... . Saroi honetan ere ez da falta Aizkorri aldera doan mendizale nahiz bisitariari ahoa goxatzeko aukera emango dion tabernatxoa. Jexux Etxezarretaren txabolan dago berau eta Anttoni Oiarbide bertan egoten da oraindik beti jendea zerbitzeko prest.

#### D) OLTZE

##### 1) JOXE MARI «OLTZEKOA»

Joxe Mari Oiarbide Olabide dugu Oltzen dagoen artzain bakarra. Zegamako Aitamarrren etxean jaiotako 55 urteko artzain hau, Agapito Oiarbide Aranzadiren eta Paskuala Olabide Munasororen semea dugu, Segurako Azparatza baserrikoa lehena eta Zegamako Etxe-haundikoa bigarrena.


Serafina Larrea Aldasororekin dago ezkondua eta seme bat, Jexux eta alaba, Mari Paz, ditu. Hauek 250ren bat buruko artaldea zaintzen laguntzen diote aitari.

Dominika Arrizabalaga, «Oltzeko Dominike», duela urte gutxi arte aritu da artzain Oltzen. Hantxe dauka oraindik Oltzeko zelaian, txabola eder askoa, Joxe Marirenetik Araba aldera. Lehenago hemen egondako beste artzain batzu: Mahalako Joxe eta Miel Txiki arabarra, Martin Urbizu eta Julian Agirre.





24 argazkia. Oltzeko Joxe Mari bere aita zen Agapito, emazte eta seme-alabekin, txabola ondoko pagoaren itzalean. Egilea: Jabier Cristobal (1983).



25 argazkia. Urbiako fonda da artzainen eta mendizaleen batzarlekua. (91-1-5).

Saroiak ez badira ere ez nituzke hemen aipatu gabe utzi nahi Urbian garrantzi handia duten beste bi leku. Urbiako basiliza da bata, Urbiako Fonda bestea. Basiliza honetan igandero meza ematen du Arantzazuko praileren batek bertara inguratzen diren artzain eta mendizaleentzat. Ezin ahaztu hemen aita Lasa fran-ziskotarra, hainbat eta hainbat urtetan oinez igo dena igande batean ere huts egin gabe. Orain aita Villasantek bete du bere lekua.

Basiliza hau 1924.eko Irailean bukatu zuten eta ondoren aterpe-fonda lanak beteko zituen eraikuntza lanetan hasi. Garai hartan ba omen ziren Urbian fama ona ez zuten taberna pare bat. Haiek desagertaraztea zen Partzuergoko buruen nahia (Ikus III Eranskina). Orduan eraikitako fonda hura dugu Urbia osoan uda eta negu, jai egun eta bezperetan irikita egoten den leku bakarra. Artzainen batzarleku eta mendizaleen ostatu, artzantzan urte asko eman dituen gizasemea du gidari, Martin Etxezarreta Muñoa hain zuzen. 1928. urtean jaio zen Martin Zegamako Padrene baserrian. 30 urte bete arte Urbian artzain ibili ondoren, Estatu Batuetako Oregonera joan zen 15 urtez, eta handik itzuli zenean Fonda hartu zuen. Zegamako Gregori Berasategirekin dago ezkontuta eta seme bat dute, Miel. Askotan izaten da bertan laguntzen bere arreba Juxta. Baita Arbelargo iloba Lorentxa ere, lan handia espero duten egunetan.

PARROQUIA  
DE  
SAN MIGUEL  
DE  
Oñate 24

+

Setiembre 1924

Dr. Ubalde de Segura

Muy Sr. mio y de mi distinguido aprecio:  
Habiendo recibido ayer su atenta invitación, como  
Presidente de la Parroquia, para los actos del próximo  
domingo en la campiña de Urbia, con motivo  
de la bendición de la Ermita etc muy agradecido  
por su alta atención e invitación, doy á V.  
las más sinceras, expresiones y efusivas gracias  
por su dignación y atención; deseando que tengan  
dichos actos un completo y feliz éxito, como es de esperar.  
Aprovecho esta grata ocasión, para ofrecerme  
de V. affmo. y atto, s. s. y Capto

Dr. Enrique Lasa



26 argazkia. Martin Etxezarreta eta Gregori Berasategi fondako sukaldean. (91-1-5).

Fonda hau subastan hartu omen zuen Martinen aitak, Pedro Etxezarretak orain 54 urte. Ondoren honek bere alaba Juxtari utzi zion, eta akenik, Amerikatik itzuli zenean, berriro hara joateko asmotan etorri bazen ere, Martinek hartu zion bere arrebari.

### 2.2.2. Txabola eta eranskinak

TXABOLA da artzainak sarioian daukan eraikuntzarik tinko eta sendoena; honen inguruan aurkitzen ditugu beste eranskin guztiak. Atal honi ekiterakoan komenigarria deritzot lehengo eta oraingo txabolen arteko bereizketa egiteari:

— Txabola zaharretan estalkia *zotalez* zegoen egina. Pilar Oiarbidek, Joxe Martin Aranaren emazteak, gogoan dauka oraindik askotan ohean sartuta zeudenean teilatutik behera *ittukina* erortzen zitzauela gainera. Egin zezaketen gauza bakarra, guardasola zabaldu eta lotan segi, ezer gertatu ez balitz bezala.





27 argazkia. Elorri egurreko gurutzea eta Eguzki-lorea Oltzeko txabola babesteko. (91-1-5).

Txabola guztia gela bakarrekoa izaten zen eta bertan egiten zituen artzainak lan guztiak. Oin laukizuzena eta atea bizkarrarekiko perpendikularra zuen. Tei-latuak urak bi aldetara isurtzen zituen eta beronen maldan-behera ez zen oso haundia izaten. Zotalak egurrezko burruntzi edo kapirioen gainean jartzen ziren behetik gorako norabidean; hauen gainean txilarra edo pago-adarrak estalkia altxa ez zedin.

Hormak harrizkoak izaten ziren eta hauek uzten zituzten tarteetan lokatza, zoia eta goroldioa sartzten zituzten haizeari eusteko. Hormak oso lodiak izaten ziren eta ez zioten ez lehiorik ez tximinirik egiten; beheko-suaren kea txabola barruan geratzen zen edota teilatuan uzten zuten zulo txikiren batetik ateratzen zen. Pilarrek esan zigunez, bere amak sua pizten zuenean, burua tapakien azpian sartzeko agintzen omen zien, keak begiak ez erretzeko.




28 argazkia. Arana anaien saroiko txerritegia, zotalaz eta harriz egina lehen-go txabolen antzera. (90-11-3).

Garai batean itxi gabeko estalpea izan zuten aurrekaldean, pixkanaka-pixkanaka ixten joan eta azkenerako txabolaren zati bihurtzeko. Aterik ere ez omen zuten batzuk; ate-zuloaren aurrean harri haundi bat omen zegoen (0,60 m.) eta gauetan artzainak honen aurrean adarrez egindako hesitxoak jartzen omen zuten.

Orain gutxi arte atea irikita uzten zituzten artzainek, beheko suarena eta estalpekoa bereziki, eta su-egurra ere izaten zen mendizaleak sutondoan berotu zitezten. Baina azken urteotan sasi-mendizale askok txaboletan egin dituzten astakeriak direla eta, sarrailak jarri behar izan dituzte, kalterik ez izatearren. Hala eta guztiz ere, udaberrian Urbiara igotzen direnean ez dute ez, dena bere lekuan aurkitzen. Badirudi kaletarrek ez dutela ulertzen zabalik dauden ate horien esanahia.

— Gaurregungo txabolek ez dute aldaketa haundiegirik izan. Aipagarrietakoa teilaren sarrera izan liteke. Jakin badakigu, Euskalerrian teila norberarenak ziren eraikuntzetan bakarrik jar zitekeela; txabola hauek Partzuergoarenak direnez, artzainek ezin zezaketen teilarik jarri. Urbiako baseliza eta fonda egin zirenean, ordea, teila jarri zietenez, txabolek ere jaso egin zuten berrikuntza hau. Arrazoi honegatik dute orain Urbiako txabola guztiek era honetako teilatua. Ez da berdin gertatzen eranskinekin, hauetan zotalak, garoa eta latoizko txapak baitira nagusi.

Bigarren berrikuntza txabola haundiagoak egin eta gela desberdinetan banatzea izan da. Lehenengoa (aintzinako estalpea) sukaldea du. Hemen beheko sua eta gaurregungo gazezko sukalde berriak ikus ditzakegu. Gazta egiteko tresnak eta ontziak ere bertan egoten dira. Bigarren gela batean kamaña daukagu. Lehen



29 argazkia. Andres Atagoittiren eranskinetan ikus daiteke txapazko estalkia. (84-3-15).





**30 argazkia. Andres Atagoittiren txabola eta gaztandegia. Burdinazko atekak, teilak eta hormigoia dira berrikuntzarik haundienak. (90-11-3).**

txilarrez eta garoz egina bazen ere, orain denak koltxoiak dituzte. Azkenik, hirugarren gela gaztandegia izaten da; honek, sarrera txabolatik bertatik edo kanpotik izan dezake. Beste batzutan hutsik dagoen txabolaren bat ere erabiltzen dute (Arbelarren esaterako). Udan gaztanolak gaztaz beterik egoten dira, onduko dituen haizea leiho txiki batetik sartzen delarik.

Azkenik, txabolen sendotze haundia eman da. Oraindik ere harriz eginda baldin badaude ere, hormigoia erabiltzen da gogortzeko eta zoruan ere botatzen da lehengo lur zapalduaren ordeaz. Zenbait txabolatan baldosa eta guzti dute sukaldea, kale-etxe askotan baino dotoreago. Teilatuan, berriz, aislanteak eta plastikoak jartzen dituzte, baina hala ere zotala ez da galdu, bera baita beti hotzbero berdintsua gordetzeko gairik egokiena. Udan txabola prexko mantentzen du eta neguan barruko beroari ez dio ihes egiten uzten.



**31 argazkia. Fondakoek zaldia eta behorra erabiltzen dituzte oraindik ere Urbiara igotzeko Land Roverrak igotzerik ez duenean, neguan batipat. Egilea: ? (1990-8).**

Aldaketa hauek emateko arrazoi nagusia garraio-bide berrien sarreran dago. Lehen Urbiara gauzak eramatea asko kostatzen zen, zaldia bait zen hara trasteak igotzeko bide bakarra. Orain, berriz, ibilgailu motoredunak (Land Roverrak gehienbat; baita Suzukiak ere), erraz igo daitezke bertara; artzainarenak berak egiten ez badu, lagun edo ezagun batenak egin ditzake garraio-lan horiek, lehenengo izerdi haiek aurreratuz. Laburbilduz, txabolaren forma eta lekua ez dira aldatu baina sendotu egin da, gaurrengungo aurrerapenak sartuta artzainaren bizimodua hobetuz.

Atal hau bukatzeko, eta orain, 1990. udazkenean martxan dagoen zerbitzua ez izan arren, aldaketa dexentea ekar dezakeen aurrerapena dago aipatu beharra, urarena hain zuzen ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Partzuergoarekin batera, txabola guztietaraino ura jartzeari ekin baitio, artzainari lan bat kenduz. Izan ere, artzainak iturrira joan behar izaten du behar duen ura ekartzera, askotan urruti samarrera gainera. Ur-depositu txikiak egin dituzte, euria egindakoan txabolen teilatuetatik erortzen den ura jasotzeko; honek, garbitasuna egiteko balio badu ere, edatekoa iturritik ekartzen jarraitzen dute. Datorren udaberritik aurrera, gauzak ondo baldin badoaz, sukaldeko iturrian izango dute ur hori; lan bat gutxiago, aurrerapen bat gehiago.

ERANSKINAK dira aldaketa gutxien izan duten eraikuntzak. Nagusienak hauek dira: *eskorta*, *illorra*, *txerretegia*, *oilategia*, *illategia*, *txakurtegia*, *ketokia*, *baratzea*, *abarolekua* eta *iturriak*.



32 argazkia. Peruhaitz barrenean doan Land Roverra bezalako ibilgailuek asko erraztu diote bizimodua artzainari. (90-9-12).





33 argazkia. Atagoittiren eskorta laino artean. Sarreran askea dago hazarteko gaitza sendatzeko. (84-3-15).

ESKORTA izenez, ardiak biltzeko erabiltzen den itxitura ezagutzen dugu. Hormak gehienetan harri hutsez eginak egoten dira, 1-1,20 m.ko altura izaten dutelarik. Hala ere, badira lurtean sartutako pago-egurrezko hesiz egindakoak, Andres Atagoittirenean esate baterako.

Otsoak eta azeriak ugari ziren garaietan, ezinbestekoa izaten zen gauean ardiak eskortan sartzea, baina orain ardiak jatsi ondoren, kanpora ateratzen dira gaua pasatzeko. Orain ere badira azeriak, baina hauek nekez erasotzen diete ardi helduei.

Eskorta honek jastokitarako ere balio dezake beraz; hala denean, zati desberdinetan banatua egoten da langa batzuen bidez, ardiak jatsi ondoren, beste aldera pasatzeko. Bertan ardiak sendatu eta banatu ere egiten dira.



34 argazkia. Azeriak eta basurdeak dira Urbia-Oitzeko piztirik ugarietan. Basurde arrastoak elurretan. (91-1-19).

35 argazkia. Oltzeko ilorrra. Zotala eta txapa ditu estalki modura. Txerretegi bezala erabiltzen dute. Atzean, ezkerrean, txakurtegia. (84-4-23).



ILORRAK txabolak baino txikiagoak izaten dira. Laukatu zuzeneko oina eta hormak harri lehorrezkoak. Ez dute leihorik izaten eta aurrean ate txiki bat edukitzen dute barnean sartzeko. Teilatua garoz, zotalez edo txapaz estalia egoten da, estalki hauek beti burruntzi edo kapirioen gainean doazelarik. Hauen gainean pago-adar kakodunak jartzen dira gailurrean kateaturik, haizeak altxa ez ditzan. Teilatuaren aldapa txabolarena baino haundiagoa izaten da.

Ilorrak zeregin desberdinak bete litzake, hala nola, txerretegi, oilategi, ilategi eta nohizbehinka ahari edo ardi gaisoren bat sartzeko ere bai.

KETOKIA gehienetan txabola ondoan dagoen eraikuntza berezia izaten da baina batzutan gaztandegiak berak betetzen du lan hau. Ondo itxia behar du izan, sua egin ondoren keak kanpora alde egin ez dezan. Honen barruan gaztak gaztanoholetan egoten dira, ipar aldera begira dagoen leihatila batetik haizea sartzen zaiela. Haize hau da gaztak ontzen dituen.



36 argazkia. Joxantonio-ren garaje-lana betetzen duen ilorra. (90-9-13).



**37 argazkia. Oltzeko Joxe Mari gaztandegian. Gaztak bertan keatzen dituzte. Egilea: Jabier Cristobal (1984).**

**TXAKURTEGIA** txakurrarentzat bereziki egiten den eraikuntza dugu. Artzainaren lagun nekaezin hauei babesa emateko edozein trastek balio lezake: plastikozko bidoi haundi batek, haitzulo batek, harrizko nahiz txapazko estalpe batek... Oso xelebreak izaten dira eta txabola bakoitzean bizpahiru egon ohi dira.

**BARATZEA** txabola guztietan izaten dute. Urbian, han goian, dendara joan eta behar dena erosterik ez dagoenez, artzainaren janaria prestatzeko beharrezkoak diren zenbait barazki landatzen dituzte: porruak, azak, azenarioak, patatak, letxuak...

Baratzeak harresiz inguratuta egoten dira, normalean eskorta edo jaistokienak baino altuagoak izaten diren hesiak dira hauek, ardiek eta gainontzeko abereek (behor, behi,...) barrura salto egin ez dezaten.



**38 argazkia. Dominika Arrizabalagaren txabola eta baratzea Oltzeko zelaietan. (84-4-23).**





39 argazkia. Ardiak Lanbitarako bideko abarolekuan babestuta. (90-9-13).

ABAROLEKUA artzainak eraikitakoa ez izan arren, zati garrantzitsua da saroiaren barruan. Izan ere, udako egun beroetan ardiei babes ederra eskeintzen baitie, eguzkia sartu arte. Abarolekua saroi ondodan dagoen sakon bat izan ohi da, itzala egiteko pago edo lizar batzuk dituena. Ardi mozten ere bertan egiten dute eguraldi beroa denean.

ITURRIAK saroiaren bertan ez badaude ere, artzainaren bizitzan urak izan duen garrantziagatik eranskin modura aipatuko ditut.


Eguraldi normala izanez gero, azken bi urteotan ez bezala, ez da urik falta izaten Urbian. Iturri ugari daude, txaboletatik urruti samar, ordea. Edateko eta janaria prestatzeko ura, bertara joanda ekarri behar izaten dute, teilatutik erori eta ur-deposituetan bildutako euri-urak, ez baititu behar horiek betetzen. Dena den, 1991. urtetik aurrera, lehen aipatutako plangintzari esker, aurrerapen polita izango dute artzainek txaboletan. Hala ere, eraiki behar dituzten depositu haundi horiek betetzeko iturri hauek ura erabili beharko dute. Hona hemen, garrantzitsuenak (Ikus 3 mapa)

- Pagokoaitzeko iturria. Urbiako zelaian, errekaaren eskubikaldean dago, Laskolatza eta Arbelar saroietatik erdibidean.
- Arkaitzeko iturria. Zabalaitz azpian eta fonda gainean, bertatik hartzen du ura fondak.
- Alda-iturri. Arbelargo larreetan dago, Andraitz azpian.



### 3 MAPA: ITURRIAK

- ♣ Iturriak.
  - × Saroiak.
  - Eraikuntzak.
  - ▲ ● Hilobiak.
  - + - - + Herri-mugak.
  - + - + Probintzia-mugak.
  - ..... Bidexiorrak.
  - - - - Mendi-bidea.
  - Erreka.
- Eskala: 1:25.000.



3 MAPA: Urbia-Oltzeko iturriak.

- Laskolatzako edo ikazkinen iturria. Laskolatzatik Perusaroirako bidean.
- Belar-iturri. Perusaroitik Oltzerako bidean. Atanasio Aranaren ustez, izugarri motela omen da iturri honetako ura.
- Astozuloko iturria. Oltzeko larreetatik Oinbaikoitz aldera. Hemengoa bai ur ederra!
- Iturgoieneta. Artzanburuko larreetan dago. Urbi erreka bertan jaiotzen da.
- Eskaratzeko iturria. Sandrateiko kobazulotik gertu, Urbiarako bidearen ezkerrean.
- Zabalaitzeko iturria. Zabalaitz aitzaren azpian. Arantzazutik gatozela ezkerrean.
- Hiruiturrieta. Andraitzetik eskubitara, arbel-aitzetik sortzen da ura iturri honetan.
- Askiolako iturria. Araba aldetik datorren pistaren gorenean, ezkerrean.

### 2.2.3. Txabola hartzea eta aldaketak

Artzain batek Urbian txabola hartu eta bertara artzantzara joan nahi izanez gero, Partzuergoak jarritako zenbait arau bete beharko ditu. Jarraian datozen hauek dira nagusienak (Ikus II eranskina)

- Partzuergoa osatzen duten herriren batean (Zegama, Segura, Zerain, Idiazabal, Asparrena eta Donemiliaga) herritarra izatea eta etxea edukitzea. Adinez nagusiak izan behar dute gainera, eta baita herri horretan bizi ere. Honez gain biztanle-zerrendan azaldu behar dute.
- Txabola izateko eskabidea egin baino hiru urte lehenago izan beharko du herri horretako biztanlea.
- Artzantzarako, Partzuergoak idatziz ematen duen baimena eduki behar izaten da. Honen eskabidea norberaren herriko udaletxearen bitartez egin behar da eta ez zaio edozeini ematen; urtero erabakitzen den gutxieneko ardi kopurua eduki behar da.
- Artzainen batek bi urte edo gehiagotan txabolara joateari uzten badio, bertan egoteko eskubidea galdu egingo du eta bere ordeztu beste bat sar daiteke.
- Guztiz debekatuta dago txabola beste bati uztea edo saltzea. Hau aita eta semeen artean bakarrik egin daiteke, eta gainera Partzuergoaren baime-naz.
- Txabola utzi behar denean, egoera onean utzi beharko du artzainak. Hau horrela beteko ez balitz, Partzuergoak lege hau betetzera behartu dezake artzaina.
- Gaurregun Urbiara igo baino lehen, mendira daramaten ganadu-buru kopuruaren berri eman behar dute artzain guztiek Partzuergoaren idazkari-tzan. *Haziendak* behar bezala markatuta eta osasun egoera onean egon beharko du.



40 argazkia. Txabola asko dago hutsik Urbian. Honetan Legorburu anaiek alde egin zutenetik ez da inor sartu. (84-4-23).

- Artzain batek Urbian bertan, txabola batetik egokiago datorkion beste batera aldatu nahi izango balu, Partzuergoaren baimena eskatu beharko du.
- Txabola berria eraikitzeko edo lehengo zaharra berritzeko, eta artzantzarako ez den beste helburu baterako erabiltzeko ere baimena eskatu beharko da.
- Zenbait urtetan ardi edo zaldi bakoitzeko diru kopuru bat ordaindu bada ere, orain ez da ezer ordaintzen. Hau 1430.ean hartutako erabakian agertzen den larre dohaintasunari lotuz egiten dute artzainek. Istilu gogorak izan omen ziren Partzuergoaren eta artzainen artean ordainketa hauek zirela eta.

Badirudi arau hauek artzain joateko eskariak ugari zirenean jarritakoak direla. Orain hutsik txabola asko dagoenez eta eskari berririk ez, askotan ez dira zehatz-mehatz betetzen lege hauek, batez ere, artzantzari utzi dioten artzainei dagokienean. Nere ustez, erabaki ona da hori gainera, horrela txabolak zaindu egiten baitituzte tarteka bertara joaten direnek. Bestela, dagoeneko lurrera etorriak izango ziren, itxi eta bere horretan utzitako txabola askorekin gertatu den bezalaxe.



### 2.3. Larreak eta larrebideak

Artzainak Urbian, goizean goiz ardiak *jatsi* ondoren, larreetara bideratzen ditu. Laskolatza eta Arbelargo artaldeak leku berdinerantz abiatzen dira beti, Artzanburu gainerantz. Hango joan-etorria egiteko artalde bakoitzak bere larrebide berezia dauka, eta hau oso gutxi aldatzen da Urbian egiten duten egonaldian zehar. Larreetan askotan batera ibili arren, arratsean txabolara itzultzerakoan, bakoitza bere eskortarantz joango da. Hala eta guztiz ere, ardi edo arkumeren bat nahastuz gero, hortxe dituzte belarrietako seinaleak edo bizkarreko markak zein artzainena den jakiteko.

Oltzen, berriz, orain artalde bakarra badago ere, betiko bidea erabiltzen dute ardiek: Oltzeko zelaitik Askiola eta Pin-pillera. Beti beren *leku jakiñera* jotzen dute ardiek. Honexegatik da hain garrantzitsua arditarako bertan esnea edan duten arkumeak uztea; larrebidea ezagutzen dutelako, galtzeko arriskua gutxituz.

Ondoren saroi saroi ikus dezagun nondik nora ibiltzen den artalde bakoitza:

— LASKOLATZA: (ikus 4 mapa)

Saroi honetako ardi guztiak beti Urbi erreka Araba aldera, hegoaldera ibiltzen dira, Erdiko saroiakoak izan ezik; hauek, Artzanburura erreka eskubitik nahiz ezkerretik joan ohi dira.

Saroi honetan dauden 6 artaldeekin ( Arana anaiena barne) hiru talde egin genitzake larrebideak sailkatzerakoan:




41 argazkia. Ardiez gain, behorrak, behiak eta ahuntzak ere izaten dira Urbia-Oltzeko larreetan. (90-9-12).

#### 4 MAPA: LARRE-BIDEAK



- Txabolak.
  - 1. Arana anaiak.
  - 2. Juanito Etxezarreta.
  - 3. Andres «Atagoitti».
  - 4. Jose Luis «Irazola».
  - 5. Joxe Goiburu.
  - 6. Legorburu anaiak.
  - 7. Fermin Arrieta.
  - 8. Emiliano Etxezarreta.
  - 9. Jexux Etxezarreta.
- Eskala: 1:50.500.



4 MAPA: Laskolatza eta Arbelargo larrebideak.

- 1) Atanasio eta Joxe Martin Arana, Joanito Etxezarreta eta Andres Atagoitirenak. Hauen ardiak fondaz ezkerretik sartzen dira beti. Laskolatzatik abiatuz, Bolaleku gaina zeharkatu Kalparmuño eskubian utziz eta handik, Arkaitzeko iturri gainetik, Elolako lepo ondotik, Korostiaran, Enaitz, Iferrutz eta Artzanburu.
- 2) Joxe Luis Irazola eta Joxe Goibururenak. Hauen ardiek fonda eskubian uzten dute. Laskolatza azpitik abiatu eta Kalparmuño barrenetik pasatzen dira. Irazolarenak Mandabideetatik ezkerreara, Artzanburu gain-gaineraino heltzen dira. Joxe Goibururenak, berriz, erreka ondo-ondotik joaten dira, baina ez dira hain goraino iristen.
- 3) Ixidro eta Pedro Zelandietakoenak. Laskolatzan dauden ardietatik, Erdiko saroiko hauek dira erreka eskubitik joaten diren bakarrak. Hasieran ezker nahiz eskubitik, ondoren azken alde honetatik besteek bezala erreka jarraituz, Artzanburu gaineraino iristen dira.


— ARBELAR: (Ikus 4 eta 5 mapak)

Saroi honetako hiru artaldeek, bi larrebide nagusi erabiltzen dituzte:

- 1) Fermin Arrietarenak. Lanbita ondoan saroiak daukan artzain honen ardiak, Erdiko saroiarekin batera joaten dira, baina haiek baino goragotik. Lanbitatik irten eta Zoileku zeharkatuz, Miraleku azpitik, Iturgoienetara eta Artzanburura joaten dira.
- 2) Emiliano eta Jexux Etxezarretarenak. Bi anaia hauen ardi gehienak lehen beren aitarenak zirenez, larre berdinetan ibiltzen dira, nahiz eta orain bi artalde ezberdin osatu. Hauek Artzanbururantz jo ordez, gorantz, Aizkorrirantz joaten dira. Zenbait, Aizkorriko mendikatetik Urbia aldera ibiltzen dira, Pagobakarretik igota, Aketegi azpiko zelaia eta Haizeleku zeharkatuz, Aizkorriko gurutzea eta Sandratei ingururaino; besteek, aldiz, Lugaitzeko zelairaino igo eta Aizkorri iparraldetik, Kardalekueta, Kanal Haundi eta Kalbarioetaraino dituzte larreak.



42 argazkia. Aizkorriko tontorrean dauden baseliza eta mendi-aterperaino igotzen dira Emilianoaren ardiak. (91-1-19).



**5 MAPA: Arbelar eta Oltzeko larrebideak.**



Dena den, Emilianoren artaldean bada berezitasun aipagarria. Bere aita zenak utzitako ardiez gain, Juan Zabaloren alargunari, bere arrebari, erositako ardi batzu ere baditu artaldean. Bada, ardi hauek besteengandik aparte ibiltzen dira, beren aintzinako larretokira joanez. Larretoki hau Arbelartik, Aldaiturri, Hiruiturrieta, Miraleku, Ostazurita eta Artzanburura doa.

— OLTZE: (Ikus 5 mapa)

Joxe Mari Oiarbideren ardiek, Agapito bere aita zenarenak bezalaxe, Oltzeko zelaitik irten eta Aldasbarreneta ezkerrean utziz, Burgalaitzeko lepoa pasa eta Sutokira joaten dira. Hemendik Askiola gainera eta handik Araba aldera. Txabolara itzultzeko, berriz, Abiri eta Harritxiki zeharkatuz, Izoztoki, Zulonpo, Aldasbarreneta eta Oltzera.

Ardi hauen senide zaharrak eta baita hauek ere, mendez mende larretoki berberak erabili dituzte. Ardiek beren arkumeei bidea erakusten diete eta hauek hazten direnean gauza bera egingo dute beraienekin. Horrela gorde da ardiek duten sen berezi hori. Ardiak beti, txikitan esnea edan duen larreetara joateko joera izango du. Berdin dio non dagoen edo zenbat bide egin behar duen hara joateko. Beti iritsiko da bere larrera. Udazkenean, ostera, eguraldi txarra somatzen duenean, laster asko aldegingo du beheko larreetara, eguraldi goxo eta epelagoen bila.

## 2.4. Artzainen lana

«*Artzaiek ofizio danak jakin bear izaten zittuk; ori bearrak eakusten dik*» esaten dute artzainek. Izan ere, artzainaren lanez gain, beste lan klase asko egin behar izaten baititu: etxeoandre, sukaldari, nekazari, arotz, mediku, albaitari, harakin, igeltsero, ... txabolan edo sarioan gertatzen den edozein oker konpontzeko gauza izan behar du. Berak bakarrik ezin duenean, auzo-lana oraindik ere indarrean dago Urbian, hala nola, txerria hiltzerakoan, ardiak moztean, iturriak edo bideak konpontzerakoan, elkar hartuta lan egiten dute artzainek.

Baina lan hauek alde batera utzita, azter ditzagun segidan artzain-lanaren egiteko nagusienak:

Hasteko, bi garai bereiztu behar ditugu lan honetan. Negukoa bata, Urbiatik jaitsita *barruti* edo *negutokietan* egiten duena. Udakoa bestea, Urbian bertan burutzen duena.

— Neguan artzaina barruti edo negutokietan izaten da arkumeak jaiotzen hasterako. Urte Berri aldera edo lehentseago hasi eta Otsailerako ia denak jaioko dira. Garai hau izaten da artzainarentzat gogorrena, arkumeei jaiotzen lagundu, ezagutu eta bakoitza bere amari eman beharra baitago, artaldea tratuan hartutako larreetan zaintzeaz gain. Larreak hartzeko tratua larreen jabea den baserritarraren eta artzainaren artean egiten da. Baserritarrak garaiaren eta belar kopuruaren eta motaren arabera hainbesteko bat eskatzen dio artzainari; honek bere beharrak kontuan izanda onartu





43 argazkia. Arkumeak jaiotzen direnean lan haundia izaten du artzainak.( 90-12-22).

edo utzi egingo du diru kopuru hori edota jaisteko eskatu. Gehienetan tratuak egun jakina izaten du muga bezala; egun horretarako jaten ez baditu, gehigarri bat ordaindu beharko du artzainak luzatze horren truke. Udaberria zenbat eta gertuago, orduan eta haundiago izaten da ordaindu beharreko diru-kopurua, belardietan larre gehiago eta hobia izaten da eta.

Otsailaren erditik aurrera ardiak jasten hasiko da San Fermin ingurura arte. Artesne honi hiru irtenbide ematen dizkio:

- Gazta egin.
- Mamia eta esnea etxe partikularretan edo azokan saldu.
- Esnea kanpoko esnezaleei saldu.

Artzain bakoitzak dituen aukeren arabera jokatzeko du, esnari komenigarrien zaion irtenbidea emanez. Hala ere, gehienek mamia eta esnea zuzenean etxeetara saltzen dute, horrela bitarteko edo intermediarioek hartzen duten dirua beraiek



44 argazkia. Fermin Arrietaren artaldea Zegamako Altamiko zelaian tratuan hartutako larreetan. (90-11-23).

zuzenean eskuratzen dutelarik. Denbora gutxi dutenek edo aurreko aukerarik ez, esnezaleei saltzen diete esnea, baina honek ez du hainbesteko irabazirik ematen. Dena den, esne guztia salduko dutela jakitea ere ez da abantaila txikia izaten. Gehienen ustez gazta egiteak eta zaintzeak eramaten duen denbora eta lana ez da gero irabazietan azaltzen; artaldea behar bezala zaintzeko denbora jaten die gainera. Hau dela eta, Urbiara igo arte oso gazta gutxi egiten dute.


Arkumeak 20-30 egun dituenen salduko dute, bai azokaren batean (Ordizia, Agurain), bai inguruko harakin edo tratalariren bati. Arkume saltze honek txanpon ederrak ematen dizkio artzainari, batzaz beste mila bat duro arkume buruko. Tarketa izaten dira urte txarrak, arkumeak gaitzak jota hiltzen direnak edota mandabelarra janda ardiek umeak bota egiten dituztenak. Horrelakoetan ziento erdi buru gal ditzake erraz artzain batek. Atera kontuak dirutan!

Aurrera ere begiratu behar du artzainak, hau da, urtean zehar akaatu edo kendutako ardi zaharren ordez berriak sartu beharko ditu artaldean, buru kopuru bera mantendu nahi badu behinik behin. Artaldearen arabera, 40-100 hazarkume uzten ditu arditarako. Honen arrazoia nahiko garbia da. Alde batetik, lehen ere azaldu dugu Urbian artalde bakoitzak beti bere larrebidea eta larrea erabiltzen duenez, kanpoko ardiak erosiz gero, askotan galdu edo beste artaldeetako ardiekin nahasten direla. Hau artzainarentzat ez da batere komenigarria izaten, beti arazoak eta denbora galtzeak sortzen dizkio eta. Urbian bertan esnea edandakoa behar du izan arkume hori.





45 argazia. Araban «rastrojoa» jaten dute ardiek, hau da, aurreko urteko gari edo garagar-lasto hondarrak.(91-2-24).



46 argazia. Joxe Goibururen artegian aurrerako aukeratutako hazarkumeak. (91-2-24).

Beste alde batetik, artzainak ardia ezagutzen duenez, arkumea nolakoa izango den badaki gutxi-gora-behera bederen. «Ardi batek lau urte dauzkenen ortzak galtzen bazittuk, aren arkumai e berdin gertauko zaiok» esaten zuen Korraleko Xanti Goiburuk. «Nolako ama, halako alaba» esan behar ardien artean.

- Negu osoa eta udaberriko zenbait egun negutokian eman ondoren, apirileko azken egunetan hasi eta maiatzaren erdi alderako Urbian izango dira artalde gehienak. Batzuk beren baserrietan pasatzen dituzte zenbait egun Urbiara igo aurretik, besteak zuzenean joaten dira bertara. Lehen, barrutietan larre gutxiago zegoenean (nekazaritzak indar haundiagoa baitzuen), Apirilaren erdi aldera igotzen ziren eta askotan elurteak harrapatuta baita estuasun ederrak pasatu ere. Horrelako egoeretan Altzaniara edo Araba baso aldera jaisten ziren artaldearekin, beherago dauden lurralde hauetako larreak aprobetxatuz.

Horrela bada, Maiatza bukatzerako Urbian ditugu artzain guztiak. Hara joanda txabola eta inguruak prestatzen behar izaten ditu egun batzu. Goizetan jaiki eta artaldea eskortan bildu ondoren jatsi egiten du. Gero esnari gatzagia eman eta gazta egiteko prest utziko du. Artaldea larreetara bideratutakoan, gazta egingo du eta prentsan sartu. Hamarretakoa egin eta beste lantxoei ekingo die beharren arabera: baratzea landu, egurra txikitu, artegia txukundu, txerri, oilo eta oilaskoak goarnatu, gaisorik dauden ardiak sendatu, bazkaria prestatu, eta abar.

Bazkal ondoren lo kuluxka bat egin eta arratsean iturritik edateko ura ekarriz, artaldea bildu eta eskortara inguratuko du berriz ere jasteko. Ondoren ardiak



47 argazkia. Idiazabalgo Zelandita baserrian pasatzen dituzte Legorburu anaiek udazkeneko eta udaberriko zenbait egun. (91-1-4).





48 argazkia. Urbiako artzainak Oltzeko Joxe Mariren artaldea auzo-lanean moztu ondoren. Egilea: Luis Bikuña (1987-6).

atera, gaua saroi inguruan igaro dezaten, eta gazta egingo du. Afaldu eta ohera joango da.

Eguneroko lan honek Maiatzetik Urrira bitarte gora-beherak izaten ditu, tarteka lan bereziak egin beharra ere sortzen zaiolarik. Esate baterako, San Juan eta San Fermin tartean (eguraldiaren arabera) ardi mozten egin beharko du. Hau normalean ordeko lanean egiten dute artzainek, azkarrago bukatzearren.

Uztailean, ardi moztu ondoren, ardiak antzutu egiten dira, ondorioz, artzainak ez du ardiak jatsi beharrik ezta gazta egin beharrik ere. Garai aproposa izaten da orduan negua pasatzen duten baserrietako ganbaretan lastoa eta belar-ondua sartzeko, negurako nahiko janari izan dezaten.

Irailaren erdirako ahariak estalia izango dute artaldea, antzuak izan ezik. Garai honetan hasten da eguraldia txartzen. Maiz asko gertatu izan da ardiekin, eguraldi txarra datorrela somatzean, behelarretara abiatzeko joera izatea; argi ibili behar du artzainak orduan, ardiak banatu ez daitezen. Lehen Pilarika egunerako, baina azken urteotan Santu Guztietarako alde egiten dute artalde guztiek beren baserri edo behelurretara, Andres Atagoitti zierrakarreras dutela. Abendu erdirako, urte berria baino lehen, barruti edo negutokietan izango dira gehienak, urteko zikloa itxiz.


Azter ditzagun ondoren sakonkiago lan nagusienak:

#### 2.4.1. Ardi-jastea

Lan hau negutokietan hasten da (Otsailaren erdi aldera) arkumeak saltzen dituztenean eta San Fermin ingururako bukatzen. Artzainak arratsean, negula-reetan ibili ondoren baserrira iritsi eta ardiak ikuiluan edo artegiran batean sartuta

jaisteari ekiten dio. Zenbait lekutan lan honetarako aulki berezi batzu baldin badaude ere, gerrian lotuta erabiltzen direnak, normalean makurtuta egiten du: pikotxean. Garai batean esnea *kaikura* (Ikus 1 marrazkia) jasten zuen, egurrezko ontzi berezi batera, baina orain beste guztiak bezalaxe, ardi jasteko ere ontzi metalizatuak erabiltzen dituzte, marmidak. 10-12 litro hartzen ditu ontzi honek.

### 1. MARRAZKIA:



«KAIKUE»\*


\* Oharra: Fermin Leizaolaren «Euskalerriko Artzañak» liburutik jasotako marrazkiak.



49 argazkia. Juan Joxe Goiburu Galarretako artegian ardi-jasten. (91-2-24).

Ardiek batatz beste eta garaia kontuan izanik, litro erdi esne ematen dute jatsialdiko. «*Batzuk ttittarakada bat eta beste batzuk litro bat igoal*». Esne hau *apatzera* (ikus 2 marrazkia) botatzen du, 35-40 litroko ontzi haundi batera, kaikua bezala, orain metalizatua bada ere, lehen egurrezkoa izaten zen.

## 2. MARRAZKIA:



«APATZA»\*

\* Oharra: Fermin Leizaolaren «Euskalerriko Artzafiak» liburutik jasotako marrazkiak.

Ardiak jasteko artzainak artegiaren mutur batetik hasi eta poliki-poliki, aurrean harrapatzen dituen ardiak jaisten ditu. Azkenean *jatsizuak* edo *jatsgaiztoak* geratzen dira artegiaren beste muturrean; leku hau estuagoa izaten da, jatsi gabe dauden ardi horiek harrapatzea errazteko. Normalean ardia bi eskuz jasten da, atzetik errepea hartuz; ontzia lurrean jarri eta esnea hara jaurti. Dena den, jatsizua denean, esku batez hankatik eutsi behar izaten da, besteaz jatsi ahal izateko.

Jastekoak jatsi ondoren, esnerik eman nahi ez dieten edo amarik ez duten arkumeei esnea edaten laguntzen zaie. Aurrenekoei *ardi gatxitxie* esaten zaie; bigarrenei *ama-ordekoa*. Horrela bada, arkumea eskutan hartu, ardiari eutsi eta esnea edan arte egon behar izaten du artzainak. Eusten ez bada, ardiak ez dio berea ez den arkume bati esnea edaten utziko. Ostikadak emanez bidali eta ihes egingo du.

Lan hau arratsean eta goizean egin behar izaten du artzainak; urte osoan ez, ordea. Ekainean edo Uztailean antzutu egin behar izaten da ardia, Abuztu eta Irilean *arkea* garaia denean ahariak estal dezan. Ardia antzutuz indartu egiten da, *umehartzeko* prestatuz. Ardiak antzutzeko jaisteari uzten dionean, hazarkumeak amengandik banandu egiten ditu 15en bat egunez Araba basorantz eramanez. Antzutu ondoren berriro ere artaldera ekartzen dituzte, baina dagoeneko esnerik ez dute beren amek; hemendik aurrera belarra besterik ez dute jango arkume hauek. Zenbait artzainek titi-puntak esparadrapoz estaltzen dizkiete amei antzutu bitartean, gero kenduz.

Estalketa Abuztuaren lehenengo egunetan hasi eta Iraila arte luza daiteke. Garai honetan artzainak ahariak zaindu egin behar izaten ditu, ardi guztiak estal ditzaten. Pentsua ere ematen zaie indarrean egoteko. Hala ere beti izaten dira antzu geratzen diren ardiak, edota umehartu arren, gero bota egiten dutenak. Azken hauei aharia berriz botatzen zaie eta beren arkumeak besteenak baino beranduago jaiotzen dira, Martxo-Apirilean.



50 argazkia. Atagoitti Urbiako basilizaren ondoan ahariei baba ematen. (90-9-12).



#### 2.4.2. Gazta-egitea

Artzainak ardi-jastetik lortutako esnea apatzera bota behar du. Baina jasterakoan esnetara erori diren zikinkeriak (*artillea*, belarra, larrak,... ) kendu egin behar dizkionez *illakazkian* (ikus 3 marrazkia) pasatzen du. Orain lauzpabost urte arte, ilakazki honetan asunak jartzen zituen ostoen azpikaldea gora begira zutela. Esneak izan zitzakeen zikinkeria horiek asunek hostoen azpikaldean dituzten iletxiki horietan geratzen ziren, apatzera zihoan esnea garbi-garbi utziz. Gainera, artzain batzuk diotenez, asunetan pasatutako esnez egindako gaztak zapore berezia omen du. Gaurregun pasadorearen gainean jarritako arizko oihal mehe-mehe batean pasatzen dute ia gehienek, garbiagoa eta azkarragoa baita.

#### 3. MARRAZKIA:




«ILLAKAZKIE»\*

\* Oharra: Fermin Leizaolaren «Euskalerriko Artzañak» liburutik jasotako marrazkiak.

Apatzeko esnari *gatzagia* ematen dio ondoren, *malatzax* (Ikus 4 marrazkia) nahastuz. Ordu erdi batez edo estali, eta leku hozpel batean uzten du. Gatzagia arkume gazteen *urdailla* da. Gazta egitean izugarrizko garrantzia izaten du erabilitako gatzagiak. Hau ona izan dadin, arkumeak belarrik jan gabea behar du izan, hots, esnea besterik edan ez duena. Gatzagia emateko esneak bere tenplean egon behar du (36°C gutxi gora behera), bestela mamia ez da behar bezala gogortuko. Artzainak hatzamarra erabiltzen du termometro lan honetarako; esnea hoztu baldin bada, sutan berotuko du. Lehen, egurrezko apatzak zirenean, ontzia zuzenean sutan jartzerik ez zegoenez, berotze hau esne-harrien bidez egiten zuten. Harriak sutan jarri eta bero-bero zeudenean apatzean sartu; honexegatik izaten zuten apatzek ipurdia erreta, beztuta.

#### 4. MARRAZKIA:




«MALATXA»

Berezko gatzagiaz gain, botiketan artifizialki egindakoa ere saltzen dute. Urbiako artzainek, ordea, ez dute lehenengoa besterik erabiltzen. Ur berotan desegin eta esnari botatzen zaio. Nahastu, geldirik utzi eta berriz nahastu mamia bi gai desberdinetan banatuz: *matoia* eta *gazura*. Matoiaz gaztaia egiten du; gazura, berriz, txerriei ematen zaie gizentzeko. Txerri hauek hil eta urdaiazpiko, urdai eta solomo ederrak izango ditu udazkenean. Gazura hau pertsonak ere edan izan dute, gorputzarentzat (hesteentzat bereziki), oso osasungarria da eta.

Apatzean dagoen matoia eskuz poliki-poliki bildu egiten du artzainak. Dena bilduta daukanean badaki gutxi gora behera zenbat gazta egingo duen. Matoi hau *txurkalaban* batez zatitzen du, gazta hainbat zati eginez. Ondoren apatza «bañomarian» sartzen du hoztu ez dadin. Apatzaren gainean zuloak dituen ohola jartzen du, *txurkea* (Ikus 5 marrazkia) izenekoa, eta honen gainean *zumitze* (Ikus 6 marrazkia). Zumitzak lehen egurrezkoak izaten ziren baina orain, gainontzeko tresna gehienak bezala, plastiko nahiz metalizatuak izaten dira. Azpikaldean eta gainean jartzen zaion *txali* edo estalkian, zulotxoak dauzka, prentsan estutzean gazura irten dakion.


5. MARRAZKIA:



Antoniq

«TXURKEA»

6. MARRAZKIA:




«ZUMITZE»\*

\* Oharra: Fermin Leizaolaren «Euskalerriko Artzañak» liburutik jasotako marrazkiak.



51 argazkia. Hildako txerriari zurdak erretzen Oltzeko zelaian. (90-9-14).



**52 argazkia. Oltzeko Joxe Mari malatzaz mamia nahasten. Egilea: Jabier Cristobal (1983).**



**53 argazkia. Malatxa, zumitza, txaratila eta uz-taiak Zamalloa baserriko sapatitik zintzilik. (91-1-12).**





**54 argazkia. Matoia ondo estutu behar da. Egilea: Jabier Cristobal (1983).**

Artzainak matoiari ahalik eta gazura gehien kentzen dio behatzez estutuz. Barruan gazura geratzen baldin bazaio zuloak izango ditu gaztak eta hau erosleari ez zaio batere gustatzen. Matoia ondo estutu ondoren, zumitzetik kanpora atera eta gaztatrputan biltzen du. Berriro ere zumitzean sartu, txaliaz estali eta prentsan jarriko du. Prentsa, izenak berak adierazten duen bezalaxe, gazta estutzen duen egurrezko tresna da. Honetarako, alantrez lotzen diren zulodun harri batzu jartzen zaizkio agaren muturrean. Aldiko 6-8 gazta edo gehiago har ditzake prentsak. Goizean egindako gaztei, arratsaldeko laurak aldera trapuak kendu egiten dizkie artzainak, markarik utz ez dezaten eta gaueko gazta egin arte berriz ere prentsan jarri.

Gazta prentsatik atera ondoren gatzta ematen dio, bai zuzenean gaina igurtziz, bai gatz-uretan sartuta. Gero gatzandegira eramango ditu eta gatzanoholetan jarri;

lehenengo behekoetan eta ondoren, bete ahala, goikoetara pasatuko ditu. Badira, oraindik ere, gaztari gazta eman ondoren arbel baten gainean jartzen duten artzainak. Gazta hobeto hartzearren egiten dutela diote zehazki Arbelargo artzainek. Aitak irakatsitako ohitura zaharrari jarraituz, bi egunetan arbelean edukitzen dituzte, ondoren gaztanoholetan jartzeko.

Ez dira hor bukatzen, ordea, gaztekiko lanak; bi egunez behin gutxienez, buelta eman behar zaie gazta guztiei, zikinduta edo lizunduta daudenak trapu batez garbituz. Egin eta handik bi hilabetetara gainera, keatu egin beharko ditu. Lehendabizi gaztak ondo-ondo garbitu eta ketokira eramango ditu. Ketokia guztiz itxita dagoen eraskin txikia izaten da, leihorik gabea askotan. Bertan sua egiteko egurrik onena gerizondoa omen da baina arbola hau Urbian aurkitzea ezinezkoa denez, pagoa erabiltzen dute han. Adar heze hauek ateratzen duten keak ematen die gaztei kolore marroixka hori. Batzutan gaztandegian bertan ere egin izan da lan hau; dena den, uzten duen usainagatik ez da oso gustagarria izaten.



55 argazkia. Ondo estutu ondoren zumitzetik ateratzen da. Egilea: Jabier Cristobal. (1983).





**56 argazkia.** Gaztaturapuk, erantsi eta markarik gera ez dadin jartzen dizkiote. Egilea: Jabier Cristobal (1983).



**57 argazkia.** Oltzeko Jexux Oiarbide zumitza prentsan jartzen. Egilea: Jabier Cristobal (1983).



58 argazkia. Jexux Oltzeko gaztandegian, keatutako gazta eskuan duela. Egilea: Jabier Cristobal (1983).

Iritsi da gaztak saltzeko unea. Zailtasun haundirik gabe saltzen dituzte Urbiako artzainek beren gaztak, izan ere, bezero jakinak izaten dituzte askok; beste batzuk, aldiz, azoketara eramaten dituzte saltzera. Ordiziakoa da ezpairik gabe inguru hauetako garrantzitsuena, bertara saltzaile eta erosle ugari hurbiltzen baita asteazkenero. Gainera, urtean behin Irailean, ardi-gazta lehiaketa antolatzen dute eta bertara Euskal Herri osoko artzainak inguratzen dira Urbiakoekin batera.

Gazta egiterakoan eta gaztandegian dauden bitartean egiten duen eguraldiak zerikusi handia dauka hauen geroko itxura eta gustoa. Eguraldirik onena hotza edo frexkoa izaten da. Aitzitik txarrena, hego haizea, gaztaiak puztu eta lehertu egiten ditu eta.

Artesneaz *mamia* ere egiten du artzainak. Negutokietan daudenean etxe partikularretan eta azoketan saltzen du, Urbian, berriz, berak jan. Mamia egiteko esneak irakin egin behar du; gero epeltzen utzi, 36°C izan arte eta ondoren gatzagia eman, nahastu eta hozten utzi. Negupartean Euskalerriko baserri eta etxe askotan egiten da mamia, artzainen hurbiltasuna aprobetxatuz.





59 argazkia. Juan Joxe Goiburu, ardigureizak eskuan. (91-2-24).

### 2.4.3. Ardi-moztea

Artzainak urtero egin beharreko beste lan bat, ardi moztearena izaten da. Ardiari hotzetik eta euritik babesteko ilea hazten zaio, *artillea*. Artile honek hotz denean babesa ematen badio ere, uda partean izugarri berotzen du, San Juan eta San Pedro artean, beti ere eguraldiaren arabera, moztu beharrean izaten delarik.

Ardiak mozteko artzainek auzolana edo ordeko lana erabiltzen dute. Egunero ardi kopuru bat hartu eta abarolekuan bilduta, ahal dela itzalean, mozte-lanari ekiten diote. Honetarako guraize haundi batzu erabiltzen dituzte, *ardigureizak*. Lehenengo tripa azpia mozten diete eta gero hankak lotu, lurrean etzanarazi eta gorputz guztia. Orain gutxi arte hankak lotzeko soka erabiltzen zuten; orain, ordea, gantxo bereziak daude lana errazteko.



60 argazkia. Askotan kanpotik ekaritzen dituzte ardigureizak, Alemaniatik, Ingalaterratik,... (91-2-24).



61 argazkia. Azken bi urteotako artilea Zegamako Aitamarren baserriko estalpean salduezinik pilatuta. (90-11-23).

Zeregin honen ondorioz lortzen den artilea, sakabanatu aurretik zaku haundi batzutan sartu eta txabolako bazter edo ilorren batean (*illategi* izenaz ezaguna) gordetzen dute. Ardiko bataz beste kilo pare bat ile ateratzen dituzte. Azken urteotako ileak oraindik saltzeko dauzkate artzainek. Garai batean zuen eskea galdu egin du artileak. Txokoko Kontxita Goiburuk gogoan dauka orain 34 urte 12 duro ordaindu zutela artile kiloak; 20 durotik gora ere ibilia da baina gaur 5 durotan inork ez du nahi. Pilatuta daude baserrietako estalpeetan, erosle zai. Egiten den lana ordaintzeko ere ez du ematen artileak, baina ezin utzi ardiak moztu gabe!

Ohitura hedatua izan da artzainen artean, astia izaten zutenean artile honekin haria egin eta behar zituen galtzerdiak berak egitea. Indarra galdu duen arren, oraindik ere badira ohitura honi eusten diotenak.



62 argazkia. Oltzeko Serafina Larrea, Lezamako Bista-Alegre baserriko beheko-suaren ondoan galtzerdi egiten. (91-1-12).

Ardi larruez ere zerbait azal dezagun atal honetan. Artzainak tarteka ardiak eta arkumeak hiltzen ditu bai janaria lortzeko, bai gaisorik daudelako. Larrutu ondoren, larru hau egurrezko uztai batean lehortzen jartzen du. Ondo lehortuta dagoenean, azokara eramaten ditu, larrukinei saltzeko. Ordiziako azokan bada sarri horrelakoak ikusteko aukerarik. Hauek ere galdu egin dute garai batean zuten eskea. 10-12 duro besterik ez dute ematen arkume edo ardi-lajru bakoitzeko.

#### 2.4.4. Buztan-moztea

Arestian aipatu bezala, artzainak urtero artaldearen buru-kopurua manten dadin, arkume batzu uzten ditu arditarako, *hazarkumeak*. Hauek esnea ematen hasten direnean jatsi egin beharko ditu; horretarako buztanak traba besterik ez dio egiten. Hori dela eta, urtea bete baino lehen buztan hori moztu egingo die.

Urbiako artzainek bi garaitan mozten diete buztana arkumeei:

- Apirilean goilarreetara igo baino lehenago. Andres Atagoittik eta Jose Luis Irazolak jarraitzen diote ohitura honi.
- Azaroan edo Abenduan, behelarreetara jaitzikoan. Ohitura honi beste guztiak jarraitzen diote. Arana anaiek beti ilberan mozten zieten buztana, garai honetan odol gutxiago botatzen omen dutelako.

Artzain bakoitzak badu bere arrazoia garaia aukeratzeko. Apirilean mozten dietenek, gaztea denean arkumeak gutxiago sufritzen duela uste dute, oraindik haragia gogortu gabe dute eta; udazkenean egiten dutenak, berriz, buztana hain goiz moztuz gero, mendiko aldaizeak gogor erasotzen diela uste dute eta honen ondorioz arkumea hoztu eta gaisotu daitekeela. Ardiak haizeari beti atzekaldea ematen dionez, buztanak babes handia ematen diela alegia.

Buztan mozteko era berdina erabiltzen dute artzain gehienek. Batek arku-meari eutsi eta besteak buztana hartu; honen goikaldean juntura aurkitu behar du, hots, hezurrik gabeko tarte bat. Orduan, laban edo ihitai batez, behatzez goraxegotik estutuz, buztana moztu egiten dio. Ondoren han azaltzen den zain gorri txikia kendu behar izaten zaio ahaztu gabe, bestela arkumea odol-hustu eta akaatu ere egin bailiteke.

Moztu dituen buztanak ez dira alferrik galtzen, ez horixe! Normalean lapikoan egoskaria bixitzeko erabiltzen dira; baita arrozarekin paella egiteko ere. Horretarako buztanak, ile eta guzti, egosi egiten dira; gero ilea kendu eta lapikoan indaba edo garbantzuekin jarri eta beraiekin batera jan. Jateko oso goxoak omen dira, nahiz eta haragi gutxi eduki. Atanasio Aranaren ustez: *«hori jateko pazientzi haundie euki bear dik; halare langostinok baiño nahigo diat»*.

#### 2.4.5. Ardi-markatzea eta seinalatzea

Artzainak bere ardiak oso ondo ezagutzen ditu. Badira artalde osoa izenez ezagutzen dutenak. Baina bere ardiekin nahastuta besteren bat etortzen baldin bada, hau zeinena den jakitearren, bakoitzak bere ezaugarriak erabiltzen ditu. Ezaugarri hauek bi eratakoak izan daitezke: bata marka eta bestea seinalea.




Marka, ardiari gorputzean (bizkarraldean zehazki esateko) egiten zaion arrasto izaten da. Arrasto hau ardiak moztu ondoren egiten da, Uztailaren lehen egunetan, gaurregun pinturazkoa delarik. Hala eta guztiz ere esan beharra dago Urbiako zenbait artzainek ez dutela hain gogoko ardi- markatzea; arkumeak, ordea, bai, ez baitituzte ondo ezagutzen.

Marka hau egiteko kolore desberdinetako pinturak erabiltzen dituzte: beltza, gorria, berdea, marroia, esate baterako. Ikus dezagun jarraian zein marka erabiltzen duen artalde bakoitzak:

- Arana anaiak: lepagainean marroia.
- Juanito Etxezarreta: soinkurutzearen erdian gorria.
- Andres Atagoitti: ipurkainean eskubitik gorria.
- Joxe Goiburu: soinkurutzean beltza.
- Jose Luis Irazolak: bizkarrerdian gorria.
- Ixidro eta Pedro Zelandieta: bizkarrerdian beltza.
- Fermin Arrieta: bizkarrerdian gorria.
- Emiliano Etxezarreta: bizkarkainean berdea.
- Jexux Etxezarreta: ipurkainean berdea.
- Joxe Mari Oiarbide: puztangainean gorria.

Bi artzainen marka berdina denean, seinaleak erabakiko du norena den arkumea edo ardia.



63 argazkia. Arana anaien ardiek lepagainean izaten dute marka marroia. (90-11-9).



— Seinalea ardiaren belarran egiten diren diren ebaki eta zulo desberdinak izaten dira. Hau bai, artalde osoari egiten zaio. Honetarako guraizeak, zulatzekoak edo guritutako burniak erabiltzen dira. Urbian erabiltzen direnak hiru eratakoak dira: *akatsa*, *eztentzuloa* eta *pikarea*. Ikus ditzagun ondoren artzain bakoitzak erabiltzen dituenak:

— Arana anaiak: eskubiko belarran atzean akatsa.



— Juanito Etxezarreta: ezkerrekoan pikarea.



— Andres Atagoitti: eskubikoan puntan akatsa. Punta moztza.



— Joxe Goiburu: ez die markarik egiten.

— Joxe Luis Irazola: eskubian eztentzuloa.



— Ixidro eta Pedro Zelandieta: ezkerrekoan atzean akatsa, baina besteak baino haundi eta borobilagoa.



— Fermin Arrieta: eskubiko belarri atzean akatsa, baina belarri ondo-ondoan.



— Emiliano eta Jexux Etxezarreta: eskubikoan atzean akatsa. Arana anaienaren berdina baina belarri ondoagoan. Emilianoren ardi batzuk, bere arrebari erositakoek hain zuzen, marka honez gain, aurrekaldean ere badute akatsa.



64 argazkia. Irazolaren ardiek eskubiko belarran izaten dute eztentzuloa. (90-12-22).



65 argazkia. Ferminen ardiek belarri atzean izaten dute akatsa. (90-11-23).

— Joxe Mari Oiarbide: ezkerrekoan atzean koskea. Dena den, azken 33 urteotan hazarkumerik utzi ez duenez, ardiak erosi egiten baititu, mota askotako seinaleak aurki daitezke bere artaldean.



Seinale hauek txikitan, hazarkumeak zeintzu izango diren aukeratutakoan egiten zaizkie. Era honetara, galduko balira, beste artzainek jakingo lukete zeinena diren.

## 2.5. Negutoki edo barrutiak

Lanean zehar azaldu denez, udazkenean eguraldia txartzen hasten denean, Urbiatik jaitsi egin behar izaten dute artzainek. Hotza, izozteak eta elurra noiznahi egiten du Azarotik Apirila bitarte. Larreak ere urrituta egoten dira ordurako; zer jan gutxi izaten dute ardiek han. Behelurretara jotzea beste irtenbiderik ez dute izaten giro epelago eta larre hobeen bila.

Mugimendu hau aintzinatik egin izan dute artzainek eta gaurregun ez da oraindik galdu. Dena den, zenbait aldaketa izan ditu, bidaia egiteko moduan





**66 argazkia. Bideetan ibiltzea arriskutsua izan daiteke artalde nahiz artzainarentzat. Fermin Arrieta eta bere semea Zegaman. (90-11-23).**

gehienbat. Orain 10en bat urte arte, artzain guztiek oinez egiten zuten Urbiatik negutokirainoko bidea. Gertu edo urruti egon, ez zen beste garraioberik erabiltzen. Orain, ordea, bideetako trafiko izugarria ikusita ia ia ezinezkoa litzateke ibilbide honi ekitea. Gainera arriskua ere handia izaten da, bai artaldearentzat, baita artzainentzat beraientzat ere. Istripu dexente izan dira berebil eta artaldean artean; ardi piloak akaatu eta artzain batzu zauritu ere egin dira hauen ondorioz. Horrexegatik negutokia aparte samar dutenek kamioiak erabiltzen dituzte bide hori egiteko; besteek, Urbiatik gertu samar geratzen direnek, betiko artaldebidetara erabiltzen dituzte oinez egiten duten ibilbidean.

Urbiako artzantza, «trashumancia media» izenez ezagutzen denaren barruan sar genezake, hau da, goilarre eta negutokien artean dagoen bidea ez da oso luzea izaten. Aizkorri inguruko artzainekin batera, Andia, Urbasa, Aralar, Gorbea, Entzia eta beste asko sar daitezke artzantza mota honen barruan. Honekin alderatuz, ibilbide motzeko artzantza (herri-baso eta baserrien inguruan egiten dena) eta luzekoak ditugu. Azken hau Auñamendiko ibarretan (Zaraizu, Erronkari,...) ematen da. Hauek neguan urrutietara joaten dira, Nafarroako Bardeetara hain zuzen.

Pilarika inguruan hasi eta Santu Guztiak bitarte alde egiten dute artzain gehienek Urbiatik orain. Urte asko ez dela, arraroa izaten zen Urritik aurrera Urbian artzainik ikustea, izan ere, eguraldia askoz gogorragoa baitzen, elurra goiz azaltzen zelarik.

Lehenengo pausoa Partzuergoko beheragoko beste larreetara edota norberak bere jaioterrian duen baserrira joatea izaten da. Larre horiek Altzania, Goiburu eta Araba basokoak izaten dira; baserriak, berriz, Zegama, Segura, Idiazabal, Mutiloa eta Gabirikoak. Baita Galarreta eta Gordoakoak ere. Gero, urtea bukatu baino lehen, bakoitza bere negutokira joango da .

Negutokiaren hurbiltasuna eta bertara joateko era kontuan izanik, bi multzo egin genitzake artzainen artean: (ikus 6 mapa).

— Lehenengoan, negua Aizkorri mendikatetik gertu dauden herrietan pasatzen duten artzainak leudeke: Andres Atagoitti, Joxe Luis Irazola, Joxe Goiburu, Ixidro eta Pedro Zelandieta eta Emiliano Etxezarreta. Hauek, jakina, oinez egiten dute negutokirainoko bidea.

#### 1) ANDRES «ATAGOITTI»

Gabiriko Atagoitti baserriko artzain honek bertan ematen du negu osoa. Goizero, artaldea hartu eta bere asto gainean igota, Gabiria eta Legazpiko larreetara eramaten ditu, arratsean berriz etxera itzuliz. Tratuan hartutako larre horietara joateko egunero egin beharreko bidea askotan luzea izan arren, beraren ustez merezi du negua norberaren baserrian pasatzeak, errentarik ordaindu beharrik ez dagoelako eta sendikoek lagundu egiten diotelako.



67 argazkia. Andres Atagoittiren artaldea Gabiriko larreetan. (91-2-16).







68 argazia. Andres Legazpiko tren-geltoki ondoko larreetan. (91-1-4).

Lehen ere aipatu dugu Atagoitti dela Urbiatik alde egiten azkena. Ia ia urtero elurteren baten ondoren jaisten da bertatik. Igotzen ere azkena izaten da, Maiazaren bukaeran joaten baita goilarreetara. Beste artzain gehienak bezalaxe, esnea saldu egiten du Andresek baserrian dagoenean. Gabirikoa izan arren, Legazpitik hurbilago dagoenez, bertakoak dira Atagoittira esnea erostera joaten diren gehienak.


## 2) JOXE LUIS «IRAZOLA»

Gabiriako artzain hau Azaroaren lehenengo egunetan jaisten da Urbiatik. Lehenengo hamabostaldia Brinkolan igarotzen du; ondoren Gabiria, Legazpi eta Zumarragan izaten du artaldea, han eta hemen errentan hartutako larreak janez. Gabirian, Irazolan eta Izar-Haundin; Zumarragan Agerre baserrian. Arkume gehienak, Urbiako artalde gehienetan bezalaxe, Urteberri eta Errege bitartean jaiotzen zaizkio. Legazpiko harakin bati saltzen dizkio gehienak, tarteka bolada haundi samarra dagoenean Ordiziara eramaten baditu ere. Maiazaren hasieran igotzen da berriro ere Urbiara.



69 argazia. Urkien artean, Gabiriko Irazola baserria. (91-1-4).





**70 argazkia. Irazola arkumea eskuan duela, Gabiriko Izar-Haundi baserriko larreetan. (91-1-4).**



**71 argazkia. Ardiak ondo asko ezagutzen ditu bere arkumeak. (91-1-4).**

### 3) JOXE GOIBURU

Idiazabalgo Arteaga baserrian jaiotako artzain honek, orain 22 urte erosi zuen Arabako Galarreta herrian baserria. Orduz geroztik bertara jaisten dira Urbiatik zuzenean eta baita negu osoa pasatu ere. Lehen, Arteaga baserrira jaisten ziren udazkenean eta handik Bizkaiako Larraurira joaten negua pasatzera. Arabatik ere joan izan dira Larraurira, baina azken urteotan bertan ematen dute negu osoa eta udaberria, Maiatzaren hasieran berriro Urbiara igotzen diren arte. Lau egun behar izaten zituzten bidea egiten: lehenengo gaua Udanan, bigarrena Kanpazarren, hirugarrena Muniketan eta laugarrenean iristen ziran Mungiara, Larraurira.



72 argazkia. Arantxa Lapitzondo eta Juan Joxe Goiburu Galarretako «Postas» etxearen atarian. (90-11-10).

Artzain honek esnezaleei saltzen die negutokian ekoizten duen esne guztia. Gaztaia ez omen da Urbian bezain ona ateratzen behean; gainera modu honetan, lana aurreratu egiten dute. 1990. urtean 121 pezta gehi BEZ ordaindu omen zioten litro-esnea.

### 4) IXIDRO ETA PEDRO ZELANDIETA

Bi anaia hauen artaldea, Urbiatik Altzaniako Apotara joaten da udazkenean. Handik Zegamako Eguzkitze baserrira (baserri honetakoa da Ixidroren emaztea, Arantxa Zabaleta), ondoren Idiazabalgo Zelandieta baserrira eta hemendik, Errege inguruan, oinez Bergarako San Martin auzoko Egino baserrira.





73 argazkia. Pedro eta Ixidroren familia Zegamako Eguzkitze baserrian; atean eguzkilorea. (90-11-23).

Itzulera ere oinez egiten dute. Apirilaren erdian Bergararik Idiazabala etortzen dira; bertan hilabete inguru eman ondoren, Urbiara igoz. Bergara Urbiatik oso gertu ez badago ere, ibilbidea oinez egiten dutenez eta gainera bi egunekoa izaten denez, multzo honetan sartu dut Legorburu anaien artaldea. Lehenengo egunean, Errege bezpera inguruan ia beti, Idiazabaldik, Mutiloa eta Gabiria zeharkatuz, Legazpiraino joaten dira, bertako Bixiola baserrian gaua pasatuz. Bigarrenean hemendik abiatu eta Arrola menditik barrena, Bergararaino iristen dira. Itzulera, ordea, egun batean egiten dute. Goizean goiz Bergararik atera eta ilunabarrerako Zelandietan izaten dira. Honen zergatia nahiko argia da: joaterakoan, ardiak umegiteko egoten direnez, batzu denbora beteta gainera, bidaia astunagoa egiten zaie. Itzuleran, berriz, ardiak indartuta eta hazarkumeak kozkortuta egoten dira. 21 urte bete dituzte aurten bertara joanez.

Bergaran daudenean, arkumeak ondoko Otsein lantegiari saltzen dizkiote; esnea, berriz, ahal dutena kaletarrei eta bestea Lana esnezaleari.

##### 5) EMILIANO ETXEZARRETA

Arbelargo artzain honek, oso zabaldua izaten du artaldea negupartean. Zegama, Segura, Zerain eta Beasainen banatzen du, hain zuzen. Artalde handia izanik, jaisten diren ardiak eta arkumeak Zeraingo Telletxea baserrian izaten ditu; antzuak eta hazarkumeak, berriz, Zegaman eta Beasaingo Loinaz auzoan.



74 argazkia. Zeraingo  
Telletxea baserria.  
(91-2-2).

Lehen Apirilean Gabiriko Gabirizar baserrira eramaten zuen artalde nagusia, Urbiara igo baino lehenagoko egunak bertan pasatuz. Baserri honetako larreak urte guztirako zeuzkan erosita eta Uztailean bertako belar-onduz betetzen zuten ganbara, negurako ganadujatekoa izan zedin. Mutiloako Urbizuaranen ere egona da.

Artzain honek ere, beste gehienak bezala, esnezaleei ateratzen die esnea, Olaztiko La Vasco-Navarrakoei, zehazki esateko. Dena den, esne eta arkumeekin hartutako diruaren zati haundia baserrien eta larreen errenta ordaintzen joaten omen zaio, bereak ez dira eta. Aurtengoan gainera, ardi askok umea bota egin dute, manda-belarra janda edo. Hauetako batzuk berriro ere ahariarekin ibili eta Apirilera egingo dute arkumea.

— Bigarren multzoan beste bost artzain sartuko lirateke: Joxe Martin eta Atanasio Arana, Joanito Etxezarreta, Fermin Arrieta, Jexux Etxezarreta eta Joxe Mari Oiarbide. Hauek negulekua Bizkaia eta Gipuzkoako kostalderago aukeratu dute, beti ere eguraldi epelago eta larre ugariagoen bila. Kamioiz eraman eta ekartzen dute artaldea, ezinezkoa baita orain errepede horietan dagoen trafikoa-gatik, artaldea bertatik oinez eramatea.



75 argazkia. Emilianoren  
ardiak eta arkumeak. A-  
tzean Zerain. (91-2-2).



## 1) ARANA ANAIAK

43 urte egin dituzte Urbiako Laskolatza sarioian Atanasio eta Joxe Martinek. Orain dela 28 urte erosi zuten Urnietan Arnotza baserria; aurretik, Beasain, Ormaiztegi, Legazpi eta Zegaman pasatzen zuten negua. Orduz geroztik, ordea, bertara joaten ziren oinez, N-1a jarraituz: Beasain, Tolosa, Andoain eta Urnieta.

Oinez egin izan zuten Urnietarako bidea. Garai hartan trafiko haundirik ez izan arren, 1962. urtean hara zihoazela, Legorretako paper-lantegiaren ondoan, kamioi bat artaldearen gainera sartu zitzaizen 30 ardi akaatuz; Joxe Martin ere larri omen zen. Harrez gero, beti kontuz ibili behar izan dute bidean, eta azken urteetan kamioiz eramaten zuten artaldea.

Badira hiru urte artzain hauek artaldea saldu zutela. Dena den, oraindik badute dozenatxoren bat eta urtero egiten dute bixita Urbiara uda partean. Ardiak ere eramaten dituzte bertara.



76 argazkia. Txakurra eta makila, artzainaren lagun onenak. (88-4-25).



77 argazkia. Joxe Martin eta Pilar Armotza baserriko beheko-suaren epelean. (88-4-25).

## 2) JOANITO ETXEZARRETA

Zegaman jaiotako artzain honek, Arabako Gordoan erosi zuen baserria orain dela 32 urte, bere anaia Martinekin batera.. Udazkenean, eguraldi txarra hasten denean, bertara jaisten du artaldea, Abenduaren lehenengo hamabostaldi arte bertan egoten dela. Ondoren, kamioietan hartu eta Bizkaira eramaten ditu, BARRIKAKO Abaroa baserrira hain zuzen. 16 urte dira baserri hau erosi zutela eta orain 5 urte arte oinez eramaten zuten artaldea bertaraino. Han bizi, ondoko etxe batean bizi dira.



78 argazkia. Gordoako soroak; atzean Aratz mendia. (91-2-24).





79 argazkia. Barrikako Zamalloa baserria, Joanito Etxezarretaren negulekua. (91-1-12).

Itzulera Maiatzaren lehenengo astean egiten dute; Gordoan hamabosten bat egun eman ondoren, Laskolatzako beren txabolara igotzen dira.

### 3) FERMIN ARRIETA

Lanbitako Ferminnek San Mioletan jaisten du artaldea Urbiako larreetatik Zegamara. Han inguruko baserrietako larreetan eta gabon-pinu soroetan ibiltzen da harik eta Abenduaren erdi aldera, kamioian sartu eta Bizkaiko Euban duen Zamalloa baserrira eramaten dituen arte.

Ferminen aita Anjel, eta honen aita ere leku berera joaten omen ziren negua pasatzera, eta ondo bada, bere sementa Domingo ere bertara joango da. Aitona Bizkaira joan omen zen Zegamatik zerra batean lan egitera. Auzoko artzaina gaisotu eta artaldea salgai jarri omen zuen eta Ferminen aitonak baita erosi ere; harrez gero katea ez da eten.

Orain 8 urte arte oinez egiten zuten hauek ere bidea. Hiru egun behar izaten zituzten Zegamatik Eubaraino; itzulera bitan egiten zuten, zuzenean Arantzazura joaten bait ziren eta handik Urbiara, Maiatzaren erdian. Gerra urtean egin omen zuten huts; beste guztietan han izan dira neguan.



80 argazkia. Fermin eta Anjel bere semea, Aizkorri mendiaren mada-lean, gabon-pinu soroan artaldea zaintzen. (90-11-23).



81 argazkia. Eubako Zamalloa auzoko baserriak. Behekoa artegia eta goikoa etxebizitza. (91-1-12).



**82 argazkia. Lanbitako Fermin gau osoan arku-meei jaiotzen laguntzen ibili ondoren, atariko prentsaren ondoan. Atzean zintzilik alazorroa. (91-1-12).**



#### 4) JEXUX ETXEZARRETA

Arbelargo Domingoren seme honek, aita zenaren neguleku bera erabiltzen du oraindik. 200 urte baino gehiago omen daramatzate bertara joanez. Udazkenean Segurako jaiotetxera, Madalena baserrira jaisten du artaldea, inguruko larreetan Errege inguru arte ibiltzen direlarik. Orduan, Bizkaiko Mendatara eramaten dituzte ardiak, bertan duten Oraindi baserrira hain zuzen.

Jexuxek eta bere anaia Emilianok ere bere aita zenarekin oinez egiten zuten bide hau, orain dela 8 urte arte. Aita hil zenean, artaldea banatu egin zien semeei eta zaharrenak, Jexuxek, hartu zuen negutokia.



**83 argazkia. Jexux Etxezarreta Mendata ondoko larreetan artzain. (91-1-12).**



84 argazkia. Anttoni Oiarbide eta Lourdes Errazkin Mendatako Oraindi base-  
rriko beheko-suaren on-  
doan. (91-1-12).

Artzain honek, besteez bezalaxe, kalean saltzen du ahal duen esne guztia, Gernikan hain zuzen ere, esnezaleari emanda baino dexente diru gehiago hartzen baita modu honetara.

##### 5) JOXE MARI OIARBIDE

Oltzeko artzain hau Zegamara jaisten da Santu guztien inguruan eta bertan egun bakar batzu egin ondoren Bizkaiko Gamizera jotzen du artaldea kamioitan hartuta. Herri horretako Uribarri baserrian edukitzen du artaldea; 55urte badira bere aita zena, Agapito, bertara joaten hasi zela. Bizi, ordea, Lezamako Arretxalde auzoan dagoen Bista-Alegre etxean bizi dira. Itzuli Zalduekora itzultzen dira Maiatzaren erdi aldera, bertatik hurbilago geratzen baita Oltzeko beren sarioia.



85 argazkia. Zegamako Aitamarren etxean egiten dituen egun batzuk Joxe Mari-  
k udazkenean, Lezamara  
joan aurretik. (90-11-23).





86 argazkia. Joxe Mari OiARBIDE, JEXUX eta Mari Paz seme-alabekin. Gazteek jarraituko ote diote artzantzari? (91-1-12).

Kalera eramaten ez duen esnea, Santanderreko Guriezo esnezaleari saltzen dio Oltzeko artzain honek. Garai batean gazta freskoa saltzen zuten, egin berri-berria alegia. Esnearekin baino diru gehiago lortzen zuten era honetara. Orain debekatuta dago gazta hau saltzea, baldin eta gaztandegiak behar bezalako osasun-baldintzak ez baditu.



## ONDORIOAK

Azterlan honen ondorioak aipatzean, lehenengoa artzain lanbidearen behe-rakada nabarmena da inolako ezpairik gabe. 1931. urtean Oltze eta Urbian 27 artzainek zituzten artaldeak; gaur, berriz, 1990. urtean, 9 besterik ez dira. Gutxitze honen arrazoietakoa bat baserri giroan jaiotako jendeak 60. hamarkadan zehar industriaren gorakadak eskaintzen zion aukerari heltzea izan zen. Gurasoak eta semeak lotzen zituen kate hark etsai gogorrek aurkitu zituen gazteei askatasun gehiago eta diru garbia eskaintzen zieten lantegietan. Artzantza izugarri lotzen duen lanbidea izanik, itxuraz behinik behin erosoagoa zirudien bizimodua aukeratzearabaki zuen kopuru haundi batek.

Bestalde, artzainen ahotik etengabe entzuten den kontua da beraiek ekoizten dituzten produktuak ez diotela bizitzak berak ekonomia alorrean izan duen bilakaerari jarraitu. Pentsuak, tresnek, errentak gora egin duten bitartean, artileak, ardizaharrak, arkumeak, esneak eta esnekiek ez dute pareko igoerarik izan, ezta hurrik eman ere! Are gehiago, aurtengoa neguan arkumeak eta esneak behera egin dute nabarmenki. Jasotzen dituzten diru-laguntzek (ume-egiteko zegoen ardi buruko 2.000 pezta eskas 1990. urtean), ez omen dute egoera larri honi irtenbide egokia emateko balio. Askoz haundiagoa izan beharko luke artzain guztien ustez. Gainera beldur dira 1992. urtetik aurrera, dirulaguntza kendu egingo ote dieten, Europan sartze famatu hori dela eta.

Arestian aipaturiko kate hura eteteko arriskuan dago beraz, orain dauden artzain-familietatik, oso gutxitan ikusten baita jarraipena. Hau gutxi balitz, berririk ez da azaltzen gainera.

Beste alor batean, artzainaren bizimoduak bereganatu egin ditu neurri haundi batean gaurko gizarteak eskaintzen dizkion zenbait aurrerapen, betiko lanak, betiko eran egiteari jarraitzen dioten arren. Aipatzekoa da motoredun ibilgailuen sarrera, Urbiak beheko munduarekiko zuen nolabaiteko isolamendua hautsi duena. Honek zenbait alorretan aurrerapen izugarria suposatu du, besteak beste, janari kontuan, txabolak nahiz eraskinak eraikitze eta hornitzeko materiale eta tresnen garraioan, gaisotasunak eta larrialdiak behar bezala zaintzeko orduan, hitz bitan laburtzeko, makinatxo izardi aurreratu diotela artzainari tresna berri hauek. Puntu honetan ezin utzi aipatu gabe, hainbeste eztabaida eragin duen Urbiarako mendi-

pistaren eraikuntza. Jendeari ireki ala ez, orain arte bezalaxe bertakoen erabile-  
rarako izango litzatekeen ala ez, nondik nora egin,... honen atzetik, artzainen  
interesak baino, beste batzu nagusi ez ote diren susmoa nahiko zabaldua dago  
eta ez da batere erraza eraikiko balitz, beronek izango lituzkeen ondoriok aurri-  
kustea. Dena den, ni behintzat abantaila baino kalte haundiagoa egingo lukee-  
lakoan nago.

Mendizaletasunak, berriz, zabaltzen joan den neurrian, alde batetik artzainari  
jendearekin erlazionatzeko aukera haundiagoa eta taberna zerbitzua emanez sos  
politik irabazteko parada eskaini badio ere, kalte garbiak ere ekarri dizkio. Lanean  
zehar aipatu dudan bezala, sasi-mendizale hauetako batzuk eraikuntzetan eragin-  
dako txikizioak direla eta, ohitura zahar zenbait aldatzera behartu ditu artzainak,  
txaboletako ateak ixtearena delarik garrantzitsuenetakoa. Mendian sakabanaturik  
uzten diren zaborrek ere ez diete batere mesederik egiten ez ardiei ezta larreei  
ere.

Artzainak berezko dituen lanek aurrerapen gutxi izan dutela dago aipatu  
beharra. Tresnak materiale berriez eginak daude orain; gainerantzean esku-lana  
da nagusi oraindik ere, bai ardi-jaste, gazta-egite, ardi-mozte eta beste lanetan.  
Artaldeak, bataz beste, buru-kopurua bikoiztuta ikusi du azken 30 urteotan, ar-  
tzainen ustez, ardi gutxirekin ez baita zorra besterik egiten; lana eginaren poderioz  
atera behar zerbait. Bestalde, Urbia-Oltzeko artzantzaren ardatza, hots, latxa  
ardia, kanpotik erositakoa izan badaiteke ere, ohitura zaharrari jarraiki artaldeko  
ardiren baten umea izango da ia beti, bertako larreak eta larrebideak ezagutzeaz  
gain, aita eta ama zeintzu dituen bai baitaki artzainak.

Bukatzeko, aipamen berezia egin nahi nuke artzainaren atzetik, itzalean  
bezala dauden emakume eta senideez. Horrelako lanetan artzaina hitza aipatzean,  
askotan ezkutuan geratzen baitira makina bat lan egiten duten emazte eta seme-  
alaba horiek. Zer ote lirateke artalde asko hauen laguntzarik ez balego? Horre-  
xegatik ez nuen atal hau berauen lana aipatu eta txalotu gabe utzi nahi.

## BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, IÑIGO. 1974-1976. «Geografía económica: ganadería». 65-80 orr. *Eusko Lurra*, Donostia: Etor.
- EZCURDIA, ALEJANDRO; LASA, JOSE IGNACIO. 1956. «El pastoreo en la zona de Urbía-Oltze». 161-166 orr. *Anuario de Eusko-Folklore. 1955. XV. alea*, Donostia: Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- GOIBURU, JOSE JABIER. 1980. «Macizo del Aiztgorri». 182-213 orr. *Mendiak I*, Donostia: Etor.
- GOÑI, CARMEN DE. 1956. «Algo sobre la Parzonería General de Guipúzcoa y Alava». 145-154 orr. *Anuario de Eusko-Folklore. 1955. XV. alea*, Donostia: Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- LEIZAOLA, FERMIN. 1977. *Euskalerriko artzaiak*, Donostia: Etor.
- LEIZAOLA, FERMIN. 1978. «Cultura pastoril». 65-96 orr. *Euskaldunak I*, Donostia: Etor.
- OJANGUREN, ELI. 1980. «Itinerarios de acceso a Urbía». 214-219 orr. *Mendiak I*, Donostia: Etor.



## HIZTEGIA

- Abarolekua:* ardiei udan bero haundia denean bereziki, babesa eskaintzen dien lekua da, pagadia ia beti.
- Agiñe:* agina. Garai batean Gipuzkoa osoan zehar ugaria zen zuhaitz mota. Bere egurra oso preziatua izan da . Tejo.
- Akatsa:* zenbait artzainek ardiei belarrian egiten dieten seinalea adierazten duen izena. Zatitxo bat falta zaiola esan nahi du.
- Ama-ordekoa:* ama akaatu zaiolako, berea ez den arkumeari esnea ematen dion ardia.
- Antzutu:* ardia, ume-hartzeko prest eta indartsu egon dadin, jasteari uztea.
- Apatza:* Esne guztia jatsi ondoren, biltzeko eta gatzagia emateko erabiltzen den ontzia.
- Ardigureizeak:* ardi-mozteko erabiltzen diren gureiza bereziak. Erdian bultzailua daukate, estututakoan lehengo lekura itzul daitezten.
- Arkea:* ardia ahariak estal dezan prest dagoen garaia da.
- Artillea:* artile. Ardiei hotzetik eta euritik babesteko hazten zaien ilea.
- Astatxillarra:* astatxilarra. Koltxoiak ipini baino lehen, bigungarri modura erabiltzen zen txilar mota. Brezo.
- Azpiak egin:* abereak simaurrez zikin ez daitezten, tegia garbitu eta egokitzea. Garoa eta orbela erabili ohi dira lan honetarako.
- Barrutia:* goilarreetan eguraldi txarra eta larre eskasia dagoenean , artzainak erabiltzen duen lur zatia da. Negutokia.
- Burruntzia:* txabola nahiz eraskinetako teilatuan bizkarretik aldamenetara jartzen den egurra.
- Dolina:* kareaitzezko mendietan, uraren eraginez aitzia desegiten denean gertatzen den enbutu antzeko zuloa. Elur-zuloa.
- Eskortea:* eskorta. Ardiak biltzeko erabiltzen den itxitura. Jasteko eta banatzeko ere balio dezake.
- Eztentzuloa:* Ardiei belarrian egiten zaien seinalea. Zulagailu batez egiten da.
- Gatxitxie:* bere arkumeari esnerik eman nahi ez dion ardia.
- Gatzagia:* esnea mamitzeko erabiltzen den gaia. Arkume- urdaila.
- Gazure:* gazura. Esnea mamitzen denean, matoia bildu ondoren geratzen den ixurki horizka.



*Hazienda:* ganadua esateko erabili ohi den beste hitz bat.

*Hazarkumea:* artaldearen buru-kopurua mantendu edo haunditzeko, arditarako uzten den arkumea.

*Hesia:* eskorta, jastoki, baratze eta antzeko eraikuntzetan, abereei bidea eragozteko eraikitzen den oztopoa. Urbian harri lehorrezkoa izaten da ia beti, baina badira egurrezkoak.

*Ikatz-txondor:* ikazkinek arboladietan egur-ikatz egiteko egiten duten egur-pi-  
loa. Lurrez estali eta su ematen zaio ondoren egurra erre gabe ikatz bihur dadin.

*Illakazkia:* ilakazkia. Esnari zikinkeriak kentzeko erabiltzen den enbutua. Honi gainean lehen asunak eta orain ohial mehe-mehe bat jartzen zaio, zikinkeria horiek bertan gera daitezten.

*Illategia:* ilategia. Udan ardi-moztu ondoren artilea gordetzeko erabiltzen den eranskina.

*Illorra:* Ilorra. Harri lehorrezko eta teilatu aldapatsua duen eraikuntza txikia. Teilatua garoz, zotalez edo txapaz estalia izan ohi du

*Itukina:* itokina. Euria egiten duenean teilatuko zuloetatik sartzen den ur parrasta.

*Jatsgaizto:* artzaina ardiak jasten ari denean ihes egiten duen ardia. Jatsizua.

*Jatsi:* jatzi, jetzi, batu, bildu, eraitsi. Abereei errapean duten esnea atera.

*Jatsizu:* ikus *jatsgaizto*.

*Kaikua:* artesnea biltzeko erabiltzen den ontzia. Lehen egurrezkoa izaten zen; orain txapazkoa.

*Kamaña:* kamaina. Txaboletan dauden oheak izendatzeko artzainek erabiltzen duten hitza.

*Kapirioa:* teilatuari eusten dion egurra. Bizkarretik aldameneko ormen gainera jarrita egoten da. Burruntzia.

*Leku-jakiña:* leku-jakina. Ardiak Urbian larre egiten duen tokia. Artalde bakoitzak berea izaten du.

*Malatxa:* Esnari gatzagia eman ondoren, behar bezala nahasteko erabiltzen den tresna. Nahastekoa. Gorosti- egurrezkoa izaten da, adarrak bihurrituz kintenari lotuta dituela.

*Matoia:* esnea mamitzen denean, gazta egiteko erabiltzen den gai txurizka.

*Negutokia:* ikus barrutia.

*Ota:* arantza zorrotzak dituen lore horidun sastrapa. Argoma.

*Partzuergoa:* zenbait herrik beren lurralde batzu bilduta sortzen duten elkarteak. Probintzi artekoak izan daitezke eta arauak edukitzen dituzte bertako aberastasunen protxurako.

*Pikarea:* ardiei belarrian egiten zaien seinalea. Gureizez zatitxo bat moztuz egiten diete.

*Saroi:* Txabola, eskorta eta gainerako eraskinak dauden lekua.

*Soinkurutzea:* bizkarrezurra eta aurreko hankak gurutzatzen diren bizkarraldeko gorputz atala.

*Txali:* zumitzari, matoiaz bete ondoren, jartzen zaion estalkia.

*Txillar:* Txilar. Urbiako larreetan geroz eta ugariagoa den sastrapa. Brezo.

*Txurkalabana:* matoia bilduta duenean, gazta adina zati egiteko erabiltzen duen egurrezko tresna.

*Txurkea:* txurka. Artzainak apatzaren gainean zumitza jartzeko erabiltzen duen ohol zuloduna.

*Umehartu:* ahariak estali ondoren umegiteko geratzea.

*Urdaila:* jakiak txikitu eta odoleratzeko prest uzten dituen gorputz-atala. Arku-me-urdaila erabiltzen dute artzainek gatzagitarako.

*Uztaiia:* zintzarria edo dumbak zintzilikatzeko abereei lepoan jartzen zaien egurrezko tresna. Agina oso erabilia izaten zen uztaiak egiteko, bere egurra oso biguna baita. Gaztainondo eta lizar egurrez ere egiten dituzte.

*Zotala:* estalki modura erabiltzen den lur-zatia. Aitzurrez atera belar eta guzti, eta kapirioen gainean jartzen da.



## ERANSKINAK

### I. ERANSKINA

Sandrateiko koban 1981.eko Martxoaren 28an izandako bilera bereziko akta. Segurako Artxibategitik jasoa.

Aintzinako ohiturari jarraituz, 1981.eko Martxoaren 28an, Sandrateiko (San Adrian) koban izandako bilera bereziko akta.

Dei bereziari erantzunaz, Partzoneria osatzen duten Gipuzkoa eta Arabako herrietako Udalak bildu dira = egoardiko 12tan, aipaturiko koban. Baita ere, han = ziren, Euskal Jauriaritzakô Nekazaritza saileko buru den Félix Ormazabal Ascasi Jauna; Gipuzkoako Al dundiko Lehendakari den Aizarna Jauna, eta Arabako Aldundiko ordezkari jauna. Bai ere, han ziren, Partzoneriko injineru ikertzaile eta zenbait kazetari.

Segurako FRISEILU txistulari taldearen doinu alaiekin eman zitzaien Batzarkide guztie ongi-etorria. Hemen alboan doaz idatzirik batzarkide hoienekin.

Ondoren, Partzoneriko araudiaren honako testu berriak irakurri ziran euskeraz eta gazteleraz.

San Adriango Koban, 1981eko Martxoaren 28an

#### B I L D U A K:

Gipuzkoa eta Arabako Partzoneria Orokorreko Batzordeko batzarkideak, elkarte honek jatorrizko eta funtsezko dituen helburuak betetzeko eta hazteko dituen gero eta problema haundiagoak ikusirik, bat datoz segidako puntuotan, eta honek erabakitzen dute:

Lehenik. - Partzoneria osatzen duen mendialdea egoera kritikoan aurkitzen da, eta zori txarretik txarragora doanez, benetan kezagarria da.

Bigarren.- Premia biziko arazoa da natura eta ingurumaria zaintzea, bai eta Partzoneriako berezko baliabideak zaintzea ere; horretarako, artzantza eta baso-baliakuntza kontrolatu, indarragotu eta hobetu beharra dago, eskintza horiek, ahal den neurrian, turismo arekin edo kirolgintzarekin parekatuz.

Hirugarren.- Alderdi guztietatik, Partzoneriaren = egiazko helburua atera behar da aurrera, hau da, bertan dauden artzanz barrutiak, arboladia, uza eta gaineratiko berezko baliabideak zaindu behar dira.

Laugarren.- Dela artxibategiak, dela ahiturazko zuzena, dela argibide eta dokumentu ezagunak sakonki = ezagutuz, Partzoneriaren araudia egunerako egin behar da, gaurregungo problematikari behar bezela egokituz.

Aipatutako puntuak oinarritzat hartuz eta 1430eko azaroaren 16an San Adriango Koban bildu ziren gizonen Partzoneria formalki erabiltzean izan zituzten asmoak kontutan hartuz, Partzoneriako Batzordeak, etorkizun batean berrizkusteko, hobetzeko eta osatzeko bidetari uko egin gabe, ARAU batzu erabakitzen ditu artzantzarako, baso-baliakuntzarako, turismoarako eta = kirolgintzarako, Partzoneriako mendiei dagokienez.

Partzoneriako Batzordeak, arau horiek erabakitzeko eskubide osoa duelarik, Eusko Gobernuari adieraziko dizkio; bai eta Gipuzkoako eta Arabako Diputazioei = ere; era berean, hala irudituz gero, beste Erakunde = eta Gorporazioei ere; beti ere, arauak indarrik haundiena izan dezaten baimena eta laguntza eskatuz.

## ERABILLETUNTZARAI O ARAUAK

### ARTZANTZA

1.- Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorren Printzipioen arabera, Partzoneriako mendietan artzantzarako eta txabola edukitzeko eskubidea, honako hauek bakarrik dute: partzuergo-herriren batetan legez herri



tar eta etxea dutenek, edota, halakoen ondorengo izanik, beraien menpean bizi direnek. Alde honetatik, honako hauek hartuko dira herritartzat: adinez nagusi edo asko izanik, ohituraz partzuergo-herriren batetan bizi eta herriko biztanle-zerrendan letozkeenak.

Artzantzarako eta, ondorioz, txabola edikitzeke, Partzoneriak idatziz emandako baimena beharko da. Eskabidea, norbera bizi deneko Udaletxearen bidez egingo da, eta delako Udaletxearen alde aurreko informea beharko da.

Aipaturiko herritargoak gutxieneko epe bat beharko du izan; hain zuzen ere, Partzonerian artzantzarako eta txabola edukitzeko eskabidea egin baino hiru urte lehenagotik eduki beharko du batek herritargo hori.

Partzoneriako Batzordeak, behar diren kontseilaritza teknikoez baliaturik, urteoro erabakiko du artzantzabaliakuntzaren Plana; bai eta beronen indarragotzea eta hobetzea ere; plan hori behar den agintan proposatzen zaiolarik. Plan horreh arabera, partzuerren beharrak ase ondoren, zerbait sobera gelditzen dela ikusiz gero, soberakinak nola banatu erabakiko da.

2.- Urtero, apirilez, artzaiek eta ganadu-jabeek, nor bere udaletxearen bidez, Partzoneriako Batzordeari deklarazio hau beharko diote aurkeztu berariz: urtean zehar partzoneriako larreetara zenbat buru bota behar dituzten, ganadu-mota eta kopurua eta beste zernahi jakingarri adieraziz.

Partzoneriak, beti ere, ganadua osasunaren alde bik ondo egotea eskatuko du.

Artzaiek zenbat buru dituzten beharko dute deklaratu, bai eta daramaten marka eta seinalea ere, eta berariz beharko dituzte adierazi halako ganaduaren jabearen edo jabeen datudk.

Ganaduzaleek, hau da, zaldi edo behi-ganaduaren jabeek argi eta garbi beharko dituzte markatu eta jinduko zaien eran, kontrolpidea posible garta dadin, eta erraza.

Partzoneriako larre guztietan debekaturik dago ahuntzak sartzea.

Bere esku izango du Partzoneriak aurkeztutako dekla-

razioak zuzenak diren ala ez kontrolatzea, eta berak ikusiko du nola egin kontrol hori.

3v- Txaboletan bizi ahal izateko, Partzoneriako Batzordeak emandako berarizko baimena beharko da beti; Partzoneriaren gain geratuko da beraien erabilkuntza egokia zailtzea.

Txabolan bizitzeko eskubidea, gutxieneko ardi-kopuru baten jabe den artzaiak bakarrik izango du; kopuru hori urtero erabakiko da.

Guztiz debekatua da txabolak besteri uztea nahiz besterenganatzea, nola eta aitarengandik semearengana ez den, eta orduan ere Partzoneriako Batzordeari berariz adieraziz.

Txabolen bat bi urtez segidan utzirik egongo balitz, beraren erabiltzaileak galdu egingo lituzke eskubide guztiak harekiko.

Txabolaren baten erabilkuntza uztean, egoera onean utzi beharko du erabiltzaileak, eta Partzoneriako Batzordeak emango beharko du ontzat egoera hori.

Guztiz debekaturik dago alde aurretiko baimenik gabe txabola berririk eraikitzea. Debekaturik dago, era berean, Partzoneriako Batzordean berarizko eta alde aurretiko baimenik gabe artzantzarako ez beste helburutarako txabolak erabiltzea.

4.- Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorrak, Udalletxe Partzuerren elkarre gisa eta behar diren akordioen arabera, eta 1430eko akordioak aldarrikatutako larrere-dohaintasun-printzipioa errespetatuz, urteko hainbesteko bat eskatuko du ganadua larreragatzeagatik, larreak zaintzetik, gordetzetik, hobetzetik eta administratuetik sortzen diren gastuetarako.

Urtero eta agindutako deklarazioz aurkeztean, Partzoneriako Batzordeak erabakietako hainbestekoa ordainduko da.

5.- Partzoneriak, berak erabakitako eran, edozein garaitan deklaratu eta izendatu gabeko ganadua bahitzeko eskubidea izango du. Jabeak, araugabetasunarengatik,

sortutako gastuak ordaindu beharko ditu bahitutako gauadu berreskuratu aurretik; bai eta Partzoneriako Batzordeak erabakitako multa ere.

#### Baso-explotazioz eta baliakuntza

6.- Partzoneriak, herri partzuerretako jendearen larre-eskubideak erabat errespetatuz eta artzantzaren haunditzea hobetu eta eragiten duelarik ere, arbola-bintzako tokiak zaintzen ahaleginduko da, tekniko egokien kontseilaritza eta zuzendaritza pean.

7.- Larren baliakuntza eta arboladien desarroloa, batak besteari kalterik ez egiteko erabiarautuko dira; bi kasuetan hartu ahal izango dira lekuak hesitzeko neurriak; dela berezko nahiz landatutako arboladi berrien hazkuntza babesteko, dela lerreak hobetzeko.

8.- Herri partzuerretako jendeak bereak dituen eskubideak izango ditu aurrerantzean ere Partzoneriako mendietatik etxeko sutarako egur iharra jasotzeko; bai eta zur-crabilkuntzari buruz dituzten ohizko eskubideak ere, halaz guztiz, Partzoneriak, eskubidea izango du, behar diren baimenak lortuz, egoki liratekeen baso-baliakuntzak subasta publikoen bidez egiteko.

9.- Herri partzuerretako jendeak egurra nahiz zura ateratzeko, Partzoneriako Batzordearen alde aurretiko baimena beharko du; horretarako eskabidea nork bere Udaletxean aurkeztuko du. Udaletxeak, bere informarekin batera bideratuko du eskabidea hori, Partzoneriako Batzordeari zurkeztuz; honek, derizkion erabakia hartuko du.

10.- Partzoneriako Batzordeak, urtero planificatuko du baso-baliakuntza, behar den aginteati bere erabakia aurkeztuz.

11.- Baso-baliakuntza nori eman erabakitzea momentuko leggen arabera egingo da; eskubidea izango du Partzoneriak, baliakuntza nola egin eta burutu erabakitzearau

Konkretuak emateko (materiala ateratzea, eneak betetzea, baso-bideak, e.a.).

12.- Partzoneriako mendietan egin nahi litzatekeen beste edozein baliakuntzarako baimena Batzordeak beharko du eman, eta honek seinalatutako baldintzetara beharko litzateke makurtu.

13.- Baimendutako baliakuntzak direla eta, norbait mugaz kanpora joango balitz, Batzordeak erantzukizunak eskatuko lituzke baimenean edo baldintza-zarrendan arautu bezela.

Baimenik gabeko edozein baliakuntza (gehigizko larrutzea edo Erabilkuntzarako Arqu hauen aurkako zernahi) kasu bakoitzean legokiokeenaz zigortuko luke Batzordeak, eta, gainera, egindako okerrak eta kalteak ordaintzera.

#### Turismo, kirol, ehize eta arrantzarako erabilkuntza

14.- Bere garaian, Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorreko mendiak berezko Parke deklaratuak izateari (dagonetto planteatzen ari denez) uko egin gabe; ehize arrantza, turismo eta Kirol erabilkuntzari buruz bere garaian araudi egokia hartzeari uko egin gabe; momentuan premia-premiazko dirudi hasera besterik ez diren Arau hauek ematea.

15.- Ehize, arrantza, turismo eta kirol-erabilkuntza, Partzoneriako mendietan, mendil berorien Baliakuntzarako Urteroko Planean erabakiko dena makurtuko da kasu bakoitzean.

16.- Ehizerako eta arrantzarako arauak eman bitartean, Berezko Parke horretan, gaurregungo legeen arabera jokatuko da.

17.- Ehize-mota honek duen ehize eta ekonomi berezita sunarengatik, uso migratzailearen ehizeaz era zehatzez etz ardura bereziz emango dira arauak.

18.- Partzoneriako Mendi-bideetan ibiltzeko, Partzoneriako baimen berezia eta idatzia beharko dute izan ibilgailu motordunek. Baimen hori idatziz eskatu beharko zaio Partzoneriako Batzordeari. Berez, baimen hori hauei

bakarrik emango zaie; artzaiei eta zerbitzu tekniko ofizialei; eta, salbuespen bezela, horretarako premia agertuko duten partikularrei.

Aurreko arau hori eta guzti, zenbait parajez gozatu, beraiek ikusmitatu eta aprobetxatu ahal izateko, zenbait sarbide eta bide jakin baimendu ote daitezkeen azterketak egingo ditu Partzoneriako Batzordiak.

Bestalde, berezko zenbait paisajeren hondamen, desitxuratze edo narrasteari bidea mozteko, zenbait sarbidetan hesi eta langa egokiak jarriko dira, kandeduz itxiz eta baimensatudo erabiltzaileei giltzak emanaz.

19.- Partzoneriako lurretan camping-dendak ezarri ahal izateko, eguneko eta mendi-dendako erabakiko den hainbatekoa ordaindu beharko da, aldez aurretik Partzoneriako Batzordeari horretarako behar den txar tela eskatuz.

Altzanien eta Urbia-Oltzan seinalatuko diran akan paleku egokiak, eta haietan bakarrik jarri ahal izango dira mendi-dendak.

Oharketa etz azterketa zientifikikoak direla eta bakarrik jarri ahal izango dira aipatutako lekuez aparte.

20.- Debekaturik dago elkarte honen mendi guztietan irrati, telebista, magnetofono edo disko-gailu guztien erabilera. Artzaiek eta mendiko langileek bakarrik erabili ahal izango dituzte horrelako tresnak beren txabola barruan.

21.- Ontzi egokiak ezarriko dira zaborrak botatzeko, kampaenturako diren lekuetan, biltzeko zerbitzuan ere antolatuz.

Edozein material ez-natural, urruti egoteagatik zakarrontzietara bota ezineto litzatekeena, kampaenturatu egin beharko da, askatzen sakon.

22.- Edertasunari begira, arboladiak ez dira bakarrik erabat botako, baizik arbola haundiak neurri bereko batetan utziko dira beti.



23.- Mendi-bide berriak egiterakoan, ahal den neurrian parafe-motori begiratuko zaio, galtzada eta azterren historikoak errespetatuz, eta, beti ere, Partzoneriko Batzordearen baimena beharko da.

24.- Partzoneriako lurretan edozein partikularrekin egin nahi lukeen irabazpide guztiak Batzordeak baimendua beharko luke izan; honek, behar den baimena ematerakoan, bete beharreko baldintzak ere seinalatu egin beharko ditu.

25.- Goarda-zerbitzu egokia jarriko da Arau hauek bete erazteko, eta jakinâ, eskubidea dutenei zigor egokiak ezartzeko.

26.- Partzoneriako urtero Planak burutzeko eta onesteko, mendianen erabiltzaile-mota diferenterekin harremanetan egongo da Batzordea, behar diren bilerak eginez eta beraien eritziak eta kriteriok jasoz.

#### AGINPIDERAKO ARAUDIA

1. Artikulua.- Partzoneriak bere aginpiderako gailu edo ordenu nagusitzat Batzordea izango du; partaide diren Udaletxeetako bakoitza (Segura, Zegama, Idiazabal, Zerain, Asparren eta Donemiliaga) bere ordezkaritza hautatutakoez moldatutako Batzordea alegia.

2. Artikulua.- Batzordeak bere baitako bazkideez Batzorde Iraunkorra aukeratu ahal izango du, gehienik sei eta gutxienik hiru lagun direlarik, eta berariz seinalatu zaizkion helburu eta eginkizunetarako. Batzorde Iraunkorraren helburu nagusia hauxe izango da: Partzoneriari buruzko aginpide iraunkorra eta egunecan eguneko izatea, eta elkartearen administraritza zuzenak eskatu ahala, bere erabaki zehatzat eta presakoak hartu ahal izatea.

Horrelako erabakien berri Batzordeari eman beharko dio hurrengo bileran.

3. Artikulua.— Batzordearen bilerak Seguran egingo dira horretarako deia Zuzendaria egingo du, gutxienez hamar egun lehenagotik, eta partalde diren Udaletxei zuzendu bileran tratatzekoak diren arazoak adieraziz.

Enkante edo subastak ere Seguran egingo dira. Batzorde Iraunkorraren bilerak, ordea, beharrezko lanaren efikazia dela eta, Partzoneriako edozein lekutan egin ahal izango dira, Zuzendariaren deia araberak.

4. Artikulua.— Batzordearen bilerak ohizkoak nahiz ez-ohizkoak izan daitezke. Urtean lau bilera ohizko egingo dira, hiruhilabetean behin.

Laugarren bilera ohizkoa, halere, abenduan egingo da. Bilera honetan aztertuko eta onartuko dira hurrengo urterako Planak, hau da, ganadutza, baso eta turismo-baliakuntza eta erabilkuntzarako Planak.

Bilera ez-ohizkoak kasu hauetan egingo dira: Zuzendaria hala uste duen guztitan, edota Partzoneriako Udaletxe nahiz ordezkarietatik hiruk hala eskatzen dutenean.

Bilera ez-ohizkoetarako deia lau egun aurretik egingo da, baldin eta, Zuzendariaren ustetan, arazoaren izakerak eta presak hala eskatzen badu.

5. Artikulua.— Batzordearen bilerak Partzoneriako Zuzendari denaren zuzendaritzapean egingo dira; hala-koak, ordea, zein herritako Alkate izan, hartako ordezkari izan behar du.

6. Artikulua.—

Bilera bakoitzean, deian agertzen diren arazoez hitz egingo da. Ordezkariak lekazten beste arazoez ere hitz egin ahal izango da; halere, azken kasu honetan, ordezkari bat hitz egitearen aurka balego, halako arazoaren eztabaida moztu egingo da, eta arazoa hurrengo bilerarako gai-zerrendan sartuko da.

7. Artikulua.- Erabakiak boto-gehiengoaz hartuño dira; partaide bakoitzaren zatien erlazioaren arabera; bozketan pareaturik aterako balira, bigarren bozketa egin da; bigarrenean ere pareaturik aterako balira, Zuzen-dariaren boto bereziak ebakiko luke auzia.

8. Artikulua.- Erabakiak berehala izango dira betetze-koak, eta Aktak bileran eskuhartu duten ordezkariak = sinatuko dituzte.

9. Artikulua.- Batzordearen bilerak jendeaurrekoak = izango dira; baina eztabaidatzekoa den arazoaren iza-kerak hala esbatuz gero, isilpekotzat jo ditzake Batzordeak berak.

10. Artikulua.- Idazkari, Segurako Ukaletzekoa dena = izango da, Beronek emango du Aktetan hitzeginakoearen berri, hartutako erabaki guztiak adieraziz eta ordezkariak agertutako eritzia eta botoak ere bertan jasoz.

11. Artikulua.- Batzorde Iraunkorraren Zuzendari, Partzoneriako Zuzendaria izango da, edota bere ordezkari-tzat Batzordetik berorrek aukera lezakeena.

Batzorde Iraunkorra hilean behin bilduko da gutxienik, eta hala behar izan eta Zuzendariak hala erabakiko duen guztitan.

12. Artikulua.- Partzoneriaren egoitza-buru Segura = izango da; beronetan gordeko da Artxiboa ere; hau ordenaturik gordeko da eta gaineratik partzonerren esku-ra egongoda, edozein momentutan dokumentuak kontsultatzen abal dituztelarik.

13. Artikulua.- Partzoneriaren administraritza, beronen erabakien betetzea bezalaxe, Segurako Alkate, Idazkari eta Diruzainaren gain egongo dira. Batzordearen = aurrean gestioaren erantzule izango dira hoiak; bai eta, elkartearen dokumentu, liburu eta papereen erantzule ere; bai eta beren esku utziko zaizkien fondo eta diru-kopuruaren erantzule ere.



20. Artikulua.- Idazkariari eta Diruzainari, Batzordeak erabakitako ordain-saria emango zaie.

21. Artikulua.- Dudazko kasuetan edo berariz adierazigabeokotan Araudi hau interpretatu eta aplikatzeko, Batzordeak izango du beti hitza; beti ere, ordea, eskuartean duen arazoaren ikusmira eta helburuak behar-ko ditu izan kontutan.

22. Artikulua.- Araudi honi ezarri hahi litzaiokkeen berrikuntza edo aldaketa guztiak, berariz hartarako di egindako ez-obizko Batzordean behar-ko dira tratatu, eta Partzoneria osatzen duten ordezkarietatik hirutatik batek eta zatietatik erdia-bat-gehiagok alde atera behar-ko dute.

Araudia bere osotasunean onartu ondoren, bera bete arazten lagun dezaiguten, dei berezia zuzendu zitzaien bai Euskal Gobernuari eta baita ere Araba eta Gipuzkoako Aldundiari ere. Bukatzeko, Euskal Gobernuko eta Arabako eta Gipuzkoako Aldundietako ordezkariak, beren hitza eman zuten Partzoneriko Batzordearen nahia betetzen pozik saiaturko zirela aginduaz: Azkenik, txistulari gazteek eta bertan gaunden guztion artean, = AGUR JAUNAK kantatu genduen, horrela bilerari bukaera emanaz.





## II. ERANSKINA

Partzuergoko larre eta urak erabiltzeko aginduak. Segurako Artxibategitik jasoak.

Proyecto de Ordenanzas para el aprovechamiento de pastos y aguas de la Parroquia de Alzania, Olza y Urbia, y demás productos de su suelo.

### Artículo 1.º

Podrán introducirse en los montes que componen dicha Parroquia, sus ganados para el aprovechamiento o disfrute de pastos y aguas, todos los vecinos de los pueblos coparticipes de aquella, con sujeción a cuanto se establece en estas Ordenanzas.

### Artículo 2.º

Para purificar la cualidad de vecino, se tendrá en cuenta lo que resulte de los padrones que, con arreglo a la Ley Municipal, obran en los respectivos <sup>res</sup> Ayuntamientoes.

### Artículo 3.º

Nadie podrá llevar sus ganados a pasturar en dicho monte; sin obtener previamente la licencia o autorización del Sr. Presidente de la Parroquia, para lo cual se cobrará

citaren dentro del mes de

### Artículo 4.º

Todo ganado que cubra en las partes de la Páramera, según necesariamente marcadas, <sup>con la de la Exporcion y la de su dueño</sup> y si se faltare este requisito satisficieren por denuncia el cuádruplo de lo que para los de su clase se establezca en estas ordinarias.

### Artículo 5.º

Por cada cabeza de ganado vacuno, caballo, mula y asnal, pagará su dueño <sup>al año</sup> setenta y cinco centinos de plata; y por cada cabeza de las clases de cabrio, lanar y de cordero pagará cincuenta <sup>centinos</sup> también de plata en cada año.

### Artículo 6.º

Las cuotas establecidas en el artículo precedente no serán <sup>proportional</sup>, es decir, que habrán de satisfacerse los intrucados ya <sup>pastore</sup> el ganado un día tan solo ó bien toda la temporada.

### Artículo 7.º

El pago de las cuotas se hará

mejoramiento al punto de marca,  
los danados, sin que quede en  
poder de los otros días subsiguientes  
de la entrega del importe.

#### Artículo 8.º

Queda terminantemente prohibi-  
do el aprovechamiento de atunecillos  
o barbas, helados, hoja seca etc., en  
la forma gratuita que ha venido  
haciéndose, cuyo producto serán en-  
cajados, o amudados, ingresando su  
importe en los fondos de la Parro-  
quia.

#### Artículo 9.º

Todo habitante residente en los  
montes de la Parroquia pagará  
a esta en concepto de consumo la  
cantidad anual de cinco pesos,  
habiendo de distribuirse el produc-  
to total de este impuesto entre las  
Diputaciones de <sup>11</sup>Alava y Guipúzcoa,  
y esta Parroquia.

#### Artículo 10.º

El que dese construir cabanas  
o corraliza, solicitará de la Presidencia

cia al 'dominante' permita a fin de  
dejar esta 'Industria' si lo estima  
oportuno, designe el sitio y proceda  
a sus marcaciones.

Para atender a los gastos que con  
el motivo se originen y en concepto  
de arbitrio pagará el solicitante 50  
centimos de peseta por cada metro  
cuadrado de extensión superficial, sin  
que el concesionario adquiere en  
ningún tiempo propiedad sobre el  
terreno

#### Artículo 11º

Los tipos de cuota de cualquier  
clase establecidos se entenderá que son  
tan solo para los terrenos parame-  
ros, pues para los que no lo sean  
se considerarán duplicadas las cuo-  
tas, multas y demás

#### Artículo 12

Los Guardas entregarán trineo,  
tratamiento al Sr. Presidente el im-  
porte de las denuncias y los partes  
escritos de aquellas que por malhe-  
tencia u otra causa no haya hecho

Stirling

Indicente 13

(Indicente) se remite durante  
el mes de junio la donación puntual  
de este donante para hacer

con la liquidación de cuentas, con  
tribuciones las sumas adeudadas en  
las calles de Olaya y Verdad.

Artículo adicional

Todo el ganado existente en este  
finca se do de acuerdo en esta Ordenanza

para que pueda hacerse en  
términos de que se comprenda, así

como también las ganancias con que  
se a de hacerse anteriormente sobre

el patrimonio

segura 12 de abril 1901.

Ignacio de los Rios

Sube firma

"El Estado de Veracruz"  
El Jefe de la Oficina

de los Rios

Alonso de los Rios



### III. ERANSKINA

Partzuergoaren Lehendakariak herrietako alkateei bidalitako agiria. Segurako Artxibategitik jasoa.

*Abaltin*

*de la N. y L. Villa de*

*Segura*

*A-9-10/15*

Núm. 573.....



En mi reciente viaje de inspección a las obras de construcción de la hermita en la explanada de "URBIA", cuya inauguración hemos de celebrar este año, he podido convencerme, compartiendo el parecer y deseo de numerosos y distinguidos deportistas y artistas, que frecuentan aquel espléndido paraje, tanto vizcaínos y alaveses, como guipuzcoanos, de la necesidad de construir, también, en el mismo una casa, albergue y fonda, en sustitución de las dos, nada recomendables tabernas-chozas, que actualmente existen allí.

La construcción de tal edificio podía realizar la Parazonería general, no siendo dudoso que había de alquilarse ventajosamente, cuando menos para la temporada de verano, y había de rendir buenas utilidades, además de llenar una tan sentida necesidad, y atraer a nuevos visitantes, dado el desarrollo, cada vez creciente, que va adquiriendo el alpinismo, sin decir los muchos peregrinos, que hacen escala en dicho paraje, para Aranzazu y Cruz de Aitegorri.

Estimando, por todo ello, esta Presidencia de gran interés y finalidad, la realización de tal proyecto, lo expone a la consideración y estudio de todos los Ayuntamientos comparzoneros, al objeto de conocer el parecer de cada uno de ellos, sobre el mismo, para, en su vista, adoptar la resolución, que más conviniera, de común acuerdo; rogándoles se dignen manifestarlo a la mayor brevedad posible.

Dios guarde a Vds. muchos años.

Segura, 17 de Julio de 1924.

EL PRESIDENTE

Frs. Alcaldes de Araya, S. Millán, Cegama, Idiazabal y Corvín

Vertical line of text on the right edge of the page, possibly a page number or margin indicator.

# ARTZANTZAZ ARTZAIN FAMILIA BATEKIN

*Ainhoa Galparsoro Sarriegi*

## LABURPENA

Hitzaurrea

Bertsoak

Sarrera


Metodologia

1. Artzantzaren definizioa
2. Historia pixka bat
3. Iharduera ekonomikoekiko lotura
4. Ardiak
5. Artzaina
6. Larre-aldaketa
7. Bizilekua
8. Tresneria
9. Eratorriak
10. Ohiturak

Tesia

Hitzatzea

Bibliografia



## HITZAURREA

Herrialde menditsu guztiak bezala, euskal lurra haran eta mendiz eratua dago. Bere haragia kararri, harearri, tuparri eta pikorrarizkoa delarik.

Uholdeen hondoan opalezko hareak dizdiz egiten du. Urjauziek burbuxetan xehetutako eta goroldioen klorifilaz asebetetako ura egozten dute. Han goran, hegazti harrapari bat haitzebaki batetatik jauzten da. Han ekialdean, Auñamendiko magalean, otsoak marru egiten du bere gordelekuan eta ardiek larreak gainerasozten dituzte. Hizkuntza zaharra edonon entzuten da mendian. Neguko elurrek bakarrik urruntzen dute bertatik. Gizonaren izerdi eta izuak kizkurtu dute harkaitza.



1 argazkia. Entziako mendizerran dagoen trikuharri bat, 1990eko azaroan Itziar Perez de Abeniz-ek ateratako argazkia.

## BERTSOAK

1

Menditarra naiz eta gogoan  
beti izan det artzaia,  
eta badaukat bere bizitza  
pixkabat berritu nahia.  
Ardiak ditu bere lagunak  
nola aste hala jaia,  
horixe degu guraso zaharren  
bizibideen sustraia.

2

Gure aurreko guraso zaharrak  
Euskal Herrian aurrena,  
ehiza zutela bizibidea  
eta artzantza urrena.  
Hola ba behintzat orain arteko  
historiak dakarrena,  
artzantza zala euskaldun zaharren  
bizibiderik zaharrena.

3

Oraindik mila urteko gauzak  
berritzen hasten bagera,  
orduan ere artzaiak bizi  
ziran oraingo antzera.  
Arkume batzuk lepoan hartu  
saltoka Belen aldera,  
lehenen artzaiak iritsi ziran  
Jesus ona agurtzera.

4

Gizonarentzat bizitza latzik  
baldin balego munduan,  
iruditzen zait artzaiarena  
izango dela neguan,  
ardi larruak elurrarekin  
estaltzen diren orduan,  
esaten zaila artzai maiteak  
zenbait sufrituko duan.

5

Ardi batzuek ume minetan  
trumoia ta kaskabarra,  
ohia utzita ardiengana  
derrior jaiki beharra.  
Hura ardien marrua eta  
hura arkumen negarra,  
dudan jartzen naiz kartzela ere  
ote leiken horren txarra.

6

Goiz ta gauetan ardiak jeitsi  
eta ondoren larrena.  
Ile haundiko zakur zatar bat  
doa barrutik ertzera.  
Barrutiaren ertzean dabil  
batera eta bestera,  
erositako barrutitikan  
inor ez dedin atera.

7

Zakur gaixoa fin dabil baina,  
mugan ezin errenditu,  
nahiz ta tartean ardi batzuek  
hanketatik erren ditu.  
Nagusi jaunak ikusi nahiez  
txakurrak ezin gelditu,  
danik artzai onenak ere  
pikardi hoiek baditu.

8

Negu guztia igaro dute  
udaberrira begira,  
dunbak erantsi ardieri ta  
badijoazte mendira,  
hemen hainbeste alambre eta  
muga ez dagon tokira,  
artzaiarentzat zorion edo  
egun onenak han dira.



Garagarrila inguru edo  
berotzen hasten denean,  
beren ardiak mozten dituzte  
mendiko auzo lanean  
Euren artean zaputzik edo  
haserre ez daudenean,  
alkartasuna haundia bait da  
mendian eta kalean.

Dibertitzeko aukera asko  
ez dadukate gartzetan,  
dantza tokia berdina bait da  
igande edo astetan.  
Inoiz txabolan aste osoan  
hilabetean bestetan,  
azkenerako ia bakarrik  
hasi beharko hizketan.

Amets eginaz ikusi behar  
Benidorm aldeko plaiak,  
bainan mendiak ere baditu  
toki polit ta alaiak.  
Ardiak antzu gelditutzean  
gure mendiko anaiak,  
hartzen dituzte urte guztiko  
oparraldi edo jaiak.

Artzaien bidez ornitzen dira  
jatetxe asko ta mahaiak,  
izanez ere onak bait dira  
ematen dituzten gaiak.  
Ijiro eta arkume goxo  
gaztanbera ta gaztaiak,  
gehiago maite behar gintuzke  
ardiak eta artzaiak.

Joxe Migel Iztueta, «Lazkao-Txiki»ren bertsoak, neronek grabatuak Segura Irratitik, «Discos dedicados» saioan emanda.

## SARRERA

Betidanik sortu didate ikusmira, apiril eta abenduan begi aurretik igarotzen diren artaldeek. Gainera odol-odolekoa ez badut ere, amaren osaba-izebak artzain familiakoak dira, eta nahigabeen ere artzatzaz hitzegitea eragiten du horrek non-bait.

I. «Gerriko» idazlan-sariketa antolatu zenean, interesgarritzat jo nuen baina eduki zientifikoa eskatzen zenez, hasiera batean baztertu egin nuen.

Lehiaketa ugaritan hartu dut parte, baina guzti hauek literatur mailakoak ziren, horregatik beldur nintzen egiteko erabakia hartzerakoan. Arraina harrapatzeko eskuak uretan sartu behar omen dira eta harrapatzen ez bada berriro ere saiatu, beraz lanari heltzea erabaki nuen.

Hartu egin nuen bai, baina egingo nuela eta atzeratzen joan zen. Gero larri, epearen bezperan oraindik lana burutzen. Lan asko pilatu zitzaidan, baina gehienbat gerorako utzi nuelako.

Lan hau positiboa izan dela iruditzen zait. Artzantzaren mundua pixka bat neureganatzeko eta liburu batek atzean duen lan garrantza edo gogorra ikusteko ere bai.



**2 argazkia.** Osaba Nikolas, Lagun eta hirurok ernai dauden ardiekin 1990eko Azaroaren bigarren hamarkadan. 4 t'ardiak aldera ateratako argazkia Pello Galparsoro, nire aitak, Eginoko belartzari batean.



**3 argazkia.** Rikardo txikia, Lagun eta hirurok ardiak bildu ondoren. Aurreko argazkia bezala nire aitak ateratakoa egun, ordu eta leku berean.

## METODOLOGIA

Lan hau burutzeko ibai asko bideratu ditut itsasoan guztiek bat egiteko. Bilketa lanean hasi nintzenean, ez nuen inongo erizpiderik finkatu. Liburu dorre garaiak mahaiaren gainean, zenbait egunkari, irratitik grabaturiko dozena bat bertso, artzain bati egindako elkarrizketa, telebistatik grabaturiko beste pare bat dokumental, hauek ere zintan noski, bideorik ez bait dugu etxeán, eta Arabako osaba-izebekin jardunaz eskuraturiko famililtartzea. Guztiak bat egin eta lauskitu ondoren, lantxoá osatu nuen.

### 1. DEFINIZIOA

Artzantza ez da soilik hiztegiek zertzen dutena; abelburuek larreetan zaindu eta gidatzeko jarduna, baizik eta mugarri bat da gizonak eman duen aurrerapauso handitsu horretan. Aktibitate harrapakari bat izatetik —ehiza, arrantza, fruituen bilketa— ariketa emankorrera igarotzea, abere eta landareen kontrol eta etxetartzearekin. Guzti honek dakarren garrantziagatik, aro honi «Iraultza Neolitikoa» deitzen zaio.

### 2. HISTORIA PIXKA BAT

Abere eta landareen etxetartzearen jatorria Ekialde Hurbilean lekutua dago, hilgora emankorra (creciente fértil) deritzaionean. Gizakia bilakatuz doa eta naturarekiko harreman berriak topatzen ditu.

Paleolitoko gizona naturaren kontura bizi zen, baina neolito aro honetan eta Ekialde Hurbilean, K. aurretik 7000. urtean ardia, ahuntza, txerria eta behia etxetartzen hasi zen. Honela, produkzio erregular bat mantenduz elikagaiak segurtatuko ditu. Aro honi ez zaio Neolitikoa deitzen arma gisa erabilitako harrien lantzeagatik soilik, badaude beste zenbait ikuspegi garrantzitsu ere. Aipaturiko abere eta landareen etxetartzea nahiz kontrola, laborantza, zeramikaren sorrera eta saskigintzaren garapena adibidez. Artalde baten kapitale produktiboa izugarritzko abantaila zen, horregatik talde baten jabeari «aberatsa» deitzen zitzaion.

Ikustekoa den bezala, guzti honek aurrerapauso bikain bat dakar garai hartako gizarte egituren aldaketa bultzatuz. Elikagaien kontrolean oreka nabarmenago bat izatean, gizarteak hazkunde garrantzitsu bat jasan zuen. Laborantzaren garapenaren ondorioz, gizona pixkanaka lasaitzen joan zen eta herrixkak sortzen hasi ziren, lurren jabe eginez. Honela tirabirak izango dira erdi-ibiltari eta geldikorren artean.

Bizitzeko modu berri hau, bi bidetatik zehar sartu zen Europan. Bata, Europa hegoaldetik; eta bestea, Afrika iparraldetik. Euskadira Kristo aurretik 2200. urte inguruan iritsi zen, zenbait kobetan aurkitutako aztarnen arabera.

Artzantza mendeetan zehar euskaldunen ohizko bizimoduetako bat izan da. Artaldeak ugarituz zihozen eta abeltzainek larre zabalak behar zituztelako basoak ere ukitu zituzten.

Larre-aldaketaren sistema erabiltzen hasi ziren. Gaur egun larre-aldaketa bide hauetaz oso gutxi ezagutzen da. Euskal hitzak agertzen direla oraingo mugetatik urrun baino ez.

Artalde mugimendu handiek zenbait araudi finkatzera behartu zituzten artzainak, elkarte batzu sortuz. Benetako unitate etniko eta administratiboak, sistema juridiko bat sortu zuen, orokorki elkargarria eta demokratikoa izanik. Antzinan ezagutzen ez zen propietate indibiduala etxera eta barrutira murriztuko zen.

Araneko bizilagunek zinegotzi batzuen eskuetan uzten zuten beren interesen zaintzea. Hauen eginkizuna legeak betearaztea izanik, eta hausten zuena zigortzea ere bai.

Goimendietako larreen erabilpena «Kaiolarre» erakunde zaharrak zuzentzen zuen.

Aranen aldeko mugak gäinditzen zituzten artaldeek ezbehar asko sortzen zituzten, batzutan gizonak hiltzerainoko borrokaldiak. Istilu horien ondorioz moldatzen ziren araudiak.

XV. mendean, aranak elkartu ere egingo dira, beraien bizilagun ahaltsuen guden aurrean neutralitatea kontserbatzeko.

Euskal laborariak libreak zirenez ez zuten sekula jaurgoaren beharrik eza-gutu.

Gaur egun, herrien arteko sindikatoek hartu dute araneko ondasunen kudeaketa.

Artzain zibilizazioak, giza eta herri eskubide zaharrak zaintzen jakin du\*.

### 3. IHARDUERA EKONOMIKOEEKIKO LOTURA

Abeltzaintza indar handiko iharduera bazen ere, pixkanaka-pixkanaka, laborantza lekua kentzen joan zitzaion. Batez ere bi traba topatu zituen bere bidean: basoak mantentzeko kontzejuak zuen interesa eta XVI. mendetik aurrera herritarrek lur berriak laboregintzan erabiltzeko zuen interesa.

XVI-XVII mendeetan haserre handiak eman ziren herritar eta abeltzainen artean, aziendek zuhaitzetan kalteak egiten bait zituzten. Egoera larrituz joan zen, batez ere XVII. mendean zehar. Nekazariak hesiak ez errespetatzea leporatzen zieten abeltzainei, eta haiek lurren gorritzeak zirela eta larre gutxi izateaz kexatzen ziren. Mendearan bukaeran eman ziren izurriteek egoera are larriagotu zuten. XVII-XVIII mendeetan beste faktore garrantzitsu bat presio demografikoa izan zen, labore eskaera handituz lur berrien gorriketa bultzatu zuelarik.

Abelazkuntza nahiz artzantzak mendietan zebiltzan piztien erasoei aurre egin zioten. Gainera kontzejuak neurriak hartu zituzten haiek kontra joateko, piztiak hil zituztelako frogak agertzen zituzten biztaleak sarituz.

\* Datuok *Euskaldunak: La etnia vasca*. Bildumako lehenengo aletik hartuak izan dira. Fermin de Leizaolak idatzirik «Cultura pastoril»etik hain zuzen ere. (Introducción, 66. orr.).

Industriaurrean lurra zen ondasun iturri nagusia, horregatik inguru berean mugitzen ziren iharduera ekonomiko guztiak.

Gizakiak lur sailez jabetzeko joera izan du, gainerantzeko lurrak komunitatearentzako gelditzen direlarik eta honek osatzen du herri ondasuna. Lur hauek amortizatuak eta beraz, merkatal trafikotik at daudelarik.

Hazkunde demografikoak ordea, jabego pribatuaren hedadura zabaltzea eragin zuen herri jabegoaren kaltetan, hau da, desamortizazio prosezua eman zen. Herri jabetzako lurrak partikularren jabetzara bihurtu ziren, bertan merkataritza sortuz.

Nekazal errendimenduak bajuak ziren eta beren iraupenerako iharduera ekonomiko berriak aurkitu behar izan zituzten. Honez gain burdin meak azalera erraza zelako, metalurgiaren gorapena lortu zen emaitzatzat. Megalito garaian ere zenbait aztarna bazen, baina kolonizazio erromatarra izan zen burdinolen inguruan finkatu zuena.

Merkataritza garatu egin zen autohornikuntzako ekonomia autarkikotik ihes eginez. Merkataritzarekin paraleloki garatu ziren baita ere garraio komunikabideak.

XIV. mendetik aurrera ekoizpen soberakinak zirela eta herrietako azoka txikietan trukutzen hasi ziren. Soberakinak handituz joan ziren eta beste merkatu batzu bilatzera bultzatu zituen. Penintsulan hasiera batean, kanpoan gero. Gipuzkoan nekazal ekoizpenik ez izatean, burdinoletan ekoiztutako burdinarekin egiten zen merkataritza.

Euskaldunak gudari soldatadun, olagizon edo merkataritzan garraiari gisa arituz egin dio aurre elikadurari.

Merkatal iharduera zela eta azpiegitura baten beharra agertu zen, bideak, zubiak, merkatuak eraikitzea. Aberatsenek industria, merkataritza eta komunikabideetan inbertitu zuten, hauen etengabeko garapena biltzatuz eta irabazi handiak lortuz.

Fabriketan langabezia sortu denean, langabetuek berriro ere bizimodu hura hartu dute. Iharduerak sortuz eta elkargurutzatuz iraun badute pertsonak, inguruak eta bizilekuak eragin duelako izan da. Elementu iraunkor iraunarazleak hor daudelako artzantza oinarrizkoa zen, da eta izango da, batzutan nagusi bestetan laguntzaile.


Makinismoaren mundua tradiziozko mundua irentsiz badoa ere, elementu iraunarazleek irauten badute, ez da inoiz tradiziozko mundua desagertuko.

Gaur egun, faktore sozial eta ekonomikoek estutzen dute artzantza. Maila guztietan egindako modernizazio batek (larrean defentsa eta hobekuntza, azien-daren kontrola, gazten kalitatea, pistagintza eta komunikazioak, txakolen hobekuntza, ganaduari buruzko informazioa etab.) ekar dezake hari lehengoan eustea.

#### 4. ARDIAK

Adinaren arabera abelburuak izen desberdinak hartzen ditu; sailkaketa honen barnean desberdintasun nabariak daude. Jaio eta urte bat bete arte «arkume» edo





4 argazkia. Ernai ez dauden beste ardi guztiak aurrekoetatik 100 bat metrotara dagoen belartzari batean. Neronek ateratako argazkia aurreko bi argazkien arratsalde berebean.

«axuria». «Bildotsa» urte batetik bira bitartean. Bi urtetik hirura hasten da ama izaten eta «arkatze» izena hartzen du orduan. Hiru urtetik laura «beñardia» deitzen dute batzuk eta lau urtetatik zortzira bitartean «ardia». Zortzi urte bete eta hortik aurrera abelburua «ardi zaharra» bezala ezagutzen da. Baina, artaldean, ardi ar bat edo beste ere izan ohi da, «aharia». Arkume edo axuri, bildots, arkazte, beñardi, ardi, ardi zahar eta aharia dira artaldea osatzen dutenak.

Ardiak urtean umaldi bat izaten du. Urtarrila-otsailean hasten dira arkumeak jaiotzen eta abuztu-irailean jartzen dira ernai. Beraz, arkumeak, jaio dadin, bost hilabete egin behar izaten ditu amaren sabelean. Jaiotzen diren arkumeekin, artzainak lehendabizikoz arrak eta emeak bereizten ditu. Urteko 40-50 gordetzen dira artaldea ugaltzeko, baita ahari bat edo beste ere. Gaineratikoak saldu egiten ditu. Saltzen diren arkumeek hamar edo hamaika kilo pisatzen dituzte, hilabete behar izaten dute pisu hori lortzeko, eta hilabete honetan amak hazten ditu bere esnea emanez. Arkumeak kentzen direnean hasten da artzaina ardiak jezten, Santiagotaraino jarraitzen duelarik. Esne honekin egiten da gazta, gaztanbera, zerberana etab.

Ardi bat berea ez den artalde batetara oharkabean joaten bada, beeka hasten da, ezezagunen artean gertatzen bait da, eta ardiek bistaz ez baina usainez diote artalde hartakoa ez dela. «Ardigaldua» ez da bakarrik artaldetik aldendu eta atzean gelditu dena, ez eta sasi artean trabaturik gertatu dena. Behar ez den lekuan muturra sartzen duen ardia ere, ardi galdua da.





5, 6 y 7 argazkiak. Ardi baten erditzea. Itziarrek, osaba Nikolasen alabak ateratako argazkia 1991ko Otsailaren 11tik 17rarteko astean Eginon bertan.

8 argazkia. Erditze bikoitza den kasuetan, amaren esnea ez da nahikoa bi arkumeentzat eta esne artifizialez elikatzen dituzte. Itziarrek aterako argazkia da, Otsaileko lehen hamabostaldian Eginon.



Ardiak ez dira abere bakartiak, elkarren inguruan ibili ohi dira beti eta bizi- maite dute elkarren babesa. Berezkoa dute horretarako sena. Goizean goiz, eguna argitu orduko, larre edo zelaietan zehar barreiatzen dira. Taldeko aberea da ardia, edo gutxienik multzoan ibili behar izaten du. Beharbada, egunez bazka bila edo eguzkiaren beroari ihes egitearren zertxobait sakabanatuko dira, baina eguzkia desagertzeak berriro elkartuko ditu. Gainera egunez, baso edo ibai aldera jaisten badira ere, ilunabarrerako mendi gailurrera joko dute guztiek batera.

Ardien belarrietako markak zirela eta, zergatia galdetu nion behin osaba Nikolasi eta galdu diren ardiak zein artaldetakoak diren jakiteko, artzainak buru bakoitzari bi ezaugarri ezartzera ohiturik daudela erantzun zidan: marka eta seinalea. Marka bi motatakoa izan daiteke, bata belarri bakoitzari anilina edo kolore ezberdinetako margoz emaniko isipikadan datza. Hau ilemozketaren ondoren egiten du artzain bakoitzak, arkumeei jaio bezain laister eta oraindik jezten ez diren ardiei ere egiten zaie. Bestea berriz, gorputzaren leku ezberdinetan abize-

naren lehen hizkia edo artaldearen jabe den familiarena ezartzea da. Marka hau uztailaren haseran egiten da, ilemozketaren ostean. Horretarako markatzeko burdina bike eta galipot berotan sartzen da ondoren ilehats motzean aplikatzeko.

Seinalea ardien belarrietan egiten den ebakian edo ebakietan datza, arkumeak jaio eta egun gutxi barru burutzen da guraize edo burdina goriz. Ebaki hauekin taxuketa desberdin ugari egin daitezke eskuin eta ezker belarrien artean nahiz aurrekalde eta atzekaldearen arabera. Modu honetan, artzain bakoitzak tradizio-nalki bereizten duen seinalea erabiliko du:

AKATSA: Ezker belarrian eta atzekaldean eginiko koskatxo.

PITZATUA: Eskuin belarrian eginiko ebakia.

LEHIATILA: Eskuin belarrian eta aurrekaldean.

LAIATSA: Laiaren irudira egiten zaion ebakia.

ZULOA: Zulo bat.

ZURKILOA edo URKILOA: Esker belariaren puntan.

Osaba Nikalasen ardiek akatsa ezineko seinalea dute\*.

Gaur egun asko hitzegiten da bruzelosiari buruz, aldizkari ugaritan aurkitzen da gaisotasun honen berri.

Bruzelosia dela eta egin diren ardi eta ahuntzen osasunbide kanpainak, gaur egun dagoen zentsu guztiaren txeko serologiko bat egitea lortu dute.

Ekintza positibo hau beste hobekuntza batzukin batera agertzen da: animaliak identifikatzeko sistemaren hobekuntza, txertapen sistemen egokitze eta erregulazioa, edo kutsatuak atera diren animalien hilketen kontrola, diagnostikatzeko teknika berriak martxan jartzea eta kanpaina egin ondoren sartzen diren animalien kontrola.

Ardi eta ahuntzen saneamendu kanpainak gure herrian 1982. urtean hasi ziren. 1986. urtean kanpainak derrigorrezkoak bihurtu ziren, beraz, Goierrin zeuden animali eta artalde guztietan izan zuten bere eragina.

Datuak oso berriak ez badira ere, balio dute kanpainaren eragina isladatzeko.

### ARDI-SANEAMENDU KANPAINA EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ELKARTEAN (1986/87)

	BRUCELA MELJENSIA		BRUCELA OVISA	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%
IKERTUTAKO ARTALDEAK	3.068	100	2.476	100
ARTALDE KUTSATU GABEAK	2.691	87,72	1.866	75,37
ARTALDE KUTSATUAK	377	12,28	610	24,63
IKERTUTAKO BURUAK	245.341	100	8.107	100
BURU SANOAK	242.498	98,85	7.114	87,76
BURU KUTSATUAK	2.843	1,15	993	12,24

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantzu-Saila.

*Oharra:* *Sustrai*, 12. zenbakia. 1988ko 2. hiruilabetea, 67. orrialdea. Juan Ramon Puy Pitarkeren testutik.

\* Irudi hauek *Euskaldunak: La etnia vasca*. Bildumako lehenengo aletik hartu ditut. «Marcas y señales de propiedad» 86. orrialdea.



Bruzelosia, jardunbidez ugaztun guztiei eragiten dien gaisotasun izurriduna da. Bereziki sukar, aborto, epididimitia eta artikulazio minengatik ezaguerazten da. Beharrezkoa da bere papera zoonosi gisa azaltzea, hau da, abereetatik gizakiarengana transmititua izan daitekeen gaisotasun bat da, «malta sukarra» izenez ezagunagoa agian.

Espainiako estatuan dago munduko bruzelosia gehien bainá mundu guztian ere zabaldua dago, nahiz eta erorpuntu salatuagoa mediterraniar herrietan izan. Gaur egun maila sozio-ekonomiko eta kultural garaiena duten herrietan desustraitua dago osasunbiderako kanpainei esker.

Bruzelosiak garrantzia ekonomiko handia du ganaduarengan, abortoak, esnearen produktzioa gutxitzea, metritia, emankortasun urria eta zenbait kasutan antzutasuna gertarazten bait du. Honekin batera, kontutan hartzekoa da gaisotasun honek gizonari ekar diezazkiokkeen galerak, izugarrizko gastuak sortzen bait dituzte ospitalizazio eta sendabideek, lan bajaldi eta ezgaitasun iragankor nahiz iraunkorraz gain.

Bruzelosiaren eragilea «brucella» motako bakteria da. Oso erraz desegiten da bero, antibiotiko (tetraciclina) eta deskutsakinekin (formalina).

Melitensi brusellak ardi eta ahuntzetan abortoak eragiten ditu eta gizonari malta sukarra ekartzen dio; ovis brucelak, berriz, aharietan antzutasuna eta epididimitia kutsakorra bultzatzen du eta abortoak ardietan. Ovis Bruzelosiaren kasurik ez da azaldu gizonarengan.

Melitensis brucellak nagusiki ganadu emea erasaten du, abortoak eraginez umaldiaren azken herenean. Abelburu gaisoak bide ezberdinetatik transmiti daikioke osasuntsu aurkitzen den beste bati. Ernamuina esnearekin, gernuarekin, hondakinekin eta batez ere erditzean umegaia ateratzean askatzen da; hau da une arriskutsuena kutsatzekotan, bai beste abelburu eta bai gizonarentzat ere.

Erakusketak laborategira ahalik eta egoera higienikoenean bidaltzen dira, al baitariaren txosten oso batean.

Badaude txerto batzuk abelburu osasuntsuak gaisotasunetik babesten dituztenak. Gehien erabilia, ezagunena eta babes handiena eskaintzen dien txertoa Rev-1 da. Hirugarren hilabetetik seigarren hilabetera bitartean aplikazen da, inmunitate handia ematen du eta ez ditu mozten diagnostiko serologikoko frogak. Abelburu osasuntsuetan bakarrik aplika daiteke txerto hau.

Ovis brucellak ardien espezieko animaliei bakarrik eragiten die. Arrek epididimitis kutsakorra izaten dute eta emeak abortoak.

Gaisotasun hau aharietako ahobidez edo beraien arteko erlazio homosexualen bidez har dezakete. Kutsaduraren iturri liriateke saltoa, abelburu gaisoek gernuarekin kutsaturiko elikagaiak edo kopulako momentua, ahari batek orain dela gutxi beste ahari kutsatu batez ernaldua izan den ardi batekin.

Melitensis brucellaren kasuan bezala, laborategietan ematen dira azterketa fidagarrienak eta oso luzea eta garestia da sendabidea.

Kontrolerako neurri guztiak eta bruzelosiari aurre egiteko borroka osasunbiderako kanpainetan zehazten dira. Kanpaina hauen helburua gaisotasun hauek desustraitzea da.

Osasunbide kanpainen ondorioz animalia hauek identifikatuak eta aztertuak izan behar dute. Horretarako odol-kantitate txiki batzuk ateratzen dira bere azterketarako.

Kutsatuak agertzen diren buruak hilak izaten dira bi hilabeteren buruan eta laguntzak jasotzen dira buruaren adina eta emankortasunaren arabera.

Nahiz eta gaisotasun arduragarria izan, osaba ez du horrek larritzen mementu honetan, «galaxiak» baizik. Ez omen dago ezer gaisotasun hori sendatzeko eta erabat arduratua dabil.

Beste gaisotasun nabarmen eta ugariak «kojera» edo «pedero» (osabak daitzen duen bezala), «mamitis» eta «roña» dira. Ikusi izan dut «pedero» gaisotasunarentzako ikuiluaren sarreran likido urdin bat jartzen, ura eta kobre sulfatoaren nahasketa hain zuzen ere. «Roña» berriz, «Zogama»rekin gaintitzen du osabak.

Osasun kontrolak bi aldiz pasatzen dituzte ardiek, udaberrian eta udazkenean.

Ganaduaren artean «latxa» arraza aipatu behar da. Indar gutxiko larrerik eskasena, jaki gozo aberatsenetan bihurtzen ditu. Eguraldiaren zailtasunetan, ez dute eragozpen gehiegirik izaten eta lurraren zailtasunetan ere ez. Oso ondo egokituta dago klima honetara. Gainera oso emankorra da.

Arraza honen barnean beste mota batzuk era badaude, aurpegi zuriko buruak «ardi mutturtxuriak» eta aurpegi beltzekoak, berriz, ardi «mutterbeltzak». Oso antzekoak dira tipoz eta izakeraz, larruaren kolorea eta mutur eta anketako ilea izan ezik.



9 argazkia. Nahiz eta etxean teknika aurreratua izan ardiak jezteko, osaba era tradizionalen ari da oraingoan. Itziarrek atera zuen argazki hau baita ere, etxean, Eginon hain zuzen ere 1991ko Otsailaren lehen hamabostaldian.

Gorputzez ez handi, ez txiki, luzeska, perfil lerdenekoa, ile ugari eta bi aldetara eroria bizkarrean, esnetarako oso egokia.

Ardiek mutur-hezurra zuzena edo zertxobait kakotua dute, ahariak aldiz askoz kakotuagoa. Belarriak ez dira ez luze eta ez motzak, baina bai mugikorrak.

Hankak zuzenak eta meheak.

Errapea ondo osatua, borobila, ilerik gabeko larru mehea eta bi diti berdinak, luze antzekoak.

Larrua mehea eta zimurrik gabea; ile luzenik ez duen tokietan ile motzez estalia. Ilehats zikinak kilo t'erditik bi kilora pisatzen du.

Mutturbeltzetan ardiak 45-50 kg. pisatzen du eta ahariak 55-75 kg. Muttur-txurietan ardiak 35-50 kg. eta ahariak 50-70 kg.

Abere honen onura edo profilea esnearena da. Bere produkzioa, ganadu hautatuaren artean, 1,25 litro da egunean eta ardi bakoitzeko. Haragia kalitate baxukoa da, merkatuan onartuena eta salmenta handienak esnezko arkumeak lortzen dituelarik. Artilearen salmentak, oso merke kotizatzegatik, ez du sarrera garrantzitsurik ematen.

## 5. ARTZAINA


Artzaina mendizale ona da. Osasun bikaineko gizona dela ez dago ukatzerik. Gizon zuhur, zentzudun eta isila da bere afera eta arazoei dagokienez. Artzainari ez zaio galdetu behar zenbat ardi dituen, gazta asko egiten al duen edo egunean zenbat litro-esne kentzen dien ardiei. Hala ere, lagunarterako guztiz jende jator eta atsegina da artzain-jendea.

Artzainaren bizimodua oso gogorra da. Neketsua ez baina, zaila, bakartia, lotura handikoa eta eginkizunari atxikia jai eta aste, goizetik gauera.

Ardiek ematen dute, bai, lanik; baina familiarik aparte, herribizitzatik at eta mendian bakarrik bizitzea da zailena. Hutsik dauden baserrietan eta mendian bakarrik bizitzeaz aparte, noizbehinka belardi batetik bestera joan behar izaten dute beren artaldearekin, pistak eta errepideak ezagutzeak dituen arrisku guztiekin. Garrantzi handiagoko eta gutxiagoko errepide eta herrietatik hurbil egote honek artzainarentzat zera suposatzen du: alegia, oso ondotik zaindu behar dituela ardiak, istripurik gerta ez dakien eta, baita ere, arkumeak lapur ez diezazkioten. Batzutan gainera, ardientzako larreak ere ordaindu egin behar izaten ditu.

Ardiak umatzeko sasoiaren etortzen denean edo arkume txikiak jaiotzen hasten direnean, zenbat kezka eta herstura larri ez du izaten egunez nahiz gauez. «Es cuando viene el trabajo fuerte» esaten du osabak. Jezteko garaia ere, normalean otsailtik ekainera (San Joanak arte, ekainaren 24ean) egiten dena, latz saiatu beharrekoa da, batetik egunero egin beharreko zerbait delako (goizean jezten da artaldea larrera bidali aurretik eta gero gauean bildu ondoren) eta, bestetik, jetzi ondoren gazta egin behar delako. Ezin da ahaztu ardien ile-moztea ere. Hau normalean ekainaren azken aldera egiten da.





10 argazkia. Gau eta egun lanean osaba, izan ere otsaila iristean etortzen bait da lan gogorra, arkumeak jaiotzean. Itziarrek harturiko argazkia da, beste zenbait bezala etxeko ikuiluan.

Bakarrik bizi denez, gaisorik erortzeko ere beldur da. Txikitatik artzain joaten direnek ez dute eskola handirik, eta makurrago dena, ezkontz bidea ere ebakia dute maiz: mutil zahar edo ezkongea izaten dira gehienak. Ez da hau osaba Nikolasen kasua. Arabatik Gipuzkoara etortzen zen han jakirik ez zegoelako bere artaldearentzat. Hemen, Gabirian hain zuzen ere, neska bat ezagutu zuen, Euxebi Agirrebengoa. Ezkontzeko kamioi gidaritzan hasi zen, emaztegiak ez bait zuen hark artzantzan jarraitzerik nahi. Bi urte baino gehiago ez zuen jasan ardiengandik urrun. Ezkondu ondoren artzantzara itzuli zen.

Badu artzainak mendiko bakardadean benetako lagun jator bat: txakurra. Lan ugari egiten du txakurrak. Ardiak artegira bildu, batetik bestera leku-aldatzen lagundu...

Artzaina eta txakurra beti elkarrekin daude. Nagusiaren agindua ongi betetzen ikasia da txakurra. Aski izaten du artzainaren keinu edo hitz-erditxo bat, txakurrak ondo dakien eginbehar hori burutzeko.

Aralarko mendizerrako larre-lekuak oso ondo mugatuak daude eta hango sarrera puntuak oso zehatzak dira. Enirioko soiletara Ataungo bideetatik, Zaldibiatik eta Lazkaotik igotzen da.

Ez da pentsatu behar sarbiderako ibilbide horiek artzantzakoak bakarrik zirenik. Zaldibia eta Amezketako ibilbideak Gipuzkoa eta Nafarroa elkartzen zireneko aintzinako galtzaden trazadurari dagozkionak ziren eta, beraz, merkataritza-erako ere erabiltzen zirenak genituen. Gipuzkoa Nafarroarena izan zen 1200 urterarte eta elkarrengandik banandu ondoren ere indar handiz mantendu ziren itsasoaren eta mendiaren arteko harremanak.

Gipuzkoan badira oraindik eta batez ere Goierrin, herri batzu, artzain-kutsu nabaria dutenak. Lehenik, mendikateen inguruko herriak aipatu beharko dira. Ez da ahaztu behar artzaina mendizerretara Santa Kruz aldera (Maiatzaren 3an) igotzen dela eta ez dela haranera jaisten Santu Guztiak arte (Azaroaren Iean). Sei hilabete egiten ditu udako larreetan eta beste sei hilabete negukoetan.

Horregatik, normala da udaberria, uda eta udazkenaren zati bat egiten dituen mendi-lekutik ahalik eta hurbilen bizitzea. Beste artzain batzuk ez dute hainbeste zorte eta negua egitera kostaldera joan behar izaten dute. Bigarren kasu honetan bizitza gogorra eramaten dute, etxeetatik urruti.

Neguko hilabeteetan maiz ikusten dira artalde handiak mendizerren oinean dauden herri inguruetan. Honela, Oñati, Zegama, Segura, Mutiloa eta Aztirian, irudi klasikoa izaten da artzaina bere artaldea zaintzen ikustea. Gauza bera gertatzen da Baliarrain, Lazkao, Ataun, Gaintza, Abaltzisketa, Zaldibia, Amezketak, Olaberria, Idiazabal eta Altzo herrietako lurretan ere.

## 7. BIZILEKUA

Orain gutxirarte, gure medizerretako txabolek estalkia abarrez eta zotalez egina zuten. Horrelakoa izan behar zuela esaten zen, teila jartzea jabetzaren sinboloa bait zen. Horregatik, ez zuten teilarik jartzen uzten sabaitzetan. Egoera hau pixkanaka-pixkanaka gaindituz joan zen eta honela, duela berrogei edo berrogeitamar urte, gaur ezagutzen dugun lerroa hartzen hasi ziren artzain-eraikuntzak.

Gaur egun, txabola kararrizko harlangaitz-hormak dauzkana da. Horren Bilbadura zurezkoa da eta teila erabiltzen da. Aterpe hau, bere barruan, oinarritzko hiru zatitan banatua dago. Lehen zatia sukaldea da. Hemen daude beheko sua, sukalde ekonomikoa, harraska, mahaja eta eserlekuak. Bigarren zatia gela da, kamaina. Hemen daude ohea eserlekuren bat, kutxazaharren bat eta armairu txiki bat. Hirugarren zatia, gaztak gordetzen direneko gela da, gaztategia elegia. Jakina, hau izan daiteke txabola-mota baten erudia, baina ez dira guztiak berdinak.

Txabolaren ondoan eraikin bat izaten da, txerretegia. Etxebizitzaren ondoan izaten dira neurri handiagoko beste eraikin batzu ere. Hauetan ganadua biltzen da, baina borda hauek ez dira saroi guztietan aurkitzen. Txabolatik urrutira gabe, harrizko itxitura bat dago «eskorta» deitzen dena. Hau zurez nahiz keretaz egindakoa izan daiteke. Itxitura hau ganadua jezteko, ardiak biltzeko eta gaisorik dauzkatenean azienda hauen hankak sendatzeko erabiltzen da.



12 argazkia. Orain urte batzuk Itziarrek aterazion argazkia bere aitaren txabolari, Entziako mendizerra.

Arralaren originaltasun handiko artzain-eraikin batzu daude, arkuak. Atea txiki-txikia dute eta sabaitza harrizko gangaduna. Aziendak otsoetatik zaintzeko eginak izan zirela esaten da.

Orain dela oso urte gutxirarte, gaur egun gezurra dirudien arren, otso ugari zebilen gure mendizurretan, azienden artean sekulako txikizioak eginez. Irakurri dudanez, azienta otsoetatik zaindu eta defendatzeko, artzainek gauzez sute handiak piztuta edukitzen omen zituzten txabolen inguruan.

Arkuak eraikin ikusgarriak dira eta horien forma karkailak eta itxura arkai-koairekoak direla eta, herri-tradizioak historiaurrekoak eta, areago, jentilen (euskal mitologiako erraldioen) garaikoak diren etxebizitzekin erlazionatzen ditu.

Txabola ez da beti artzain bakoitzarena izaten, larreen jabe den elkartearena baizik. Kasu honetan, artzainak bere izenean kontserbatuko badu, urterik hutsegina gabe beharko du, gutxienez, ardi bat edo besterekin agertu.



13 argazkia. Itziarrek 1990eko Azaroan Entziako mendizerrara igo zen batean bere aitaren txabolari egin zion argazkia.



## 8. TRESNERIA

Artzainak bere aktibitateak burutzeko erabiltzen dituen tresnen artean, bi mota bereiziko ditut. Bata artzainak berak egiten dituen tresnen multzoa eta bestea, artisauek moldatzen dituzten tresnen multzoa.

Tresna bakoitzari definizio zehatza emango diot. Artzainak egiten dituen artean:

**MAKILA:** Artzainak beti berarekin eramaten duen hurritzez eginiko makila zuzena.

**UDETA MAKILA:** Bi ertzetan koskak dituen makila, artzainek sorbaldaren gainean ur edo esne tupinak eramateko.

**UZTAIA:** Ganaduari lepotik zintzarria jartzeko lepokoa. Lizar, haritz, pinu edo gaztainaren egurrarekin egiten dira. Sarritan apaindurik agertzen dira, labanaren bidez.

Txabola barnean, artzainak eginiko banku, aulki eta mahaiekin topa gaitezke.

Tamaina ezberdinetakoak izan daitezken, pago enborrak harrotuz egindako, askak ere fabrikatzen dituzte. Bertan, txerrientzat gazura jartzen da.

**MIHIA:** Zintzarrien mihia materiale ezberdinez egiten da, adarrez, boj edo pinu egurrez...

**SATOLA:** Hortzikarientzat zepoa ere artzainak egiten du.

**EPAKIA:** Zurezko ganibeta edo labanaren gisako tresna bat da. Matoina ebakitzeko erabiltzen dute artzainek.

**KAKOA:** Txabola gehienetan agertzen da iltzaturik, pago adarrez egiten den zintzilikarioa dugu.

**ABATSA** edo **APATZA:** Egurrezko ontzia da, diametralki bi aldetan bi eskuleku dituena.

**OPORRA:** Eskuleku bakarreko egurrezko katilutzar bat da. Taloak esnearekin hartzeko erabiltzen zuten artzainek. Litro erdi bateko kapazitatea zuen.

**ASKA:** Pago egurrez eginiko ontzi handi bat da, angelu zuzen eta sakonera txikikoa, alde batean eskuleku bakarra duelarik.

**TXURRA:** Zirrikitu eta zulotxo hornitutako ohol luze bat da. Abatzaren gainean kokaturik, molderi edo zumitzari euskarri gisa laguntzen dio.

**MALATSA** edo «**NASTEKUA**»: Esnea nahasteko, edo hobeto esateko, esnea jotzeko erabiltzen duten tresnari, zurezkoa hau ere, malatsa deitzen diote.

**IRAGAZKIA** edo **IRISTONTZIA:** Inbutua da. Jetzi berria den esnea iragazteko balio du. Gaur egun franelazko ehuna erabiltzen da.

**ZUMITZA:** Pago, gaztaina edo lizarrez egindako zurezko ontzi bat da. Gazta egiterakoan, matoina behar bezala maneiatzeko balio izaten du tresna honek.

**SUILA** eta **KAIKUA:** Ardiak jezteko eta esnea edukitzeko erabiltzen diren zurezko ontziak dira.

Desagertzeaz dagoen langintza bat joaregileena da. Txapazko joareak egiten dituzte, mailuaren bidez forma emanik. Eskulekua kokatu ondoren, sutegian kobre edo latoizko bainua ematen zaio. Hau burutzeko, joarea aurretik latoi edo kobrezko zatiak erantsi zaion buztin edo lastozko estalki batetan biltzen da. Guzti hau sutegian sartzen da, honela joarearen paretak bainatzen direlarik. Hurrengo

pausoa oso garrantzitsua da, erosleak eskatu duen doinu zehatza ematea bait da. Hau, ingudearen gainean joarearen ahoari mailuaz kolpeak emanaz lortzen da. Joare mota ugari dugu eta bakoitzak izen desberdina darama. Aho angeluzuzendunak «kalaskoak» deitzen dira. Aho borobildunak, berriz, «zintzarriak».

Joarearen mihia adarkizkoa izaten da eta uhalezko lokarri fin batez lotzen da.

## 9. ERATORRIAK

Artilea ardiaren ilea da. Udar, eguzkia berotzen hasten denean, artzainak artaldearen ile-mozketari helduko dio. Garai batean guraize handi batzuek baliaturik moztzen zitzairen ilea ardiei, gaur egungoak elektrikoak badira ere.

Egun gutxitako lana da, baina gogorra, zaila bait da ardia geldirik edukitzea. Egia esan, laguntzaileak izaten ditu: familiako norbait eta inguruko artzainen bat edo beste. Lana hiruren artean banatzeko modukoa da. Batek, tripazpiko ilea moztuko die ardiei banaka-banaka. Hori egiten ari den bitartean, besteak, hankak lotuko dizkie, lau hankak, gurutzatuaz. Hirugarrenak, hartuko du zango artean ardia, edo lurrean, eta ile zarparik handiena kenduko dio.

Esneaz eta haragiaz (ardikiaz, arkumekiaz, zikirokiaz...) aparte, ilea da ardiak artzainari eskaintzen dion emaitza baliotsua.

Ilea, artileak, jantzigintzarako elementu eta gai on bat bezala zerbitzatzen du. Antzinan, atzerrira garraiatua izaten zen tapizgintzarako.



14 argazkia. Artilea garbitu ondoren osaba Nikolas ehuntzen ari da etxeo sutondoaren inguruan. 1991ko Otsailaren lehen hamabostaldiko iluntze batetan bere alaba Itziarren eskutik ateratako argazkia.

Artilea, garai batean oso produktu baliotsua izan zen, berarekin egiten bait ziren estalki eta marraga gahienak, berarekin bete koltxoiak.

Gaur egun, zuntz sintetikoen emendioa dela eta, produktu hau bigarren maila batetara zokoratu da.

Osaba Nikolasek izugarrizko artea du artilea ehuntzen.

Artileak, erosleak falta izatean, merke saltzen amaitu du. Erosleek eskaintzen dituzten prezioak hain dira txikiak, zenbaitetan, ilemozketa langileen laguntzarekin eginez gero, hauei soldatak ordaintzeko bakarrik iristen bait da artileak emandako dirua.

Lortutako larruak makilekin eginiko bastidoreen gainean jartzen dira lehortu daitezten. Jada behin ondo lehortuak daudenean, larruginari saltzen zaizkio larruondu ditzan.

Oraindik gure mendietan artzain batzuk ardi-gazta artesautza eran egiten



15 argazkia. Iluntze be-rean eta protagonista ber-dinekin, oraingoan osaba haria egiten. Galtzerdiak egiten dituena izeba Euxebi bada ere.



dute. Bereziki estimatuak dira Aizkorri mendizerrako eta Aralar mendizerrako gaztak. «Idiazabalgo gazta» izendapena mundu guztian ezaguna da.

Gazta otsailetik ekaina bitartean egiten da, oso gutxitan uztaile arte. Gaztagintza fase ezberdinetatik pasatzen da, eta horietako batzu batera ematen dira.

Lehenik ardiak jezten dira eskortan, behin goizez eta beste behin iluntzean. Lehen esnea «kaiku» deituriko egurrezko ontzietan jasotzen bazen ere, egun txapazkoetan jasotzen da. Lortutako esnea iragazi egiten da lohikeria solidoak kentzeko. Iragazte hau ehunezko iragazki batetatik egiten da eta esnea «abatsa» izeneko ontzi handian biltzen da. Epel dagoen bitartean, jetzi berritan, gesaldua izan den gatzagia botatzen zaio. Esnea atsedendian uzten da ordubetez edo estalirik ongi gatzatu edo mamitu dadin. Horregatik, batzuk «gatzatua» deitzen diote esne gogortuari eta beste batzuk «mamia».

Esnea gatzatzen denean, esnari malatxarekin eragiten zaio bost bat minutuz matoina ontziaren zolara jaitsi eta gazura gainaldean gelditu arte. Esnea hotzegia egongo balitz, ontzia ur beroa dagoen beste ontzi handiago batean sartzen da. Ondoren epakia erabiliz, egin nahi diren gazta kopuruaren arabera zatitzen da.

Zatitu ondoren zumitzetan ipintzen da, eta molde hau txurkaren gainean. Orain zumitzak txapa edo plastikozkoak izaten dira. Molde hauek zulotxo batzuk dituzte eskuaz presioa eginez oraindik gelditzen zaion gazura galtzeko. Moldeetatik atera eta gazta gatzurretan egoniko trapu zurietan bildu ondoren, moldeetara sartzen da.

Prestakuntz prozesua bukatu ondoren, moldeak prentsara eramaten dira, eta hor egoten dira hamabi orduz. Pisu gisa harri handiak jartzen dira prentsa hauetan. Hamabi orduak pasatzeaz, moldeak prentsatik kendu eta gaztak moldeetatik ateratzen dira, hauei inguru guztian daukaten zapia kendu eta ur gazituan hogeitalau orduz sartuz.

Bukatzeko, gazta lehortzen jartzen da oholetan. Egur hauek txabolako leku itxi batean jarrita egoten dira, ilunean eta ondo aireatuta. Artzainak egunero ematen die buelta gaztei eta hantxe egoten dira lehortzen hilabetetan.

Nikolasen alabak, Arantxak, etxean egiten ditu gaztak. «Artzai Gazta» kooperatibaren barnean dago. Etxean teknika aurreratuenak dituzte bai ardiak jezteko eta bai gaztak egiteko ere. Orain arte artzainek sistema bakarra erabili dute ardiak jezteko; pilatu, harrapatu eta jetzi. Gaur egun teknika berriak asmatu dira ardiak errezago jezteko eta esnearen kalitatea hobetzeko.

Gazta lehiaketa batetan ardiak banan-banan atzetik sartu eta aurretik ateratzen direla, bere eserlekutik mugitu izan beharrik gabe jezteko moduko kaxoi bat lortu zuten.

Honez gain sistema osoenaren jabe dira: jezteko makinaren bidez, ardiak jaten ari diren bitartean fosatik jezteko moduan prestaturik daude.

Esnea, 8°Ctan dago. Kubarra botatzen du Arantxak eta «baño Marian» 32°Ctara berotzen du. Gatzagaia botatzen dio, naturala edo likidoa, eta 20-30 minututan gatzatua egoten da. Liraren bidez moztu egiten du arto alearen tamainan utzirarte. 36°Crate berriz ere berotzen du, bitartean irabiatzen duelarik. Matoina jasotzen du gazura baztertuz.



16 argazkia. Gaztak gaztandegian, behar den hotzbero eta iluntasunean. Orain urte batzuk Itziarrek atera zuen argazkia.

Ordulaurden batez presionatu egiten du eta moldeetan sartu zapi batez bildurik. Lau orduz egoten da prentsan eta berak dioen bezala, «se pasa a la salmuera y están un día. Después se meten en la cámara para su oreo y posterior maduración».

Egunero ematen die buelta gaztei eta azalari kontu hartzen dio, horretarako zepilodun makina bat duelarik.

Gazta, etxean partikularrentzat, jatetxeetan eta «Artzai Gazta» kooperati-baren bidez saltzen du.

Aizkorri eta Aralar medizerretako gazta oso estimatua da merkatuan. Sarritan ikusten den gauza da artzainak gazta saltzen Ordiziako merkatuan. Baina merkatariek, gehienetan, txaboletan bertan erosten dituzte gaztak. Nolanahi ere, gure egunotan, artzainen txaboletara joateko pistak eginda daudenez gero, geroz eta gehiago dira Goierriko herri eta hirietatik txaboletaraino joaten direnak gazta zuzenean erostera.

1987ko apirilaren 15ean «Idiazabalgo gazta» Jatorri-Izenaren Kontseilu Arauemalea eratu zen, Antxon Perez de Calleja buru zelarik. Modu honetan, aurrerapauso garrantzitsu bat eman zen jatorri izenaren harreran.

Araudiak Idiazabalgo gazta «oso koipetsua (extragrasso), latxa eta 'karrantzana' arrazako ardien esnearekin egina eta 60 egun gutxieneko umodurarekin» bezala zertzen du.

Gazta hau egiteko esneak Araba, Gipuzkoa (Goierri ere bai beraz) eta Bizkaiko lurraldeko latxa eta karrantza arrazetatik etorri behar du. Bost sinadurek

osatzen badute ere, beharrezko baldintzak betetzen dituen edozein lotu daiteke. Enpresa hauek esnearen kontrol fisiko-kimiko eta mikrobiologiko gogorak pasatu behar dituzte dastatze batzordearen onarpenaz gain, Kontseilu Arauemalearen etiketak lortzeko. Etiketek produktu hauen kalitatea garantizatzen dute.

Hasiera batean Nafarroako Jatorri-izenean parte hartzen zuen, baina gero Madrilek eragozpenak jarri zituen bi komunitate ezberdin izateagatik. Bitartean zenbait kontzeptu argitzen zihoazten: nola eraman kontrola, izenaren sinbola erabaki, etiketak nola zabaldu...

Publizitate-kanpaina bat burutu asmoz FEOGARi laguntza eskatu zioten: Jatorrizko Izena duten gaztak preziatuagoak bait dira, publikoaren aurrean desberdintze-elementu bat ezarri eta «Idiazabal gazta» ezaguna izan zedin.

Produktuaren Jatorrizko-Izena egongo ez balitz, seguruenik pixkanaka-pixkanaka euskal gaztaren desagertzera iritsiko ginateke: frantziar, alemaniar, holandar, suitzar eta italiar gazta multinazional handiek gainerasoko gintuzkete.

Jatorrizko-Izena beraz, nolabait babesteko eta sustatzeko modua da euskal gaztaren industria txiki hau. Ehundaka artzainen iraupena garantizatzen du era berean. Latxa ardia, tradiziozko metodoa eta merkatua dira eragileak.



17 argazkia. Arantzak eman zidan etiketa bat. Etxetik partikularrei saltzen dien gaztei jartzen die etiketa hau.



Latxa ardia esne produzitzaile bikaina da eta oso ongi egokitua dago gure ingurura; alturako larre zaharren eraldatzaile ona udaran eta belardiarena neguan.

Metodo tradizionalari esker gazta tipiko bati eman zaio jatorria. Tamaina txiki-ertaina, zilindrikoa, pasta egosigabe prentsatua, keztatua edo keztatugabea eta oso koipetsua izateagatik bereizten da; kalitate handiko gazta durarik gabe.

Gazta honen merkatua, kontsumitzearen ohiturak sortu du. Gure produkzio osoa xurga dezakeen merkatua, baldin eta jatorri eta kalitate garantiarekin aurkezten bada.

Jatorriaren garantia oso sinplea da; «Idiazabalgo gazta» deituko zaio eta etiketa eramango du Euskal Komunitate Autonomoaren barnean latxa arrazako ardiaren esnearekin eginiko gaztak, ardiak ere bertakoak izanik. Garantia bikoitza dago beraz: esnearena, artesne hutsa izan behar duelako batetik, eta gaztarena bestetik.

Kalitatearen garantiak hainbat baldintzen betetzea auresuposatzen du, guztien artean, gazta zindo eta organoleptikoki kualifikatu bati jatorria ematen diote. Esne garbi eta gordinaz eginiko gazta, edo gauza bera dena, pasterizatu gabea, esne osoa bezala ezagutua.

Tradizionalki egiten da, mamitzea 30-32 gradutan eta 45-60 inguruan moztua. Berrero berotzerakoan ez da 40 gradutik igotzen —hau da, egosi gabea—; aurreprentsatu eta moldeatu gaztura berdinean egiten da; prentsatzea eta gatzatzea gatzurretan egiten delarik.

Gutxienez bi hilabetez egoten da lehortzen, osasun baldintza moderno guztiak betetzen ditu, batez ere kolisa, salmonela eta bruzelosia zaintzen direlarik. PHari dagokionez, 5,3tik 5,8ra bitartean dago eta ez du ehuneko bira baino gatz gehiagorik. Koipea ehuneko berrogeitamar inguruan du ESaren gaintetik.

Zilindro itxurako gazta da eta 0,6tik 2 kilo bitartean pisatzen du, gehienetan kilo bateko gaztak izaten dira. Gaur egun handira jotzen da. Barruko ebakiak xularme gutxi eta banatuak erakutsi behar ditu. Gaztaren kolorea zuri-horixka izan behar duelarik.

Gazta keztatua edo keztatugabea izan daiteke. Gehienetan Idiazabal gazta keztatuarekin lotu behar dugu, hau bait da Ordizia inguruan ikusten den gazta mota. Baina ez da gauza bera gertatzen lurraldearen leku guztietan eta izen honen pean lurralde osoa dagoenez, bi motatakoa dela esan beharko dugu.

Merkatuak bertako gazta eskatzen du kopuru handitan, eta gehienetan itxuraz baldintza hau eskaintzen duen gazta bat ematen zaio: keztatua, baina kasu gehienetan ez da euskal gazta, ez da guztiz ardiarena eta ez du lehortzen bi hilabete eman. Gainera osasun aldetik zalantza asko agertzen ditu. Beraz, faltsifikaturiko gazta dugu kopuru handitan gure merkatuan, eta orain arte ezin izan dugu gure ondarea babestu eskaintza sakabanatua, txikia eta etiketa nahiz jatorrizko seiluak erabiltzeko joerarik ez bait dugu izan. Gure gaztari egiazkotasuna kentzea bezala litzateke durarik gabe.

Baina momentu bat iritsi da, nahitaezkoa agertzen dena gazta onaren produkzioa artzainen geroa segurtatzeko.

Idiazabal gaztaren Jatorri-Izenaren helburua, gazta hori garantizatzea da. Horretarako kontrol sistemak sortu ditu esnearen iturburua, produkzioa eta hel-



18 argazkia. Beste etiketa bat, oraingo hau «Artzai-Gazta» kooperatibaren bidez saltzen dituen gaztei jartzten die.

bidea ikuska ditzan. Honekin batera dastatze-batzordea jaio da, gaztaren kalitate eta aurkezpena segurtatzeko. Prozesu honen hirugarren faktorea, osasun zerbitzua beteko duena, laborategia da. Modu honetan eta etiketen bidez, Jatorrizko Izenaren sinbolo bat eman zaio.

Kontseilua su eta gar ari da lanean euskal gazta kontrolatzen eta sustatzen. Haren kideek esnea, laboraturiko gazta eta etiketak kontrolatzeko eginkizuna dute. Horrela, produktuaren kalitatea kontrolatzen du Kontseilu Arauemaleak, eta aldi berean, gure herrian egiten diren gazten ateraldien berri izateko zorian aurkituko da.

Kalitatea kontrolatzeko asmoz, aipaturiko bileraren partaideek zera erabaki zuten, Osasun eta Kontsumo Sailaren ikuskatzaileen esku uztea aldizkako erakusgarri-bilketak eta ondorengo analisiak laborategietan zertzea.

INDOren arabera dastatze organoa nahitaezko organoa da. Batzorde horretan ekoizleek, Eusko Jaurlaritzak, etxekoandreek eta kontsumitzaileek dituzte ordezkariak. Organo bitxi horretako kideek azterketa gainditu behar izan dute beren

dastamena erakusteko. Huskeria dirudien arren, dastatze batzordearen txostena ezinbestekoa da gazta merkaturatu ahal izateko; Beraz, Idiazabalgo gazta merkatura ateratzeko, gainditu behar dituen analisia fisiko-kimikoen eta mikrobiologikoen parekoa da esandako txostena.

1982. urtean ikerketa bat burutu zen gazten gainean eta txostenaren egileak, bere ondorioetan, euskal gaztetan ahalik eta errentabilitate eta produktibitate handiena bilatu behar dela, kalitatea ahaztu gabe, baieztatzen du.

## 10. OHITURAK

Beste garai batzutan, Euskal Herrian, Europa osoan bezala, artzainek beraien jazkera berezia zuten.

Artzainak eguraldiaren girogaiztotik babesteko, «kapusaia» edo «txartesa» erabiltzen zuten. Hau, marroi argi nahiz iluneko artile zakarrez eginiko jazkia zen. Kaparen itxurakoa, sorbaldako eta kapeleraz horniturik.

Hankak, beraiek egindako artilezko galtzerdiz estalirik eramaten zituzten. Beste batzuk berriz, artile zakardun oihaletan biltzen zituzten hankak. Oihal hauek «mantarrak» izenez ezagutzen ziren; gaur egun jadanik ez dira erabiltzen. Gaur egun hanketarako, artilezko galtzerdiak eta gomazko abarkak erabiltzen dira.

Galtzak, gerriko luze-beltz nahiz gorrien bidez eusten ziren. Beltz edo gorri, biek «gerriko» izena hartzen zuten.

Alkondara eta eskuz jositako elastikoaren gainetik, kanesudun oihal soilezko brusa zabal bat eramaten zuten. Lepotik bularrerarte zabalik, botoi sail bat eramagatik.

Burua, orain bezala txapel beltzez ukiturik.

Eskuan bastoi luze eta leuna, urritzarena gehienetan, «makila» deitua. Zenbait kasutan, makilak uhal bat izaten zuten eta latigo edo zigor bezala erabiltzen zen.

Artzainek, beraien produktuak, egun jakinetan eta herrialdearen puntu desberdinetan ospatzen diren merkatu eta ferietara eramaten dituzte.

Goierriko feriarik garrantzitsuena asteazkenero Ordizian ospatzen dena da. Bestalde, ganaduen feriak mendian ere ospatzen dituzte. Artzainek ospatzen dituzten festen artean San Migelak duade, Irailaren 29an. Urtarrilaren 17an San Anton ere ospatzen dute; ohitura da artzainen artean ikuilu eta artaldeak bedeinkatzea.

Aralarko artzainen artaldeak babesteko, ahoa estutzen zaien joareei hosto bat ezartzen die banean formula erlijioso batekin. Hosto hauei «kuttuna» izena ematen zaie.

Aralarko artzainak, Kristoren heriotzarekin gogoratuaz, ez dira udaberrian mendizerrara igotzen, ez eta zelaira jaisten ostiralez. Aralarko mendizerran, artzainaren senditartekoren baten heriotza ere errespetatu egiten da. Artzainak, dolu gisa bere artaldeko ardiei dunbak kentzen dizkie, tradizionalki dunba hauek mendizerraren igoera eta jaitsieran eramaten bait dira.



Artzainak, beste garai batean, atsedenerako denboran, beste artzainekin elkartzen ziren pelotan jolasteko. Pelotalekuak, toki leun eta belarrezkoetan kokatzen ziren. Angelu zuzenak ziren eta txaboletatik gertu aurkitzen ziren. Aralarren oraindik bada Alotzakoaren berri.

Gaur egun, artzainak elkartzen direnean, musean jokatzen dute; oso zaleak dira, osaba Nikolas beraien artean.

Ardi-txakur lehiaketara herri ezberdinetako artzainak etortzen dira, bakoitza bere txakurrarekin.

Txakur hauek arraza berezikoak ez izan arren, oso ondo ikasia dutenez nagusiaren esana betetzen, arraza berezi bat dela dirudite.

Froga batzuk ipintzen dizkiete. Eginbehar guztia zaunka eta hozkadarik gabe bete behar dute. Froga ongien burutzen duen txakurrak edo txakurraren jabe den artzainak jasotzen du saria. Artzainak hitzik egin gabe jokatu behar du; soilik txistuz edo oihu batzuen bidez adierazi behar dio txakurrari bere eginkizuna.

Esan beharrekoa da, Goierrri ez dela lehiaketa hauen gune nahiz eta artzantzara arloan zer esan handia izan.

Garibayk 1571an argitaratu zuen liburuan esaera zahar hauek bildu zituen:

— «Artzaiak aserra zitezen. Gaztak ageri zitezen».

— «Ardia txipia beti bildots».

Oihenartek berriz, XVIII. mendean, beste hauek:

— «Zinzarri mihi gabea paretan hondatuko».

— «Ulhainak ezteramana urdainak».

Beste zenbait esaera zahar ezagun:

— «Ahuntzaren umea, ahuntzumea».

— «Anakalen ardiak, beltzen artean zuriak».

— «Bee!, ahuntzak adarra mehe».

## TESIA

Harriztatutako zibilizazio guztiak hil egiten dira. Ez da iraganeko ohituretan eskuak lotzeko gauza. Lehenik, euskal menditarrak iraganeko zenbait mamutatik askatu behar dira.

Gure mendi hauen historiaurretik abiatu gara. Orain historiatik haruntzago joan behar dugu, oraina abiapuntutzat harturik. Asko hitzegin izandu da egokitze batetaz, baina alor honetan guztia azalekoa da, ez bait da nahi interesgarriak diren fenomenoek ikuspuntu global bat lortzerik. Egokitzaileek ez dituzte ezagutzen betiereko lege ekologikoak; ez diren lege ekonomikoez hitzegiten dute, gizon euskaldunen eta mendien erralitatearen ez jakintasun oso batetan babestuz ezkutatzen dute beraien kompetentzi eta irudimen falta.



19 argazkia. Osaba eta biok ernai dauden ardiak etxera eraman aurretik. Nire aitak ateratako argazkia da, 1990eko Azaroaren azken egunetako batean Eginoko belartzarian.

Iraganeko demokrazia liberal eta berdintasunetik, ingurugiroaren erabilera zuhur eta legebildutik, gaur egungo beherakada egoera honetara iritsi gara.

Gure herri hau txikiegia da horren herri indartsuarentzat. Bere hizkuntza galdu duen herriak funtsezkoa galdu du, baina antzkabetzen utzi den herriak bere arima eta aurpegia galdu ditu.

Beharrezkoa da sustraitik aldatzea guzti hau, euskal menditarrek beraiengan konfidantza hartu behar dute, taxu ekaigabezko sekulako aberastasun horietan izan kontzientzia eta ekin.

Oso argi agertzen dena zera da: gure-gurea dugun zerbait galtzen ari garela.

## HITZATZEA

Hego haizeak haizebolada garrantzez putz egiten du; gaur goizean hego haizea Jainkoa da, gizona lasto ilauna.

Zerua grisa dago, ostertz neurrigabea gehiago oraindik. Eguzkia zeruko ilunbeetatik agertzen eta ezkututzen da.

Ardiak beraien aterpeetara itzuli dira, han goian saiak eta miru erregeak haizearekin jostaten diren bitartean.

Zerua beltza dago. Agian gauez ilargiak distiratuko du.

Euskal udazkena hor dago. Artaldeak ateratzear daude. Pagadia dardaratu egiten da: hori, gorri, malba, liliubel mendiko harresi harkaiztsua bezala.

Azeriek oinkada luzeetan zeharribiliko dituzten larreak. Berehala elurra iritsiko da, txabolan igarotako gau negutiarrak, sutargirik gabe, egurra hezeegia bait dago.

Baina egunsentiaren argia erneko da elurretatik, hegazti abestien euri finaren pean.

Udaberria hor dago. Hegazti txuria itzuli da. Hegazti txuria kobatik irten da, Mari bezala, euskal mitologiaren Jainkosa.

Mendietan arbasoen adoratzeak balio du, guztia bizirik bait dago eta guztia zeinua da, suaren txinpartak, ilunabarraren aiumak.

## BIBLIOGRAFIA

### Liburuak:

APALATEGI BEGIRISTAIN, JOXEMARTIN. *Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsonataldeak eta pertsonak*. 4 bolumen. 1988, Donostia: DAKM. 1. alea (61-91 orriak).

BLOT, JACQUES. *Artzainak*. Elkar.

DE LEIZAOLA, FERMIN. *Euskaldunak: la etnia vasca*. 1978, Etor. Zuzendari zientifikoa On Joxemiel Barandiaran. 1. alea.

DENDALETICHE, CLAUDE. *Montañas y civilización vascas*. 1980. Bilbo, Ediciones Mensajero.

ESKOLAKO LIBURUTEGIA. *Artzantza*.

GONZALO RODRIGUEZ, JUAN JOSE; MUGIKA ALUSTIZA, JOSEAN; URTEAGA ARTIGAS, MERCEDES; ZUFIAURRE GOYA, JOSETXO. *Beasain, udalerrri gipuzkoar baten historia*. 1987.

PEÑA SANTIAGO, LUIS PEDRO. *Artzantza Gipuzkoan*. 1987. G.K. ko Gaztetxoan Elkarte.

### Aldizkariak:

ARTZAI ORRIA Gipuzkoako latxadun elkarte E.L.E.  
1990ko Maiatza «Artzai orria», 7-10 orriak, Azpeitia.

1990eko Iraila «Artzai orria», 10-11 orriak, Azpeitia.

SUSTRAI 1986 4. hiruilabetea; 6. alea.

1987ko 1. hiruilabetea; 7. alea.

1987ko 2. hiruilabetea; 8. alea. 1988ko 2. hiruilabetea; 12. alea.





### **ANDONI AIZPURU MURUA**

1964.eko uztailak 11an Gabirian jaioa. 1985ean Elizbarrutiaren O.H.O. irakasle Unibertsitate eskolan Natur Zientziak sailan espezializatu zen. Bertan Tesina egiteko gustoko gaia zuela eta Artzantzari heldu zion. Tesi hori Fermin Leizaolaren zuzendaritzapean burutu zuen.

Orduan bildutako datuek eta piztutako interesak Artzantzako gaia sakonagotik aztertzea bultzatu zuten.

Egun Errenteriko Udal-Euskaltegian euskarako irakasle bezala ari da lanean.



### **AINHOA GALPARSORO SARRIEGI**

1974.ko maiatzak 3an Ataunen jaioa.

Beasaingo Irakaskuntza Ertainetako Institutoan B.B.B.ko 3. maila, Letren adarretik ikasten ari da gaur egun.

Ataungo herriak On Joxemiel Barandiaran omendu zuenean Udaletxean liburuen erakusketa bat antolatu zuen. Hantxe arakatzen ibili ondoren intereseko zenbait datu jaso zituen eta lehiaketarako lan hau prestatzeari ekin zion.





**SALNEURRIA: 1.272 PTA. (B.E.Z. barne)**

